

+  **Ekonomia, ingurumenari begira**

Mirene Begiristain ekonomialariari elkarrizketa



EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN IRAGARKIEK HAMAR URTE BETE DITUZTE

Euspot lehiaketaren hamargarren aldia deitu dute, eta 'Nekazaritzatik bizi izatea' izango da gaia. / 20

Euspot lehiaketaren antolatzaileak eta babesleak, atzo, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezkoen campusean, Aretxabaletan. IMANOL BELOKI



Burgosko Prozesuaren gaineko erakusketa ireki dute Kulturateko klaustroan / 5

Sarrera guztiak agortuta, berragerpena egingo du Emon taldeak Seminarixoa / 28

Ligari berrekingo diote Mondrako, Bergarako eta UDAko futbol talde nagusiek, neurriak hartuta / 39

Musika tresnak geldirik geldirik edukitzera behartuta eskualdean

Musika talde gehienak ezin entseatu daude, COVID-19ak eragindako neurri murriztaileen ondorioz / 40



Aretxabaletako kuartel zaharreko musikari batzuk. XABIER URZELAI

Emakumeen Mundu Martxak deituta, ekimen bateratua egingo dute bihar feministek / 6

SINADURAK

 IGOR ARIZMENDIARRRIETA / 8	 MARIJE UGALDE / 26
 OIANA SANCHEZ GONZALEZ / 12	 AINHOA SEMPER / 34
 IDOIA SANCHEZ / 20	 AGURNE BARRUSO / 48

MERKEALDIA
hau da zure momentua

2 mó progresibo
erreflexuen aurkako lenteekin

199€
(lehen 229€)

Kontratuatu optikan konpeltoreen eraberraketa.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA


MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Oñatin zenbatu dituzte azken asteko kutsatuen erdiak: zehazki, 110

Azken egunetan 201 kutsatu hauteman dituzte eskualdean; 110, Oñatin. Intzidentzia-tasa 1.430,07koa zuen atzo herri horrek. Bestetik, Aramaio herri gorrien zerrendatik irten zen. Birusaren aurkako txertoa hartzen hasi dira ertzainak eta osasun langileak

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara bitartean, 201 koronabirus kasu positibo berri baieztatu dituzte Debagoiengan, aurreko zazpi egunetan baino sei gutxiago -207 izan ziren-. Azken kutsatuak kontuan hartuta, dagoeneko 5.521 dira eskualdean birusak kutsatutako herritarrak.

Herririk herri, Oñatin hauteman dituzte kutsatuen erdiak baino gehiago (110), eta jarraian baina kopuru horretatik urrutidaude Arrasate (48) eta Bergara (27). Azken herri horretan eta baita Aramaion ere, positibo berriek behera egin dute nabarmen azken zazpi egun hauetan. Azkenik, Leintz Gatzagan eta Elgetan ez dute kutsaturik izan; are gehiago, urtarrilaren 9az eta 26az geroztik -hurrenez hurren- kasu berririk ez dago.

Intzidentzia-tasari erreparatuz gero, etengabean goraka egiten jarraitzen du Oñatin, eta atzo 1.430,07an kokatu zen tasa -aurreko asteko egunetan 538,5ekoa zen-. Egoeraren bilakaera ikusita, Izaro Elorza Oñatiko alkatetik bideo bidez mezua helarazi die asteon oñatiar guztiei, eta horretan azaldu du oraindik ez daudela egoeraren "irakurketa erreala" egiteko moduan, positiboen kontaktuen emaitzek zehaztuko baitituzte egin beharreko "urratsak" zeintzuk diren.

Oñati ez ezik, Bergara ere gorritz margotuta ageri zen atzo, 512,10eko intzidentzia-tasarekin. Arrasate laranjaz zegoen (425,29) eta Aretxabaleta laranjatik horira pasa zen (254,24). Gainera, 5.000 biztanletik beherako herrien artean, Aramaio herri gorrien zerrendatik irten zen atzo, Jaur-

laritzak argitaratzen duen dokumentuan ez baitzen ageri.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, bederatz lagun zeuden atzora arte koronabirusak jota ingresatuta.

INTZIDENTZIA-TASAREN BILAKAERA DEBAGOIENeko INTZIDENTZIA-TASAK LURRALDEEZ GAINDI JARRAITZEN DU

Grafikoan ikusten denez, Debagoieneko 100.000 biztanleko azken hamalau egunetako tasa 629,54an zegoen atzo, Hego Euskal Herriko lurraldeak baino altuago. Azken astean egonkortzera egin du eskualdeko tasak, nahiz eta azken egunetan behera egin duen.

Gainontzeko lurralde guztietan ere behera egin du intzidentzia-

tasak. Gipuzkoan 336,04an zegoen atzo, eta Araban ere antzekoa izan da joera; behera eginda, Gipuzkoaren antzera zegoen bart: 367,04an. Bizkaia da Debagoienaren ostean intzidentzia altuena duen lurraldea, eta 446,37an kokatu zen atzo. Nafarroan, azkenik, 206,44ko tasa zuten; guztietan baxuena.

TXERTAKETA-PLANA

ASTELEHENAN HASIKO DIRA 80 URTETIK GORAKOEI TXERTO EMATEN

COVID-19 gaitzaren aurkako txertaketa planaren baitan, aste honetan bertan hartuko dute txertoa hirugarren taldea osatzen dutenek. Hain justu, eguaztanean hasi ziren ziztatzen klinika pri-

batuetako osasun langileak, eta lehenengok Pfizerren eta Modernaren dosiak hartu zituzten. 55 urtetik beherako Ertzaintzako agenteak ere egun berean hasi ziren ziztatzen; izan ere, Astra Zenecaren txertoa hartuko dute horiek, eta adin horretatik beherako pertsonengan da eraginkorra txerto hori. Bergarako ertzain-etxean galdetuta, baina, azaldu dute oraindik ez dutela txertoa hartzeko hitzordurik. Horietaz gain, gaur hasiko da eguneko zentroetako profesionalen txertaketa.

Bestetik, datorren astelehenean aurrera hasiko dira 80 urtetik gorako pertsonen txertoa ematen, eta Gotzone Sagardui Osasun sailburuak argitu du 100 urtetik gorako adinduak izango direla horretan lehenak. "Jarraian" iritsiko zaie txertoa

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Oñati	110	69	820	71,50
Arrasate	48	46	2.344	106,15
Bergara	27	50	1.211	80,54
Aretxabaleta	11	7	521	73,59
Antzuola	2	4	164	75,26
Aramaio	2	23	135	91,22
Eskoriatza	1	8	267	65,07
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
GUZTIRA	201	207	5.521	85,19

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Txantxiku Ikastolakoak, etxetik

Oñatiko Txantxiku Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikineko ikasle eta langileek etxetik dihardute lanean, Ikastolatik adierazi dutenez. "Aratusteengatik hiru eguneko geldialdiaren ostean, atzo eta gaur online ari dira ikasleak eskolak jasotzen", adierazi dute. Eraikin horretan izandako positibo kasuei lotuta baheketa egin zuten joan den astean; DBHko eta batxilergoko 211 ikasle eta langile hartu zuten parte. Emaitzak ikusita, Osasun Sailak hamar eguneko konfinamendua agindu zien, eta, hala, ikasgelak itxita dituzte, gaur-gaurkoz. Atzo, eguna, egin zieten bigarren proba ikasle eta langileei, eta gaur jakingo dituzte emaitzak: "Astelehen edo martitzenean ikasgelara itzultzea espero dugu. Hamar eguneko konfinamendua osorik egin behar baitugu".


Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA

100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



hartzeko txanda etxeko Laguntza Zerbitzuko langileei eta udaltzainei. Horri lotuta, udalerrietan langileei buruzko datuak batzeko lanetan hasi da Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel), eta jasotako informazioarekin planifikatuko du Osasun Sailak txertaketa-prozedura. 55 urtetik gorako profesionali Pfizerren txertoa jarriko zaie eta hortik beharakoei, Astra Zenecarena.

Bien bitartean, aurretik hasitako taldeen kanpainarekin "modu paraleloan jarraitzea" aurreikusten dela adierazi zuen sailburuak. Hala, kanpainako lehenengoak izan ziren egoitzetan, egoiliarren eta profesionalen immunizazioarekin jarraituko dute, eta baita Osakidetza-ko lehen lerroko osasun-profesionalen txertaketarekin ere.

Kasu bat San Juan de Diosen

Debagoieneko zaharren egoitzetan COVID-19 kasu aktiborik ez dago egun, baina Aldundiak San Juan de Dios ospitale psikiatrikoan izandako kutsatze baten berri eman zuen domekan. Gipuzkoako egoitzetan lau kasu aktiboz zeuden eguaztenera arte.

Txertaketa-plana aurrera eramaten ari diren bitartean, anbulantziatako langileek protesta egin zuten eguaztenean, Donostia Ospitale parean. Uste dute birusaren aurrean "zuzeneko lana" egiten ari direla, eta, hori horrela, txertoa hartu gura dutela aldarrikatu zuten. "Ez gaude txertatuta, eta ez dauka horretarako egutegirik", zioten protestara batu zirenek.

NEURRI BERRIAK

ASTELEHENA EZKERO, UDALERRI MUGAKIDEEN ARTEAN MUGI DAITEKE

LABI Aholku Batzordea joan den egubakoitzean batu zen, eta astelehenaz geroztik indarrean dira adostutako neurriak. Batek, herrietako itxiera perimetrala mantendu egingo dute, baina mugakideak diren herrien arteko mugikortasuna baimenduta dago kirola edo jarduera sozioekonomikoak egiteko.

Bestetik, kirolari dagokionez, lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta lehiaketak baimenduta daude. Eta horrekin batera baita kirol federatuko eta eskola-kiroleko entrenamenduak eta gimnasio, klub edo kiroldegietako programutako jarduerak ere; betiere, herri horietan 500etik behariko intzidentzia badago.

"Pandemiak kontsumo ohiturak aldatuko ditu"

KINO MARTINEZ GIPUZKOAKO OSTALARIEN ELKARTEKO IDAZKARI NAGUSIA

Gipuzkoako Ostalarien Elkarte ordezkariek Bergarako ostalariekin bildu ziren eguaztenean. Herri horretako ostalarien egoera izan zuten berba, besteak beste

M.S. BERGARA

Kino Martinez elkarteko idazkari nagusiak azaldu du ostalaritza sektorearen "biziraupena" bermatzeko lanetan ari direla. **Zer eman zuen Bergarako ostalariekin egindako bilerak?**

Elkarteko hiru lagun eta herri horretako 30 ostalari inguru elkartu ginen -71 establezimendu daude herrian-. Bi hizketagai nagusi izan genituen bileran: batetik, Gipuzkoako Elkartetik zein lan egiten ari garen azaldu genien, eta baita sektorea nola dagoen birpasatu ere. Horretaz gain, herriko gai konkretuei buruz jardun genuen: alde batetik, terrazen araudia berri beharra dagoela uste dugu. Bestalde, Bergarako ostalariak elkartu eta talde bat osatzea ere planteatu genuen bileran, indarrak batzeko helburuarekin.

Nola dago terrazen araudia?

2009ko araudia da, eta zaharkitua dago. Sasoi honetan terrazak ezinbestekoak dira ostalaritzaren biziraupenerako, eta, mahaitik mahaira metro eta erdiko distantzia uztea derrigorrezkoa denez, Gipuzkoako herrietako udalek espazio handiagoa hartzen utzi diete ostalariei gehiago ordaindu beharrik gabe; era horretan, mahaiak kendu behar izan ez dituzten. Bileran kontatu zigutenez, Bergaran kontrakoa gertatu da. Ostalariek mahai kopurua murriztu behar izan dute, ez dietelako tokia zabaltzen utzi. Alde horretatik, uste dugu Udalak eskuzabalagoa beharko lukeela izan.

Nola topatu zenituzten herriko ostalariak?

Orokorrean dugun sentsazioa da ostalaritza-jarduera %40 erori dela. Pandemiak gehien kalte duen sektorea da gurea. Eta nekea sumatzen dugu, aurreikuspenak zalantza izan dira, eta uste dugu egoera hau gehiegi luzatzen ari dela. Osasun krisiak gutxiago iraungo balu,



Kino Martinez, Gipuzkoako Ostalarien Elkarte idazkari nagusia. G.O.E.

"SENTSIBILITATEA ESKATZEN DIEGU UDALARI, EGOERA DRAMATIKOA BIZI DUGULAKO"

kontsumo ohiturak ez lirateke aldatuko; baina gehiegi luzatu da, eta arrastoa utziko du horrek.

Zein ohitura aldatuko dira?

Aurrerantzean jendeak gehiago joko du terrazetara, eta horretan inbertitu behar dugu tabernariok. Gaueko aisialdiak gehiago behar du erreperatze, eta kalte horiek lagundu behar gaude. Gainera, etxera eramateko zerbitzua ere indarra hartzen ari da.

Zertan ari da orain elkarteak?

Eusko Legebiltzarrean atzo proposatu zuten sektorearentzako erreskate plan bat luzatzea, eta horretan ari gara lanean, hain zuzen; laguntzak ostalariei iritsiko zaizkiela ziurtatu gura dugu, autonomoek eta enpresa txikiek itxaropena izan dezaten. Hori horrela, ostalaritzaren biziraupena bermatzea da gure helburua, gaur-gaurkoz.

Auzitegi Nagusiak berriki onartu du intzidentzia-tasa altua duten herrietako tabernen irekiera...

Bai, eta lorpen handia izan da hori. Baina ez da egin dugun bakarra. Pozik gaude, Asturiasen edota Katalunian, esaterako, ebazpena ez delako bera izan.

Nola ikusten dituzu ostalaritzari lotutako neurriak?

Inoiz baino hobeto bete behar dugu araudia. Eta kontua ez da nork bere tabernan eta bere bezeroek araudia betetzen dutela ziurtatzea, ondokoak betetzen duela ere ziurtatu beharra dago eta. Hala ezean, kutsatzeak igo egiten dira eta guri egozten digute errua; jomugan gaudelako. **Zeintzuk dira etorkizunerako aurreikuspenak?**

Pandemiak orbainak utziko dizkigu, ostalaritzari kosta egingo zaio erreperatzea. Baina EAEko ostalaritzak oinarri sendoak ditu; horri esker, itxaropena duen etorkizuna eraikiko dugu. **Zer eskatzen duzue?**

Sentsibilitatea eskatzen diegu herrietako udalari, egoera dramatiko bizi dugulako. Eta Udalen Finantzetarako Foru Funtsaren bitartez lagun gaitzela eskatzen diegu.



Lehiaketaren antolatzaileak, aurkezpen egunean ateratako talde argazkian. MAIALEN SANTOS

Mundu osoko ekintzaile gazteak, Arrasatera begira

Mondragon City Challenge lehiaketa lehen aldiz antolatu dute, mundu osoko ekintzaile gazteei zuzenduta. 16 eta 24 urte arteko parte hartzaileek gai jakin batzuei buruzko enpresa proiektua sortu beharko dute, eredu kooperatiboa edukiko duena

Xabi Gorostidi ARRASATE

Asteazkenean, Mondragon City Challenge izeneko ekintzailetza kooperatiboko nazioarteko lehenengo lehiaketaren aurkezpena egin zuten, Arrasaten, Kulturaren. Batxilergoko, heziketa-zikloetako eta unibertsitateko mundu osoko ikasleei zuzendutako ekimena da, eta parte hartzaileek enpresa-proiektu kolaboratzaile propioa garatu beharko dute; enpresa-kudeaketako gaitasunak eta negozio-eredu kooperatibo bat sortzeko gaitasuna garatzea da helburu nagusia. Askoren arteko proiektua

da: Arrasateko Udala, Mondragon Taldea, Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Kooperatiben Gorenkontseilua, Mondragon Unibertsitatea eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa; Laguntzaile gisa daude Asekoop, Saiolan, Azaro Fundazioa, *El Diario Vasco*, Arizmendiarrietaren Lagunak eta Garaiak.

Lehiaketaren ezaugarriak

Lehiaketaren nondik norakoei dagokienez, ikasleek bi eta lau lagun arteko taldeak antolatuko dituzte, 16 eta 18 urte bitartekoen edo 19 eta 24 bitartekoen kate-

gorietan lehiatzeko. Hala, bederatz hilabete izango dituzte proiektua garatzeko, hiru erronka hauetakoren baten baitan: erronka teknologiko-digitala, erronka sanitario-soziala eta energetiko-klimatikoa.

Sei faseko lehiaketa

Lehiaketa berria sei fasetan eramango da aurrera. Hain zuzen, mundu mailako taldeek enpresa-proiektu kooperatiboko ideia proposatzea izango da lehen urratsa, eta horien artean hogeiei ideia onenak aukeratuko ditu epaimahaia. Jarraian, proiektu-

tuak garatu egin beharko dituzte eta hogeiei talde onenek jarraituko dute aurrera lehiaketan. Azkeneko geratuko diren sei talde finalistek egin beharko dute proiektuen defentsa, eta azaroaren 19an Arrasateko Amaia antzokian egingo den amaierako ekitaldian aukeratuko dituzte irabazleak.

Lehiaketan parte hartu gura duten ikasleek www.mondragoncitychallenge.com webgunean izango dute horretarako aukera, eta otsailaren 26an amaituko da aurretiko izen-emate epea.

Sariak eta kategoriak

Hiru kategoriatan banatuko dituzte sariak: 16 eta 18 urte arteko kategoriako irabazleek Europako herrialde batera bidaiari irabaziko dute; 18 eta 24 urte arteko kategoriako irabazleek Hego Korea bidaiari irabaziko dute; eta originaltasunaren saria jasotzen dutenek, aldiz, 800 euro eskudirutan. Esan behar da pandemia amaitzean egingo dituztela bidaiak, mugikortasun mugak indarrean ez dauden

unean, alegia. Epaimahaian hamabi lagun arituko dira: zortzi epaimahai profesionalen eta lau epaimahai teknikoan.

Antolatzaileak "gogotsu"

Aipatu bezala, eragile askok elkarlanean diseinatutako lehiaketa da, eta horietako gehienak asteazkeneko aurkezpen ekitaldian izan ziren.

Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearen hitzetan, kooperatiben arloan "erreferentziatzeko herria" da Arrasate, eta azaldu zuen "plazera" dela mundu mailako gisa horretako lehiaketa bat bertan egitea.

Bestetik, Mondragon Unibertsitateko idazkari nagusi Idoia Peñacobak adierazi zuen ekimena bat datorrela unibertsitateko "lan-ildoekin" eta helburu estrategikoekin: "Urteak daramatzagu ikasleak ekintzailetasunarekin tratatzen, etorkizuneko ofiziotarako prestatzen joateko biderik onena dela uste dugulako".

Zera adierazi zuen lehiaketari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako zuzendari nagusi Iker Estensorok: "Balio kooperatibo horiek Gipuzkoaren parte dira. Gipuzkoarren lehiakortasuna sustengatzen duten balioak dira, eta funtsezkoak dira kohesio-sozialerako".

Euskadiko Kooperatiben Konfederaziotik azaldu zuten Mondragon City Challenge proiektu "berritzaile bezain garrantzitsua" dela, etorkizuneko kooperatiben sorrera bultzatuko duena.

HIRU SARI ETA HIRU KATEGORIA IZANGO DITU MONDRAGON CITY CHALLENGE LEHIAKETA BERRIAK

87 milioi euroko irabaziaz izan ditu Laboral Kutxak 2020an

65,7 milioi euroko hornidura erregistratu dute pandemiaren ondorio kaltegarriari aurre hartzeko

X.G. DEBAGOIENA

"Egoera oso gogorra bada ere, negozioari dagokionez elementu positibo nabarmenak lortu ditu Laboral Kutxak 2020ko ekitaldian, eta, gainera, efizientzia handiz kontrolatu ditu kostuak. Ildo

horretan, aipatzekoak dira enpresen kreditu-inbertsioaren hazkundeak, hipoteka-formalizazioen igoera eta aseguru-negozioaren ekarpena", adierazi dute bankuko arduradunek prentsa-ohar bidez.

Hainbat ratio hobetzea lortu zuten iaz. Esate baterako, kaudimena hobetzea lortu dute %21,26ko CET1 ratioarekin eta berankortasun-tasak behera egin zuen iaz, %3,31raino, sektorearen %4,5eko batez bestekoaren azpitik.

Ekonomikoki urte zaila izan den arren, banku kooperatiboaren hipoteka-maileguren formalizazioek %16,8 egin zuten gora iaz, eta hipoteka inbertsioaren saldo osoak, aldiz, %1,2ko igoera izan zuen.

433 milioi euro, enpresa txiki eta ertainendako

Enpresa Txiki eta Ertainendako 2021eko Laguntza Plana aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak. Planak 68 laguntza-programa biltzen ditu eta 433 milioi euroko aurrekontua du. Jaurlaritzak adierazi duenez, "ekonomia suspertzea" eta "kalitatezko enplegua sortzea" da helburua.

Pandemiak sortutako krisiaren ondorioz EAEko ekonomian

%9,5eko jaitsiera izan dela azaldu du Jaurlaritzak eta langabezia-tasa %11,20koa izan dela 2020an.

Hori horrela, enpresa txiki eta ertainen "garapenean eta lehiakortasunean" jarri du arreta. Diru-laguntzen aurrekontuaren %40 bideratuko dute "eraldaketa digitaleko, ekintzailetzako, industria-garapeneko, nazioartekotzeko, ekonomia zirkularreko, trantsizio energetikoko edo elikagaien industriako proiektuetarako, besteak beste".

Burgosko Prozesua ez ahazteko erakusketa

Kulturaten inauguratu zuten, atzo, 'Burgosko Prozesua. Frankismoari epaiketa' izeneko erakusketa. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aranzadi Zientzia elkarteak antolatu dute, eta giza eskubideen aurkako eraso hura ahanzturan ez geratzea izan dute helburu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iaz bete ziren 50 urte Burgosko Prozesua egin zela, non bederatziz lagun heriotza-zigorrera kondenatu zituen aginte frankistak. Urteurren horren harira, erakusketa antolatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, eta atzo, Arrasateko Kulturateko klaustroan inauguratu zuten. Bertan izan ziren, besteak beste, Aldundiko Gobernantza diputatu Eider Mendoza, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko foru zuzendari Ion Gamba eta Arrasateko alkate Maria Ubarretxena.

"Gizarte-mobilizazioa arrakasta bat izan zen, erregimenaren aurkako desadostasuna zabaltzen lagundu baitzuen eta orduko agintariei erakutsi baitziren ezinezkoa zela protesta haiek itzaltea. Kasuak izandako oihartzun mediatikoa zela eta, frankismoari berari egindako prozesu moduko bat bilakatu zen", adiera-

zi zuen Mendozak. "Etokizuneko bizikidetzaren oinarriak jartzeko, gure iraganaren orrialde guztiak irakurri behar ditugu, ezer ezkutatu gabe", gehitu zuen Ubarretxenak.

Epaiketaren testuinguru historikoan sakondu nahi du erakusketak. Meliton Manzanasen heriotzan parte hartzea leporatuta ETako hamasei kide prozesatu zituzten 1970eko abenduan: bederatziz heriotza-zigor, 519 urteko kartzela-zigorrek eta absoluzio bat izan ziren emaitza. Erakusketak hiru bloke izango ditu. Lehenengoan, Burgosko Prozesua gertatu zen testuinguru historikoa islatzen da. Bigarrenean, giza eskubideen urraketak eta frankismoak eragindako errepresioa azalduko dira; hirugarrenean, berriz, epaiketan gertatutakoa.

Erakusketa martxoaren 6ra arte bisitatu ahalko da, 17:30etik 20:30erako ordutegiarekin; domeketan itxita egongo da.

Foru Funtsetik aurreikusi baino 2,6 milioi gehiago Debagoienara

Gipuzkoako udalek iaz baino diru gutxiago jasoko dute, baina aurreikusitakoa baino 30,8 milioi euro gehiago

X.G. DEBAGOIENA

Finantzaketarako Foru Funtsetik Gipuzkoako udaletara bideratuko den zenbatekoa aurrekontuetan jasotakoa baino txikiagoa izango da aurten. Halere, urrian aurreikusitakoa baino 30,8 milioi euro gehiago jasoko dituzte udalerriek. Foru Aldundiak azaldu du "espero baino emaitza hobetoekin" itxi zuela iazko zerga bilketa. Guztira, 482.048.561 euro jasoko dituzte Udalek 2020ko Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik. COVID-19aren krisiak eragina izan badu

ere, 2020koa Gipuzkoak izan duen inoizko hirugarren funtsik handiena da.

Debagoieneko udalek -Aramaio kontuan hartu gabe- urrian aurreikusitakoa baino 2.614.006 euro gehiago jasoko dituzte. Herriz herri, hala gauditu dituzte aurreikuspenak: Arrasaten, 919.522 euro; Bergaran, 608.560,70 euro; Oñatin, 474.086,91 euro; Aretxabaleta: 291.269,92 euro Eskoriatza: 170.887,44 euro, Antzuolan, 88.514,27 euro; Elgetan 47.439,41 euro; eta Leintz Gatzagan, 13.725,77 euro.



Arrasateko Bizikidetzeta mahaiko kideak, Eider Mendoza diputatuarekin. HASIER LARREA




Gure ikasleen ahotsan



“Dituen askotariko aplikazioak ikusita, Industria Elektronikako Ingeniaritza ikastea erabaki nuen”

Jone Zubizarreta (Arrasate, 20 urte) Industria Elektronikako Ingeniaritza graduko hirugarren maila ikasten ari da Mondragon Goi Eskola Politeknikoan.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?
Batzilergo zientifiko-teknologikoa Arizmendi Ikastolan egin nuen. Zergatik aukeratu zenuen Industria Elektronikako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Argi nuen ingeniaritzaren bat ikasi nahi nuela, beti izan ditut-eta oso gustuko matematika, teknologia eta fisika. Teknologiarekin duen harremana eta dituen askotariko aplikazioak ikusita, Elektronika ikastea erabaki nuen. Unibertsitateari dagokionez, Arrasaten bertan egoteaz gain, bere ikaste-ereduagatik aukeratu nuen. Enprekin duen loturak eta eredu dualak ere asko erakarri ninduten.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso positibotzat joko nuke. Elektronikari buruz ikasitakoaz haratago, unibertsitatean ezagutu dudak jendeak nire hazkuntza pertsonalean eragina izan du.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoa jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Metodologia berritzaile eta praktikoa moduan definituko nuke. Ikasketa prozesuan hainbat kompetentzia garatzen dira.

Unibertsitateetik zer gustatzen zaizu gehien?
Ebaluazioa jarraitua izateak ikasgaiak eguneratuta eramatera bultzatzen du eta azterketa ezberdinetan notaren pisua banatzen da. Bestalde, sei hileko bakoitzean taldeka PBLa burutzea oso interesgarria iruditzen zait; benetako arazoei aurre eginez, talde lana, irudimena eta autonomia lantzeaz gain, sei hilekoan zehar ikasitakoa praktikara eramatea ahalbidetzen da.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?
Ikerlan zentro teknologikoan ari naiz lanean. Bertan burututako lan guztiak zibersegurtasun alorrekoak izan dira. Kontzeptu berri asko barneratu behar izan ditut, alor hau elektronikaz gain informatikari zeharo loturik baitago.

Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?
Eredu duala oso aberasgarria da. Lana eta ikasketak partekatzeak denboraren gestioa hobetzera behartu nau, efizienteagoa izatera. Gainera, unibertsitatean ikasitako hainbat ezagutza praktikan jartzeko aukera eman dit. Bestalde, enpresa munduan lan egitea zer den ikusi eta ikastea ere oso baliagarria iruditzen zait.

Zubi-harresien gainetik, guztien ongizatearen bila

Emakumeen Mundu Martxak bosgarren ekintza internazionalista garatzen dihardu, eta Euskal Herriko talde feministek euren ekarpena egingo dute bihar: herrietako zapiak batu, Irun eta Hendaia artean martxoaren 6an egingo den ekintzara begira

Hasier Larrea DEBAGOIENA

"Sistemaren arrazismoan eta pertsona bakoitzak gai horretan duen erantzukizunean" oinarrituko da Emakumeen Mundu Martxaren (EMM) aurtengo ekintza. 2000. urtean sortu zen mugimendua bost urtetik behin batzen da, gizartean dauden arrakalak ikusarazi eta deuseztatzeko ekimen entzutetsuak egiteko; hori horrela, aurtengoa hiru "egitura arrazistatan" zentratuko da, Emakume Mundu Martxako kide Luciana Alfarok aipatu duenez: migrazioetan, mugetan eta transnazioaletan. "Azal zuriko feminista pribilegiatuak interpelatu nahi ditugu oraingoan, barneratutako egitura arrazistez jabetu eta sisteman pitzadurak sortzen hasiteko unea dela jakinarazteko", adierazi du. Jatorriz Perukoa den arren, Bergaran bizi da orain; ondorioz, pertsona "arrazializatua" sentitzen da hemen, eta argi dauka gizarteak arrazismoaren gaineko "hausnarketa sakona" egin behar duela.

Pertsona bakoitzak duen erantzukizun horiek sinbolizatzeke, zapiak ehundu dituzte egunotan herri bakoitzeko talde feministek. Oihal horiek herrietako mugetan pasako dituzte eskurik esku bihar, egunean zehar, eta



Bergarako Martxanterak, joan den zapatuan, EMMren etorrera prestatzen. GOIENA

esan gabe doa ibarreko feministen artean sareak ehuntzeko ere balioko duela zapatuko ekimenak. Debagoiengan, Uberan hasiko dira zapiak batzen, eta ondoren pasako dira Elorregitik, Mugarritik, Almenetik eta Marulandatik, eta arratsaldeko seietan Eskoriatzan ekitaldi nagusia egingo dute. Bertan, ibarreko herrietako oihalak emango dizkiete Tolosatik etorriko diren Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako kideei, haiek eraman ditzaten martxoaren 6an Irun eta Hendaia artean egingo den ekitaldi nazionalera.

Lanketarako, dosierra

EMMk formakuntza feministan sakontzeko material didaktiko ugari jarri du aztergai bere webgunean, aurtengo leloarekin zerikusia duten gaiak txosten batean batuta. "Egiteko serioa da, apiriletik aurrera patxadaz landuko duguna", esan dute EMMren ekimena antolatzen diharduten Olaia Muruak eta Jasone Giraldoak. Ibarreko emakume ororekin landuko dutela ere nabarmendu dute: "Jatorri askotariko pertsonekin ari gara lanean; oso esperientzia aberatsa ari gara bizitzen, kulturar-

EMMren ekintzen hitzorduak

Antolatzaileek adierazi dute ibilbidea oinez, bizikletan, autoz edo autobusez egin daitekeela. Jantzi moreren bat eta lepoko zapien bat eramatea ere gomendatu dute. Debagoiengan honako ordutegi hau izango dute herriz herriko ekintzek:

- **09:00etan Bergarako frontoian:** Hortik Elorregira joango dira bergararrak; 09:30ean elgetarren zapia jasoko dute autoz Uberan.
- **10:30ean Elorregin:** Elgeta, Bergara eta Oñatiko zapiak jasoko dituzte biribilgune horretan, eta Arrasaterantz abiatuko dira jarraian bidegorritik.
- **10:30ean Marulandan:** Leintz Gatzagako ordezkariak Eskoriatzakoari pasako dio zapia.
- **12:00etan Biterin:** Arrasateko zapiaren aurkezpen ekitaldia egingo dute bertan.
- **12:30ean Mugarrita:** aurkezpenaren ostean Aretxabaletarako bidea hartuko dute parte hartzaileek.
- **12:30ean Arizmendiarieta plazan:** Sahara Librearen bilkura.
- **13:30ean Mugarritin:** aurreko herrietan batutako zapi guztiak pasako dizkiete aretxabaletarrei.
- **18:00etan Eskoriatzan, ekitaldi nagusia:** bailarako zapiak karabanan joandako Euskal Herriko EMMko kideek jasoko dituzte. Tea, pastak, musika eta bideo proiektzioa egingo dira.

tekotasuna sustatuz eta bakoitzaren balioak errespetatuz".

Dosierra bera laburtzeko infografiak ere badaude sarean. Horiei erabilera ikusgarria eman nahi dietela azaldu du Alfarok: "Gure asmoa kolektibo feministei muralak marrazteko erraztasunak ematea da, Euskal Herriko herri gehienetako kaleetan infografia horiek irudikatzeke".

Erlazio "ona" ibarrean

Alfaro, Murua eta Giraldo bat datoz Debagoiengan artikulatuta dauden talde feministen eta emakume etorkinen artean "harreman osasuntsuak" sortu direla baieztatzeke orduan. Perutarrak dio jendea "prest" dagoela bailara mailan "feminismotik eraikitzen jarraitzeke"; Muruak eta Giraldoak, aldiz, migratzaileen

egoera ezagutzeak "bertakook dauzkagun zenbait pribilegioz ohartzeko" balio izan diela aitortu dute.

Pandemiak ez ditu gelditu

Hala ere, egungo egoerak etorkin askoren herritartze prozesuan atzerapausoa ekarri duela esan du Alfaro, "askok lana galdu dutelako". Pandemiak pandemia, emakume guztien aldeko esku-bideen aldarriek aurrera jarraitzen dute; biharko indar erakustaldia izango da horren lekuko.

AURREIRITZIAN BAINO GEHIAGO, NORBERAK SISTEMA ALDATZEKO ARDURAN JARRI DUTE ARRETA

Bailarako pentsiodunek kalean jarraituko dutela adierazi dute

Joan den asteburuan, manifestazioak egin zituzten zenbait herritan, "pentsio publiko duinen alde"

H.L. DEBAGOIENA

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizazioak deitu zituen aurreko astebururako, eta, Debagoienari dagokionez, Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Arrasaten batu

ziren pentsiodunak. Espainiako Gobernuari, 2010eko eta 2012ko lan-erreformak eta 2011ko eta 2013ko pentsio-erreformen murrizketak indargabeteke eskatu zioten manifestazioetan, baita Kongresuan Toledoko Ituna-

ren gomendioak berretsi ostean iragarri dituzten murrizketa berriei uko egiteko ere.

Erabaki horrekin Kongresuko diputatuek pentsio sistema publikoa jasanezina den ideia agerian utzi dutela nabarmendu dute: "Orain arte, pentsiodunek pentsio oso altuak dituztela eta denbora gehiegi bizi direla dioen ideia neoliberean oinarritu dira gobernuak", azaldu zuen joan den zapatuan Oñatiko mugimenduko bozeramaile Xabier Oregik; eta pentsioen arazoa

"gastuetan baino gehiago diru-sarreretan" dagoela gehitu zuen.

Astelehenetan, bilkurak

Azken hiru urteetan bezala, herriko plazetan elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela berretsi dute Debagoieneko pentsiodunek; hurrengo etzidamu izango da, eguerdiko hamabietan. Espainiako, EAEko eta Nafarroako gobernuak eta horien parlamentuek pentsiodunen beharrak asetzeko beharrezko neurriak hartzeke eskatzen jarraituko

dute modu horretan: gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea, pentsioen errealizazio automatikoa egitea, lanbidearteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea, 40 urteko kotizazioa duten erretiro aurreratuen koeffiziente murriztaileak indargabetzea, jasangarritasun faktorea ezabatzea, genero arrakala amaitzea eta pentsio plan eta funts pribatuen eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearen zerga-desgrabazioak ezabatzea.

Vasco-Navarro dela eta**JON ERRASTI IRIARTE**

ESKORIATZA

Ostiraleko GOIENAN, Arrasateko orrialdeetan, zera irakurri nuen: *Vasco-Navarro trenbidearen bide berdeak 123 kilometro ditu eta Lizarratik Bergararako bidea egiten du.*

Lizarratik Bergararako bidea egiten zuen garai bateko trenak, baina bide berdeari Eskoriatzatik, Kuartruenako etxeetatik, hain justu, Arabako mugarainoko tartea falta zaio, tamalez. Oso ibilbide polita borobilduko luke tarte horrek, baina halaxe dago, osatzeko, nahiz eta autobidea egin zenean eragindako afekzioak berdintzeko Diputazioak agindutako lanetako bat izan.

Denbora igaro da, denbora asko, gainera, baina Diputazioak bere hitza jan du, ez du agindutakoa bete. Noiz arte?

Langileen kaleratzerik ez!**IBON LEIBAR**BERGARAKO SORTUREN IZENEAN
BERGARA

Pasa den astean izan genuen herriko hainbat enpresatako langileen egoera larriaren berri. Industrias Betiko-n eta Zuber-en hainbat greba egin dituzte lanpostuen defentsan eta Wolfratex-en 30 langile kaleratuak izan dira.

Wolfratexen kasuan, gainera, Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea eta laguntza izan

duen proiektuarekin egin dutena bereziki salagarria iruditzen zaigu. Zabaltzeko orduan, Arantxa Tapia buru duen Jaurlaritza argazki guztietan ikusi genuen, lehen leerroan, irekierari oihartzun mediatikoa emanez eta

medailak jarriz. Sei hilabete besterik ez du iraun proiektuak, albiste txarrak agertu direnean Jaurlaritza desagertu egin da. Salagarria da, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Osakidetzak ez dituela bertan egindako

musukoak erosten, kanpotik ekarrita merkeagoak direla esanaz. Non gelditzen dira *Basque Country, auzolana, bertan erosi* eta halako hitzak? Diru publikoa proiektu pribatueterako erabili eta gaseosa-efektua bezala

amaitu da, inori azalpenik eman gabe. Wolfratex kapitalismo basatiaren adibide bilakatu da, Institutuz publikoen – Jaurlaritza– laguntzarekin *pelotazo* bat jo, langileak baldintza kaxkarretan eduki –lau errelebotan soldata oso baxuak kobratuz–, dirua egin eta langileak kale gorrian utzi. Langileak ezin dira *klinex* bat bezala erabili.

Gainera, PNVren eta Jaurlaritzaren ardurak ez dira hemen amaitzen. Azken urteotan hainbat izan dira Bergararik inguruko herrietara alde egin duten enpresak, Bergaran industriarako lurzoruen prezioa oso garesti duelako Sprik – lurzoru industrialen kudeaketaz arduratzen den Jaurlaritzaren enpresa–.

Honetaz gain, Bergarako beste langile pila bat ERTEan daude, lan baldintzak okertu zaizkie, herriko komertzio eta taberna batzuk ere ixteko zorian daude...

Pandemiaren ostean krisi ekonomikoa gogor dator eta kapitalak, beti bezala, langileon bizkar utzi nahi du krisiaren pisua. Kapitalaren asmoa aberatsak gehiago aberastea da, langileon eskubideak gehiago makurraraziz. Horren aurrean, indarrak batu eta gure eskubideen alde borrokatuko gara.

Kapitalaren aurrean, gu herriarekin!

Salaketa-gutuna

Eskertza-gutuna

Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna

Aldarrikapen-gutuna

Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktetereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Mutazioak garai berrietan

Martxoan, urtebete beteko da COVIDa dela-eta konfinatu gintuztela. Azkar eta aldi berean luze egin zaidan urtea. Gure ohitura eta eguneroko bizitzan aldaketa handiak ekarri eta oraindik ekarriko dituen gaixotasuna. Ohitura batzuk gelditzeko etorri direlakoan nago eta beste asko auskalo nola geratuko diren. Bueltatuko al gara berriz agurreko bi musuak ematera? Eskua emango al diogu elkarri? Edalontzi beretik tentu gehiagoz edango al dugu? Kirol partidak lehen bezala ikusteko aukera izango dugu? Egundaino, inork ez dakizkien erantzunak dira. Harremanetan eta ohituretan mutazioak gertatzen ari dira etengabe. Egoerak behartuta, derrigorrezko mutazioak garai berrietara egokituta.

Baditugu, baita ere, eta txarrerako, mutazioak banketxeetan eta osasun zentroetan. Hainbat herritan sukurtsalak itxi eta bezeroak hainbat zerbitzu gabe utziz. Osasun arloan antzera, ezin gera kexatu daukagun osasun zerbitzuekin, baina lehen mailako arretan gabeziak nabari dira. Eta gaixoak,

lehen bezala, orain ere egon badaude.

Dena den, ez dira hauek gehien kezkatzen nauten mutazioak. Gure koronabirus *maiteak* izan ditzakeen mutazio genetikoen jarriko dut begia. Zeresana eman dezakete aurrerantzean. Denok dakigu birusetan mutazioak izatea ez dela harriztekoa. Birus guztiek mututzen dute. Beraien kalterako mutatu balute, primeran. Desagertu egingo lirateke. Baina beraien onerako mutatu gero, birusaren hedapena handitu egiten da, gure kalterako. Azken hau da gertatzen ari dena. Honen ondorioz, txertoaren eraginkortasuna murriztu egin daiteke, eta honek arazo potoloa dakar berarekin. Txerto fabrikatzaileak beraien txertoak eraginkorrak izango direlakoan daude, baina hasi dira onartzen txertoetan eguneratzeak gertatu beharko direla. Ez dut ezkorra izan nahi, baina borroka honek luzerako joko duelakoan nago.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ez dut ikusezina izan nahi

ISA EGIGUREN

'TTAP' - EN ARGITARATUA

Askotan aipatzen da emakumeak, 50 urtetik aurrera, ikusezin bihurtzen direla. Eta horrela islatu du Nafarroako Berdintasun Institutuak eta unibertsitate publikoak egindako ikerketa batek.

Adin horretatik aurrera, emakumeak gutxietsi egiten dira pertsona gisa, baita haien gaitasunak ere; ikusezin bihurtzen dira eremu publiko guztietan.

[...]

Baina bada beste esparru bat zeinean emakumeak ere

desagertzen diren: indarkeria matxista.

Adineko emakumeen artean, indarkeria normalizatzen, onartzen eta ohitzen da gehien. Ikerketaren arabera, emakume horiek zailtasun gehiago dituzte genero-indarkeriatik irteteko, hezi direlako entregarekin edo sakrifizioarekin lotutako balioetan.

[...]

Nafarroan urtarriletik ekainera bitartean izandako genero-indarkeriagatik salaketan %11,7 soilik jarri zituzten 50 urtetik gorako emakumeek.

Ikerketak dioenez, kolektibo horren zati handi batek urte gehiegi daramatza indarkeria

jasaten, eta horrek areagotu eta okertu egiten ditu zahartzarotik eratorritako baldintzak. Gainera, banantzearen, mendekotasun ekonomikoaren eta bizitza berri bati ekiteko indar gutxiaren beldur dira.

Azterlana honen okerrean da ziurtatzen duela ia ez dagoela baliabide publikorik emakume hauentzat.

Eta hau idazten dudun bitartean, gogoan dut 47 urte ditudala. Eta ez dudala ikusezin bihurtu nahi.

Kontziente naiz borroka handia dagoela aurretik, baina baita emakumeok gero eta indar handiagoa dugula aurrera egiteko ere. Har dezagun gure lekua!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Sexu larrialdiek gora egin dute pandemia garaian"

ARITZ RESINES ARRASATEKO SEXOLOGIA ZERBITZUKO LANGILEA

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA


Pandemiak sexu kontuei nola eragin dien azaldu du asteon Goiena telebistan.

Pandemiarekin lan karga handitu egin zaizuela diozue. Zergatik?

Jendeak gugana jotzen du sexu larrialdiak nahiko aurreratuta daudenean. Suhiltzaile lanak egiten ditugu, gure atea jo orduko sua piztuta egoten da eta. Pandemia hasi zenetik hona, halako kasuen gorakada igarri dugu, bai.

Zein kezka nagusirekin jotzen dute zuengana?

Gizarteak pertsona bakarrarekiko maitasuna sentitzera behartzen gaitu: ez hirukoterik, ez laukoterik... Hala, pandemia hasi aurretik, askok bikotekidea zeukatzen, baina beste askok ez. Ustez bakarrik dauden horiek ez dute apenas aukerarik jende berria ezagutzeko: ezin duzu parrandarik egin, ezin duzu bidaiatu, ezin zara antzerki bat ikustera joan... eta horrek depresio puntu bat sentitzera



Aritz Resines, Arrasateko Sexologia Zerbitzuko langilea. A.R.

eraman dezake; euren bizitza okerreko bidetik doala sentitzera, alegia.

Eta bikotekidun kasuan?

Horiei ere eragin die pandemiak, noski. Konfinamenduak, aisialdirik

ezak eta elkarrekin inoiz baino denbora gehiago pasatzeak antsietatea ekar dezake, aire freskoa falta zaielako. Seme-alabak edukiz gero, are gehiago; batez ere, haurrak konfinatuta edukitzea


zein gogorra izan daitekeen kontuan hartzen badugu. Konfinamendu perimetralak ere harreman asko baldintzatu ditu... Noski. Zure bikotekidea edo lagun mina ezin ikuste hori oso gogorra da. Badirudi bideo-deiek arazo hori konpontzen dutela, baina ez da hala. kontaktu fisikoa behar dugu: musuak, besarkadak... Pandemian gure osasuna zaintzeko sakrifizio asko egin ditugu, baina gure osasun mentala erabat alboratu dugu. Badirudi automatikoki sendatzen den zerbait dela osasun mentala, baina zaindu beharra dago.

Pornografiaren kontsumoa ikaragarri handitu zen konfinamenduan...

Arrasaten Sexologia Zerbitzua daukazu, baina leku askotan ez dago sexologia zerbitzu edo aholkularitza publikorik. Kasu horietan, jendeak zuzenean ikasten du pornografiatik, eta oso hori arriskutsua da. Pornografia fikzioa da, nahiz eta ikusleak hori nabaritu ez. Trikimailu pila bat dituzte. Egia da kontsumoa asko handitu zela itxialdian. *Porn Hub* eta halako plataformek doako *premium* harpidetzak jarri zituzten. Baina itxialdia amaitzean ohiko kontsumo mailara itzuli da pornografia.

HAU BE BADOGU!

Hasel rap kantariaren atxiloketa, hizpide



Martitzenean atxilotu zuten Pablo Hasel rap abeslaria, Lleidako unibertsitatean, "terrorismoari gorazarre" eta "Koroari eta Estatuko erakundeei irain" egitea leporatuta:

@txemaramirez: "Nola liteke? Faxistak Parlamentuan eta raperoak kartzelan?"

@hutsteatro: "Adierazpen askatasuna! Pablo Hasel atxilotu dute!"

@Errotxa: "Pablo Haselatxilotu dute! Elkartasun eta animorik beroenak zuretzako Pablo!"

Euskaltel-Euskadi Vueltan izango da

Talde laranja 2021eko Espainiako Vueltan arituko da, 8 urteren ostean:

@FundacionCiclisEus: "Eskerrik asko Vueltari! Ez dugu momenturik ikusten gure taldean jarritako konfiantza itzultzeko. Lasterketaren mailan egongo garela zin egiten dizuegu".

@markelirizar: "Zorionak ekipo! Gozatu aukera".

@podium_: "Espainiako Vueltara itzuliko da Euskaltel Euskadi! Zorionak! #marealaranja".

Kataluniako hauteskundeak

Txiolariak beragai izan dute Katalunia:

@olano_urkia: "Estatuak hanka sartu du berak sortutako putzuan; desmobilizazio testuinguru batean, boto independentista %50etik gora. Burujabetza maha gainean, atzo baino gehiago".

@enekogara: "Hemen ez bezala, Katalunian independentismoa gero eta sendoago".

@ivlg: "Beldurra ematen dit Vox 11 aukirekin..."

ITURRI ONETIK

Goiena telebistak hastear dauka denboraldi berria

Goiena telebistak martxoan estreinatuko du udaberriko denboraldia. *Hemen Debagoiena* egunerokoak tarte berriak izango ditu eta gaur egungo *Harmailatik*, *EKT*, *Zirikatzan* eta *Hala Bazan* saioei, gehituko zaizkie *Galdegazte* eta *Harira* saioen denboraldi berriak. Lehenean, Mireia Gabilondo, Mariasun Pagoaga, Jon Olivares... izango dira gazteek elkarriketatuko dituztenetako batzuk. *Harira*-n, Juan Inazio Perez Iglesias Jakiundeko presidentea izango da lehen gonbidatua.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-02-14

Amodiozko gutunik onenak saritu zituzten

Lehiaketa egin den arren, aurten ezin izan dira banatu Amodiozko Gutunen Lehiaketako sariak ohiko ekitaldian. 1993an antolatu zuten lehen aldiz, *Berrigara* aldizkariaren 100. zenbakia ospatzeko. Orduan, Justo Arrieta izan zen irabazle, Uxue Alberdi bigarren, Elena Lakak jaso zuen Bergarako onenaren saria eta Zigor Agirrek, Gazte saria.



Pablo Urangako gaztegunea lekuz aldatu dute, bizilagunen kexengatik

Bizilagunen eta erabiltzaileen arteko "bizikidetzaz arazo" ikusita, asteburu eta zerbitzua Musakolako gaztegunera eramatea erabaki du Udal Gobernuak, irailera arte. Erabakiak Txatxilipurdiren, oposizioaren eta erabiltzaileen erreakzioak sortu ditu



Gaztegunearen kanpoaldean hainbat kartel itsatsita. X.G.

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bizilagunen eta erabiltzaileen artean aspalditik dagoen bizikidetzaz arazo bat dela eta, Udalak lekuz aldatuko du Pablo Uranga kaleko gazteguneko zerbitzua. Duela hamaika urtetik eskaintzen du Udalak gazteguneko zerbitzua Pablo Uranga kaleko seigarren atarteko behealdean dagoen lokalean, eta hasieratik hona Txatxilipurdi elkarteak langileak arduratu dira zerbitzua emateaz 12 eta 16 urteko gazteei.

Azken urteetan, Pablo Urangakoa izan da asteburu eta zapatu eta domeka-zerbitzua eman duen gazteguneko bakarra, eta, Udal Gobernuaren eta bizilagunen hitzetan, "bizikidetzaz arazoak" sortu dira maiz erabiltzaileen eta bizilagunen artean. "Zerbitzuak hainbat urtez arazoak sortu ditu auzotarren artean, eta, azkenean, auzotarrek sinadurak bildu dituzte gazte-

gunearen ondoko atarietan, zerbitzuak komunitateari sortzen dizkion eragozpenak eta desordena agerian uzteko eta lekualdatzea eskatzeko. Urte luzez komunitatearen eta erabiltzaileen arteko bizikidetzaz hobetzeko ahaleginak egin badira ere, hala nola lokalaren intsonorizazioa, hainbat bilera begiraleekin, familiekin eta bizilagunekin... azkenik, Udalak, komunitateak eskatzen duen lasaitasun-premiei erantzunez, zentroan asteburu eta zerbitzua Musakolako gaztegunera lekualdatzea erabaki du, behin-behinean. Horrela, zerbitzua etxeguneetatik kanpo eskainiz, zerbitzuaren erabiltzaileek beharrezko askatasunez jardun ahal izatea lortu nahi da, eta, aldi berean, bizilagunen ongizatea bermatzea", azaldu du Udal Gobernuak, prentsa-ohar bidez.

Txatxilipurdiren hausnarketa

Gazteguneko zerbitzuen kudeatzaile den Txatxilipurdik "arduraz" bizi du lekualdatzeak eragindako "korapiloa". "Gaztegunean gatazkak izan ditugunean, modu ezberdinetako esku-hartze eta kudeaketak egin izan ditugu; parte diren pertsonen arabera, intentsitatearen arabera, arrisku faktoreen arabera... Baina garbi izan dugu gatazkaren parte diren pertsona guztien artean komunikazio eraginkorra bermatu behar dela: bakoitzaren behar jasoak eta entzunak izatea; etengabeko negoziaketa bat egitea; konpromisoak hartzeko prestutasuna egotea; gatazka konpontzeko borondatea egotea; eta alde guztiak aseta geratzea. Erdiguneko gazteguneko gatazken kudeaketan ere halaxe jarduten saiatu gara. Arazoaren fokua identifikatzen, inplika-

tuen beharrik jasotzen eta bestelako aukerak planteatzen, alegia".

Aurrera begira jarrita, lankidetzaren bidez gaia konpontzeko konpromisoa azaldu dute: "Nekez konponduko dugu gatazka bat beste gatazka handiago bat sortuz, eta agertu daitezkeen kalteen dimentsioak aurretiaz aztertu gabe. Zauri asko zabaldu dira, min asko sortu, eta, hau erreparatzeko, ezinbestean, zaintza eta erantzukizun kolektiboa egon behar dela uste dugu: elkarteak, nerabeak, familiak eta tutore legalak, bizilagunak, Udala, hezkuntza komunitatea, gainerako herritarrak... Hori horrela, orain arte bezala benetako lankidetzan jarduteko prestutasuna eta konpromisoa daukala adierazi nahi die Txatxilipurdik Arrasateko herrikideei eta baita Udalari ere", adierazi dute.

Bizilagunen ikuspuntua

"Egoera jasanezina" zela iritzita, bizilagunek sinadura bilketa egin zuten. Pablo Uranga kaleko gazteguneko 6. zenbakiko atartearen azpian dago, eta beste bi atarte ditu alboan. 106 etxe daude hiru atari horietan, eta, guztira, 60 sinadura batu dituzte. Gazteguneko lekualdatzeak eragindako erreakzioak ikusita, oharra kaleratu zuten martitzenean: "10 urte baino gehiago pasatu dira erdiguneko gazte txokoak atek zabaldu zituenetik, eta urte hauetan egoera ez da hobera joan. Alde batetik, guneak duen kokapena: bi eraikinen artean dagoen lokal bat, honek sortzen dituen zaraten oihartzunetik. Eta bestalde, gehien gogaitzen gaituena izanik, jasaten ditugun oihuak, irainak zein baloi-kolpeak etxeko hormetan. Eta honi batuz gure balkoietara botatzen dizkiguten kola, petardo, arrautza, harriak... behin eta berriz, asteburu. Hau konpontzeko ahaleginak denbora askoan zehar errepikatu dira: Udalera bidalitako kexa formalak, udaltzainei deiak, monitorean zein Udalarekin bilerak... inoiz konponbiderik lortu gabe. Egoera jasanezina da, eta, gazteek jolas-teko eta zarata egiteko eskubidea duten bezala, inguruko eraikinetako bizilagunok ere gure etxetan lasai egoteko eskubidea daukagu. Argi geratu dadila bizilagunok inoiz ez dugula zerbitzu etetea eskatu. Bizikidetasun arrunt bat bakarrik".

Erabiltzaileen erreakzioak

Ez da justua egin duzuen, non geratu da bizikidetzaz? Zuek gazteak izan zineten bezala, gu ere bagara, eta disfrutatzeak aukera dugu; Zer? Etxean geratuko gara? Gaztetxokorik ez, irribarrerik ere ez... Halako mezuak jarri dituzte erabiltzaileek eraikinaren kanpoaldean, baita Txatxilipurdiko

Zer duzue esateko gaztegunearen lekualdatzeari buruz?

MAITANE MUÑOZ

UDALEKO GAZTERIA SAILA

"Bizilagunen lasaitasun premiei erantzun diegu"

"Urte luzez komunitatearen eta erabiltzaileen arteko bizikidetzaz hobetzeko ahaleginak egin dira: lokalaren intsonorizazioa, bilerak begiraleekin, familiekin, bizilagunekin... Azkenik, Udalak, komunitateak eskatzen duen lasaitasun-premiei erantzunez, zentroan asteburu eta zerbitzua Musakolako gaztegunera lekualdatzea erabaki du, behin-behinean; zerbitzua etxeguneetatik kanpo eskainita, askatasun gehiagoz jardungo dute erabiltzaileek".

LEIRE SAN VICENTE

TXATXILIPURDI

"Arduraz bizi dugu herrian sortu den korapilo hau"

"Elkarri mokoka ibiltzea ez da inorentzat mesedegarria, eta larriena da benetako arazotik aldentzen garela: nerabeak erdiguneko gazteguneko gabe gelditu direla –zerbitzua itxi baita– eta nerabe guztiak multzo berean sartu eta kriminalizatu direla. Bestelako konponbideak badaude: asteburu eta zerbitzua indartzea, erdiguneko gain auzoetako beste lokal bat zabalduz; elkarbizitza lantzen saiatu erabiltzaileen eta bizilagunen artean...".

PAULA HERIZ

BIZILAGUNA

"Gazteek eskubideak dituzte, baina bizilagunok ere bai"

"Jasaten ditugun oihuak, irainak zein etxeko hormetako baloi kolpeak dira gehien gogaitzen gaituztenak. Ahalegindu gara arazoa konpontzen, hainbat aldiz, lortu gabe. Egoera jasanezina da, eta, gazteek jolas-teko eta zarata egiteko eskubidea duten bezala, inguruko eraikinetako bizilagunok ere gure etxetan lasai egoteko eskubidea daukagu. Argi geratu dadila bizilagunok inoiz ez dugula zerbitzu etetea eskatu. Bizikidetasun arrunt bat bakarrik".

MAIDER MORRAS

EH BILDU

"Erdiguneko lokal bat bilatu nahi genuen; ez digute utzi"

"Mortoria bat eskatu genuen gaia elkarlanean lantzeko, baina ez digute aukerarik eman. Erabiltzaileen gurasoei ere ez zieten erabakia komunikatu. Gure nahia zen Udalak erdiguneko dituen beste lokal batzuk aztertea, behin-behineko aldaketa erdialdeko lokal batera egiteko: Uarkapen, Txetan... Musakolara lekualdatuta, erabiltzaile askok erabiltzeari utziko diote, eta horrek kezkatu egiten gaitu. Musakolako ez da konponbide egokiena".



langileentzako esker mezuren bat edo beste. Kartel horietako batzuk indarrez kenduta agertu dira.

Horrez gain, domekan, erabiltzaileen guraso talde bat eraikin kanpoaldean batu zen, neurriarekiko eta hori jakinarazteko moduekiko desadostasuna erakusteko. GOIENAK erabiltzaileen gurasoen iritzia jaso nahi izan du, eta zera adierazi du horietako batek: "Inork ez digu erabakiaren berri eman. Ostiralean seme-alabak atsekabetuta heldu ziren etxera lokala itxi egin zela jakitean, eta orduan konturatu ginen. Musakolara aldatuta, gazte askok erabiltzeari utziko diote, eta penagarria da. Nerabeak erabat ahaztuak izan dira pandemian, eta eurentzako topagune den leku bat ixtea kaltegarria da".

Oposizioa, "aurka"

EH Bilduk Pablo Urangako gaztegunearen albo-alboan du egoitza, eta gaiari buruzko iritzia

plazaratu du, prentsa-ohar bidez. "Bizilagunen keak aspaldikoak ziren arren, azkeneko sei urteetan Udal Gobernuak ez du sekula arazoa Udaleko bilera batera ere ekarri, eta bizilagunek sinadura bilketa bat egin dutenean neurririk gogorrena hartu du: udal zerbitzuaren ateak itxi. Ez baitigu balio lekuz aldatu duela esateak, Musakolako espazioak, egungo baldintzetan, ezin dituelako jaso erdialdekoak jasotzen dituen erabiltzaile guztiak. Bizilagunek kokoteraino egoteko motiboak izan zitzaizkete ukatu gabe, Udalaren ardurak bere zerbitzuek sor ditzaketen arazoei konponbide bat ematea, baina, betiere, zerbitzuak mantentzeari lehentasuna emenez".

Elkarrekin Arrasate alderdian ordezkari izan duen Ahal Duguk ere gaiari buruzko oharra plazaratu zuen. Zerbitzua "aldebakartasunez itxi" dutela kritikatu dute eta adierazi dute EAJK "hitza eman" ziola PSE-EE gobernuarekiko "Emakume Txokoa tren geltokira lekualdatzeko".

Ostiraletan "arazoa"

Orain arte, ostiraletan, Musakolako eta Pablo Urangako gazteguneari zabalik egon dira, eta orain "bakarra egoteak arazoak sor ditzakeela" azaldu du Txatxilipurdik. COVID-19aren edukiera mugekin, 30 lagun hartzeko gaitasuna zuten Pablo Urangan; Musakolan, aldiz, 24.



Musakolako gaztegunea. X.G.

Musakolara, behin-behinean

Herri Eskolari itsatsita dagoen Gazte Txokoa emango dute orain asteburu eta martitzenetik ostiralera egon da erabilgarri. Herri Eskolatik adierazi dute irailean eraikina botako dutela eskolaren eraberritzea egiteko.

Lanbidera lekualdatzea, irailean

Udal Gobernuak adierazi du Musakolako lekualdatzea behin-behinekoa dela, irailean gazte txokoa Lanbide egun duen egoitzara eramango dutelako. Horretarako, aurrez, Elma eraikinerako lekualdatu behar dute Lanbideren bulegoa, eta Gobernuak esan du lekualdatze hori irailerako eginda egongo dela.



Tren geltoki zaharrean duen egoitza Lanbidek, Nafarroa etorbidean. X.G.

M€rke 2021

Arrasateko stock azoka

OTSAILAREN 25ean, 26an (16:30-20:00) eta 27an (10:00-20:00)

BEHERAPENAK eta JAITSIERAK



OTSAILAREN 27an
(11:00-14:00) (16:00-20:00)

Txirrista puzgarria,
super-jumpinga,
hutserako jauzia,
giroskopioa,
haur-tragabolak...

Seber Altube plazan,
Herriko Plazan eta
Malatzaren Bata plazan.



Gaizki-ulertuak sortu dituen proposamena

Joan den ostiralean Gestel telekomunikazio enpresak Kajoi tabernan jarri zuen wifi eskaintzaren proba pilotuak zenbaitengan "gaizki-ulertuak" eragin dituela adierazi du Ibai-arte merkatarik elkartek: "Guk ez dugu irabazirik lortuko, hori surrealista da"

Hasier Larrea ARRASATE

Alde zaharreko bizilagun eta negozioentzako zuntz optiko "duinaren" gabeziak soka luzea ekarri du, irailean Udalak Gestel enpresaren uhin bidezko zerbitzuaren instalazioa iragarri zuenetik. Interneterako konexio eskasaren "irtenbidea" izango zela adierazi zuen orduan Maria Ubarretxena alkateak. Urrian erabilgarri egongo zela aipatu arren, urtarrilera arte ez zuen konpainiak zerbitzua alde zaharrean instalatu.

Gainera, azken asteotan eskaintza hori zenbait komertzio kontratatu duten arren, ez dirudi bizilagun gehienek bide beretik joko dutenik; zerbitzu "garestia" dela argudiatzen dute: hileko 68 euro kostatzen da 300 megako wifi eskaintzak alde zaharrean. Erdigunetik kanpo prezioak merkeagoak dira, besteak beste, konpainiak elkarren artean lehiatzen direlako. Baina alde zaharrean ez dute inbertsiorik egin nahi, PER legeak kable bidezko konexioa lurretik bakarrik txertatzea ahalbidetzen dielako. Ondorioz, ez daude kostu horiek euren gain hartzeko prest.

Bizilagunak hasiak dira gaia modu kolektiboan lantzen, zuntz optikoa "berehala jartzeko beharra" dutela eta. Horregatik eskatu diote Udalari "modu publikoan adierazteko zuntza 2021ean jarriko dutela".

Ibai-arteren ekarpena

Afera horretan beste aktore bat agertu da asteon lehen lerroan: Ibai-arte komertzio elkarteak. Joan den ostiralean, prentsa ohar bat argitaratu zuen, Gestel enpresak wifi probatzeko egun bateko esperientzia eskainiko zuela azalduz. Hori horrela, Herriko Plazako Kajoi tabernan proba pilotu bat egin zuen Gestel, erabiltzaileek doan eza-gutu zezaten zein zen euren



Komertzioei ezinbestekoa zaie wifia, datafonoarekin jarduteko, besteak beste. H.L.

BIZILAGUN ASKOK EZ DUTE ERDIGUNETIK KANPO BIZI DIRENEK BAINO GEHIAGO ORDAINDU NAHI

zuntzaren eskaintza. Itxuraz asmo oneko proposamena zenak kritika anonimo ugari sortu zituen sarean, Ibai-arteri "Gestelen bitartez irabaziak" lortuko zituela leporatuz, besteak beste.

Dendarien elkarteak komunikatu bat atera zuen "gaizki-ulertu" horiek argitzeko, euren bazkideei "baldintza duinetan lan egin ahal izatea bakarrik" bilatzen zutela argudiatuta. Ibai-artereko presidente Jon Apraizek azaldu du erdiguneko komertzioek "zailtasunak" dituztela datafonoa eta Interneteko hodeia erabiltzeko orduan. Euren lanerako "tresna garrantzitsuak" izanik, Internet seinale azkarra edukitzeko azterketa egin zuten Ibai-arterekoek duela hilabete batzuk, eta Gestelekin egin zuten topo: "Guk aukera hori proposatu genion Udalari, eta ondo iruditu zitzaion. Hortik aurre-

rakoa beraiek kudeatu dute, eta interesa agertu duten negozioek izena eman dute kontratua eskuratzeko", esan du Apraizek, eta Kajoin eskainitako aukera "tabernaren eta Gestelen arteko elkarlana" izan dela gaineratu.

Negozioek, begi onez

Kajoi tabernako ugazabek "positiboki" baloratu dute Gestel-ekin egindako egun bateko elkarlana. "Bospasei komertzioaren jabeek eta pare bat partikularrek probatu zuten ostiraleko eskaintza, eta batzuk jarri dira konpainiarekin harremanetan", adierazi du Antonio Murillok. Hasiera batean wifia terrazan jarri nahi zuten arren, eguraldi txarra zela eta lokal barruan instalatu zuten, azkenean: "Gestel-eko beste egun batean ere etorriko direla esan digute, eguraldi ona egiten duenean, terrazan daudenean wifia ez zegoela erabiltzeko", azaldu du Murillok.

Alde zaharreko negozio batzuentzat baliagarria izan da konpainia horren eskaintza, baina bizilagun askok erdigunetik kanpoko baldintza berak nahi dituzte euren etxeetan.



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ GONZALEZ

Eraila

Berri Txarrak-en *Emazten fabore II* kantak hurrengo eabazten du: "Gaur ez dago minutuko isilunerik, mendeak daramazkigu isilik".

Pasa den astean beste erailketa baten lerroburuak esnatu gintuen. Honetan ere Modus Operandi-k antzekoa dio: "Sestaon gizonetako batek bere emaztea erail eta bere buruaz beste egin du". Beti ere ordena honetan. Pentsamendura ohiko galdera datorrit: zergatik ez aurretik bere burua akabatu?

Azkenaldian, Urbizuk kantatzen duen "mendeak daramazkigu isilik" horrek, zorionez, geroz eta antzinagokoa dirudi. Baina ez ditzagun geure buruak engainatu, matxismoaren krimenak mende honetako eta eguneroko gaitzak dira.

Noiz arte? Oraindik galderak ez du erantzunik. Agian, guretako bakoitzak berdintasunean eta errespetuan ikasi, irakatsi eta bizitzen dugunean, orduan, egunero pairatzen dugun zorigaitz hau bukatutzat eman genezake. Bitartean, bai noski, minutuko isiluneak izango dira. Isilune bihotz-erdiragarriak, makina bat hitzek baino gehiago esaten dutenak.

Goian bego.



Asteleheneko ke isuria, "ohi baino handiagoa", bizilagunen iritziz GORKA GONZALEZ

Uribarriko bizilagunen "kezka", Fagor Ederlaneko keagatik

Hilaren 15ean, "normalean baino ke gehiago" atera zen fabrikatik; hondarren hautsek sortu zutela azaldu diete

H.L. ARRASATE

Ertzaintzak SOS Deien abisua jaso zuen joan den astelehen arratsaldean, 16:30ean, "Fagor Ederlanetik hondarra gordetzeko silo batean matxura bat gertatu zela eta ke isuriak zeudela" jakinaraziz. Ondorioz, fabrikako produkzioa eten eta inguruko errepide eta pasabideak itxi zituzten Ertzaintzak eta Udaltzaingoak, teknikariek inspektzioa egin eta arriskurik ez zegoela egiaztatu arte. Era berean, "herriarrei leihoak ixteko" eskatu zieten, lekukoek azaldu bezala. 18:00 aldera dena berriz zabaldu

eta martxan jarri zuten produkzioa, teknikariek "inpaktu arin eta puntuala" izan zela jakinarazi ostean. Osalanek, berriz, "lan istripurik izan ez zela" konfirmatu zuen, gertaeraren berri ez zeukatelako.

"Ke toxikorik ez"

Uribarri inguruan bizi direnek "arduraz" bizi izan zuten jazo-takoa, tximiniatik "ohi baino ke gehiago" ateratzen zelako. Udaltzainek "toxikoa eta larria ez zela" esan zieten, kearen tamaina hori "hautsak sortutakoa zelako, eta ez gasak eragindakoa".

Bakardadearen kontra, eragile aktiboen sareak

Arrasateko Udalak eta SSI Taldeak 'Begirada Adia' proiektua ipini dute martxan, adinekoen artean bakardade eta babesgabetasun egoerak detektatu eta ahalik eta lasterren soluzioak topatzeko, boluntarioen eta eragileen laguntzarekin

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
"Adinekoak gure herriko zutoin garrantzitsua dira, eta herriaren eraikuntzan parte har dezaten nahi dugu. Zahartze aktiboaren eta baliotsuaren aldeko estrategia aktiboa jarri dugu abian, bakardadeari eta babesgabetasunari aurre eginez, kolektiboaren beharrei erantzunez eta haren egunerokotasuna hobetuz". Berba horiekin aurkeztu du Gizarte Ongizate eta Gazteriako zinegotzi Maitane Muñozek *Begirada adia* egitasmoa.

Proiektu esperimentalak izango da, eta bi helburu ditu: adinekoen bakardadea, isolamendua eta arrisku egoerak detektatu; eta

identifikatutako pertsonen eta haien ingurune hurbilaren arteko harreman-loturak sortu.

Eragile aktiboen sarea

Arrasateko Udalaren eta SSI Taldearen proiektua martxan ipintzeko beharrezkoa izango da eragile aktiboen sarea osatzea. Alegia, harreman lagunkoien sarea. Horretan parte hartuko dute erakunde publikoek zein pribatuak, herritarrek eta eragileak. Azken horien barruan daude farmaziak eta hurbileko saltokiak eta profesionalak. "Herritarrekin duten hurbiltasuna aprobetxatuz, paper garrantzitsua jokatuko dute proiektu honetan",

esan du zinegotziak. Era berean, nabarmendu du herriko erretiratu eta pentsiodun elkarten erabateko konpromisoa egitasmo horrekin.

Konpromisoa hartu duten eragile guztiei prestakuntza eman gozaie, eta hauskortasun-egoerak hautemateko etengabeko aholkularitza izango dute. Gizarte-zerbitzuek esku-hartze sozialaren ardura izango dute.

Eragile aktiboen sarea sortu ostean, topagune lagunkoia aktibatuko dituzte, herrian dauden espazioak aprobetxatuz; elkarteak, liburutegia, kiroldegia, kafetegiak eta kultura etxea, besteak beste.

Emakumeen arteko konplizitatea ikusgai Emakume Txokoa

Complicidades izeneko argazki erakusketa dago ikusgai hilaren 28ra arte. Mabel Medina Valenzuelak egindako erretratu bilduman, emakumeak dira protagonista. Boliviako, Peruko, Argentinako eta Euskal Herriko emakumeen borrokak eta erresistentziak azaltzen ditu erakusketan, eta, besteak beste, sexu-erasoak, lurraldearen defentsa, autodeterminazioa eta elikadura-subiranotasuna dira nabarmentzen dituen gaiak. Egilearen hitzetan, "emakumeen arteko konplizitatea ardatz" duen bilduma egin gura izan du. Era berean, egileak berak borroka-prozesuez duen ulermena eta inplikazioa islatzen ditu bilduman.

Erakusketa ikusgai dagoen egunetan, hara joan gura dutenek aurrez egin beharko dute eskaera. Emakume Txokoko 943-79 41 39 edo 618 20 62 33 telefonoetara deitu edo *emakumetxokoa@arrasate-eus* helbidera mezua idatzi behar da.

Saharaldebak elkarretaratzea egingo du bihar

Emakumeen Mundu Martxaren karabana bailarara helduko dela aprobetxatuz, *Sahara libre* leloarekin kalera irtengo dira. Arizmendiarrrieta plazan elkartuko dira, 12:30ean. Bestalde, martxoaren 5ean eta 6an, janari bilketa egingo dute Arrasateko Eroskin, eta diru ekarpenak egiteko kontu korronea dute: ES13 2100 2948 8901 0022 2533.

Sasoiko eta bertako produktuak salgai baserriarren azokan

Otsaileko hirugarren zapatua izanik, Arrasateko ohiko ekoizleek bat egingo dute Seber Altube plazan, euren produktuak herritarren eskura ipintzeko. Barazkiak, ogia, gazta, ezta eta garaiko beste hainbat produktu izango dira azokan, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Hurrengo baserriarren azoka martxoaren 20an egingo dute.

Etxe handiagoa behar duzu?

4 logelako etxebizitzak GELMA-n (Arrasate)

309.000 €-tik + BEZa



obenerreka

BIBAI
INMOBILIARIA

943 253 821
info@inmobibai.com
Deba kalea 3 Arrasate

www.inmobibai.com

Erregulartasuna faltan, baina sasoi puntu onean

Espainiako Txapelketa absolutuan izango da domekan Malen Ruiz de Azua. Duela hamabost egun Euskadikoan egindako lana errepikatzen badu, urrezko dominaren lehian ibiliko da, nahiz eta badakien kontrarioak erregulartasun handiz ibili direla

Xabier Urzelai ARRASATE

Asteburuan Madrilen egingo duten Espainiako Txapelketa barruan, domekan izango da pertika-jauzilarien txanda. Eta emakumezkoen artean Malen Ruiz de Azua izango da faboritoetako bat (11:00, Teledeporte). Maialen Axpe ere faboritoen taldean egon ohi da, baina azken urteotan Iruñean bizi eta entrenatzen den atletak muzin egin dio pista estaliko denboraldiari, eta aire zabaleko denboraldia prestatuko duela adierazi dio GOIENARI: "Bizkarrean arazo txiki batzuekin ibili naiz, baina ia-ia osatuta nago; horrenbestez, dagoeneko aire zabaleko denboraldira begira nago".

Hala, Ruiz de Azua zapatuan abiatuko da Jonathan Perez entrenatzailearekin batera Madrilerara, neguko hitzordu garrantzitsuenara: "Xarma gutxi-ko asteburuak izaten dira, nahiko monotonoak. Lagunek ere galdetzen didate ea halako txapelketetara joaten garenean beste zerbait egiteko aprobetxatzen dugun... Eta, azken hila-beteotan ditugun mugikortasun neurri zorrotzengatik, ez litzateke aukera txarra izango, baina ez. Zapatu goizean entrenamendu saio txiki bat eginda abiatuko gara Madrilerara. Eta,



Malen Ruiz de Azua, Mojategin. GOIENA

halakoetan egin ohi dugun moduan, hoteletik kirol instalazioetara eta buelta etxera, ez dugu besterik egiten".

Pronostikoak egitea, zaila

Hala, domekara begira arrasatearrak aitortu du ez dakiela ondo zer etor daitekeen. "Ezjakintasun puntua daukat; egia da duela bi aste Euskadiko Txapelketan marka pertsonala egin nuela (4,41), eta horrek erakusten du fisikoki ondo nagoela, baina kontziente naiz denboraldian zehar erregulartasuna fal-

ta izan zaidala. Iaz, esaterako, Espainiako Txapelketan 4,30eko saltoa egin nuen, baina aurreko txapelketetan ere marka horren bueltan ibili nintzen".

Arrasatekoari falta izan zaion erregulartasuna erakutsi du, esaterako, rankingean lehenengo dagoen Andrea San Jose madrildarrak (4,42): "Iazko aire zabaleko txapelalduna da, eta zaila izango da hark kale egitea, oso erregular dabil pista estaliko denboraldian. Hura eta Miren Bartolome nafarra (4,31) izango dira kontrario gogorrenak". Eta,

borroka horretan, arrasatearrak dominari baino gehiago, markari emango dio garrantzia. "Nik 4,45eko saltoa egiten badut eta, hala ere, bigarren geratzen baina, pozik itzuliko naiz". Eta txapelketa txarra egiten badu... "Autoan isilik bueltatuko gara Jonathan eta biok, edo marmarka... Kar, kar, kar...".

Teknikoki duen zaitasuna

Kirolean ez dira diziplina asko egongo pertika-jauzia besteko teknikoak, eta horrek emaitza ona lortzearen ekuazioari zaitasuna gehitzen dio: "Batzuetan, berotze ariketak egiten zabilzala konturatzen zara fisikoki zein ondo zauden. Ondoren, baina, saltoak egiten hasten zara eta, batzuetan, gertatzen da asmatu ezinka ibiltzen garela. Akats txikiak eragin galanta dauka azken emaitzan. Eta hiru saiera baina ez ditugu izaten. Horregatik, poliki-poliki, saltzo salto, zentimetroz zentimetro joango gara".

Dagoeneko, atleta veterano

Arrasateko atletak 25 urte baino ez ditu, eta dagoeneko veteranoen multzoan sar genezake: "Jonathanez adarra jotzen dit horrekin, atleten artean zaharrena naizela esanez... Kar, kar, kar. Eta 25 urte baino ez ditut! Egia da, baina, atzetik oso-oso atleta gazteak datozela. Bada, pertika-jauzian jarduten duen atleta baten momentu gorena 27 eta 30 urte bitartean izaten da, gutxi gorabehera. Nik, oraindik, badut tartea hobetzen joateko, esperientzia hartzeko, baina egia da pertika-jauzia bizitzaren gaintzeko arloekin bateragarri egin behar dela: lanarekin, aisialdiarekin... Oreak aurkitzea ezinbestekoa da".

Carrascalek, hirugarren marka onena

Joan den asteburuan jokatu zuten Espainiako 23 urtez azpiko txapelketa, Valentzian, eta Eneko Carrascalek urrea jantzi zuen salto hirukoitzean, eta marka pertsonala egin zuen, gainera (15,94). Hala, arrasatearra 16 metroko langa gaintzetik geroago eta gertuago dago.

Hala, atsedean hartzeko tarte handi barik, asteburuan Madrilen izango da Realeko atleta gaztea, baina, oraingoan, txapelketa absolutuan hartuko du esku. Eta, adinez gaztea bada ere, kategoria absolutuan ere dominen borrokan ibiltzeko hautagaietako bat da. Izan ere, pista estaliko denboraldian, oraingoan, Madrillgo Marcos Ruizek egin du markarik onena (16,60), Bartzelonako Ramon Adaliak du bigarren markarik onena (16,09) eta arrasatearra da hirugarren marka onena duen gizona (15,94). Domeka eguerdian izango da salto hirukoitzeko txanda.

ANDREA SAN JOSEK DU MARKARIK ONENA, RUIZ DE AZUAK BAINO ZENTIMETRO BAT GEHIAGO (4,42)

Ford Mugarri, denboraldiko lehen garaipenaren bila

Arrasateko eskubaloitako hiru partiduetan galdutako bi partiduetan, Urnietak, berriz, bakarria irabazi du

X.U. ARRASATE

Euskadiko Txapelketan azken sailkatu Ford Mugarri Arrasateko postu bat gorago dagoen Urnietaren kontra jokatu du asteburuan Iturripen. Eta erritmoa hartzen jarraitzeko helburuare-

kin irtengo dira kantxara; izan ere, horixe falta izan dute denek. Pentsa, urrian hasi zuten liga. Orduan, partidua bakarria jokatu zuten -28-25 galdutako Eskolapiosen kantxan-, eta, geldialdi luze baten ondoren, urtarrean

hasi ziren osterara ere jokatzeko. Orduko hartan, baina, bi jardunaldi baino ezin izan zituzten jokatu -Txikipoliten eta Deustoren kontra galdu zuten (31-24) eta (23-26)-, eta osterara ere etorri zen beste bi asteko etena. Lehenengoan, Escolapiosen kontrako partidua bertan behera geratu zelako; eta joan den astean egutegian, atsedena tokatzen zelako. Egoera horretan, ikuskerako dago arrasatearrak zelan kantxaratuko diren asteburuan Urnietaren kontra.

Mondratek kontrario zuzenaren kantxan jokatu du bihar

Zabalganari irabazi ostean (2-8), Mondratek Euskadiko Txapelketako lehenengo postuan jarraitzen du. Eta oraingo asteburuan, kontrario zuzena izango du aurrean, bigarren postuan dagoen Jaixkiaretoren kontra jokatu duete eta zuri-moreek zapatuan, Lezon (17:00). Lehen itzulian, atzeratu egin zuten talde horren kontrako partidua.



Zabalganaren kontrako lehia. GOIENA

"Txalaparta modukorik ez dugu inon aurkitu"

HARKAITZ MARTINEZ DE SAN VICENTE OREKA TX TALDEKO TXALAPARTARIA 1997an txalaparta ardatz zuen taldearen sortzaileetako izan zen. Ibilbide luzeko banda hori ekarriko du 'Beste bat!' egitarauak Amaiera astelehenean, 19:30ean

Hasier Larrea ARRASATE

Hamabi urte daramatza Oreaka TX taldeak formazio berarekin era guztietako kolaborazioak eta lan propioak uztartzen; betiere, oinarrian, instrumentu berezi horren esentzia kokatuz.

Zer aurkeztuko duzue Amaiera antzokian?

2019 bukaeran kaleratutako *Ko-blea* diskoa, boskotearen izaera islatzen duen laugarren lan luzea. Tinbre eta material ezberdinetako txalapartak joko ditugu. Urte berezia izan da, ez dugu nahi beste aurkezteko aukerarik izan, baina ondo funtzionatu dute ikuskizunek orain arte.

Udaberriko itxialdiaren ostean, jotzeko aukerak izan dituzue.

Ez nahi beste, baina ez gara kezu. Aitzitik, pandemia aurretik baino ilusio gehiagorekin hartzen ditugu orain kontzertuak, bereziagoak direlako. Udan jotzeko aukera izan dugu, eta oso pozik gaude. Astelehenekoarekin, beste horrenbeste. Jendea gogoz dagoela esan digute.

Askorako emango dute 24 urtek.

Sorrerako helburu garrantzitsuena txalapartaz gozatzea zen. Grina hori mantentzen dugu, gure bizipoza eta motorra baita. Estilo eta diziplina ezberdinekin uztartzeaz aparte, txalaparta ardatzeara da gure pasioa.

Txalapartak eskatzen baitu jarrera aktiboa.

Instrumentu berezia da, zuzen egin behar duzulako. Erosi ezin duzunez, txalapartaria sorreratik hasten da. Gainera, instrumentu irekia da: piano bat jotzen duzunean, ikasketa maila minimo bat behar duzu; txalapartan, aldiz, ikasketa librea da, norberak egiten du bidea.

Beraz, txalapartariok ezaugarri komuna duzue.

Ba, bai, antzeko profila dugu. Ez dakit instrumentuak berak erakartzen gaituen edo norberaren izaerak eramaten gaituen hautu hori egitera. Nolanahi



Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte, Aitzina Folk jaialdian. OREKA TX

"ERRITMOAK PARTEKATZEKO MODUAK BATZEN GAITU, BEREZIKI, TXALAPARTARIOK"

ere, izaera jakin bat izatea ez da txalaparta jotzeko baldintza bat, gure estilora egokitzen den arren. **Gustatuko litzaizuke akademietan eta dendetan ikustea?**

Txalapartarian artean asko hitz egiten dugu halako gauzez, kezka kolektibo bat da. Irakaskuntzatik kanpo dago, oraingoz; agian, ez dauka ordena eta instituzionalizaziorik, baina, alde batetik, asko gustatzen zait hori. Egunen batean denda batean ikusten badut, alde batetik poza eta bestetik pena sentituko dut. **Urrutira iritsi zarete txalapartarekin. Aurkitu duzue hor nonbait antzeko instrumenturik?**

Berdinik, ez; antzekoren bat, bai, ordea. Kaledonia Berrian egon ginenean, *garamut* izeneko instrumentua ezagutu genuen museo batean. Horizontalean jotzen den enbor bat da, bi pertsonak jotzen dute eta egin de-

zakete txalapartarekin lotutako erritmorik, baina ez dute garatzen. Bertikalki jotzen den instrumenturik ez dugu aurkitu. **Beraz, euskalduna da %100.**

Txalaparta euskalduna eta unibertsala da, %100. Gainera, materialak ez du zertan egurra izan; harria, izotza edo burdina izan daiteke. Munduko edozein tokitan sor daiteke, beraz. Erritmoa partekatze moduak batzen gaitu, batez ere, txalapartariok, oso gutxitan ikusi baitugu beste herrialdeetan horrelakorik. Bertsolaritzarekin konparagarria izan litekeela uste dut: inprobisatzaileak mundu guztian daude, baina hemengoek sekulako maila daukate. Txalapartak musika sortzeko gaitasuna errespetatu du, modu aberatsagoan. Horrek egiten du berezi. Hemen sortu da, eta horrek gauza asko esan nahi ditu, irakurketa sakonagoa merezi du. Lan erritmotik eratorritako instrumentua da, eta hori ez da berezia, baina urteekin jolas bat gertatu da, lan erritmotik festara pasatu da, erritmoak errepikatu eta aberastu egin dira, eta bilakera horretatik sortu da orain ezagutzen dugun instrumentua.

'Neskamearen ipuina'-ren aurkezpena, bihar, gaztetxean

Zigor Garro itzultzaileak eleberri distopiko hori ekarri du euskarara: "Indusketa-lan handia egin behar izan dut"

H.L. ARRASATE

1986an Margaret Atwood idazleak kaleratutako *The Handmaid's Tale* nobela itzuli du Txalaparta argitaletxearekin elkarlanean Zigor Garro itzultzaile erreteriarak. Emaiza bihar aurkeztuko du, gaztetxean, eguerdiko hamabietan. Liburuaren gai-gatik galdetuta, "gizadia antzutu duen natalitate-krisi batetik abiatzen da kontaketa, non estatu-kolpe baten bitartez gobernu emakumeen erreproduzitzeko gaitasunaren jabe egiten den", azaldu du Garrok.

Askok nobela berean oinarritutako sailagatik ezagutuko dute kontaketaaren mamia. Dena den, egokitzapen horrek liburuarekiko desberdintasunak azalartzen dituela aipatu du itzultzaileak: "June protagonistak murturreko egoerak bizi ditu kontakizunean, eta idatzizkoan



Euskarazko liburuaren azala. TXALAPARTA

umore eta ironia puntu batekin deskribatzen ditu lehen pertsonan; ikus-entzunezkoan, galdu egiten da ikuspuntu hori".

Idazleak euskal itzulpengintzan dagoen "hutsunea" nabarmendu du, euskarara itzultzeko hiztegien falta eta salmenta baxuengatik.

'Jateko moduko ipuinak' kontaktuko ditu Maite Frankok

Gaur, hilak 19, arratsaldeko 18:00etan, 3 eta 4 urte artekoak zuzendutako ipuin kontaketa eskainiko du Kulturaten Maite Franko hondarribiarrak. "Txipiroti arrantzale eta lehorreko lamia baten zazpigarren alaba" bezala definitzen da Franko, "antzerkigintza, irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan oinak busti dituen".

Kontaktak jolas, asmakizun eta dramatizazioekin nahasten ditu Frankok, "umore, misterio, mezu positibo eta kresala ugariko" ukituak txertatuz. Ahoz aho ibilitako ipuinak, argitaratu berriak zein egileak berak sortutakoak jorratzen ditu, izenburu horren pean dagoen gai nagusia elikadura delarik: "Funtsean otorduetan kontaktzeko moduko istorioak dira, zapora ona uzten dutenak". Izena aurrez eman behar zen eta jada ez da tokirik geratzen.



Euskal Herria hobetzeko prest?



OROTARIKO ZERBITZUA · 100 €-tik / hileko
Aruntza 70€-tik / hileko

📍 Garaia Berrikuntza Gunea · 20.500 Arrasate ☎️ 943 903 450
✉️ info@bertako.eus 🌐 www.bertako.eus



Lehen lerroan, Eider Ballina, eta atzean, Josu Txintxurreta. ARTEMAN

Itxaropen mezua zabaldu gura duen dokumentala

'Mendian hil, hirian hil' ikus-entzunezkoa eskainiko dute domekan kultura etxean. Iñaki Peña medikuak zuzendutako lana da, eta bidelagun izan du Eider Ballina aramaioarra. Izan duen harrera ona ikusita, beste emanaldi bat egingo dute martxoan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Domekan, *Mendian hil, hirian hil* dokumentala eskainiko dute kultura etxean. Oso harrera ona izan du emanaldiak, eta dagoneko agortuta daude sarrera guztiak.

Emanaldiaren ondoren, dokumentaleko zuzendari Iñaki Peña-rekin eta grabazio eta edizio lanetan parte hartu duen Eider


Ballina aramaioarrarekin solasaldia egiteko aukera egongo da. *Mendi tontor elurtuan edo eta ospitale bateko logela batean hildako senide bat gogora ekar dezakegu bihotzean minik sentitu gabe?* galderari erantzuna ematen ahalegindu dira dokumentalean. "Iñaki Peña medikuak dago ikus-entzunezkoaren atzean. Arteman-ekin egin duen hiru-

garren lana da, eta esango nuke sentsazio onena utzi duena dela. Itxaropen mezua da, min bako oroitzen bat egon daitekeela erakutsi nahi izan du lanean", dio Ballinak.

Dokumentalak hainbat testigantza jasotzen ditu: senideren bat galdu dutenena eta lagun bat galdu dutenena. "Adibidez, Juanjo San Sebastianek gertu-

Beste saio bat martxoan

Domekako emanaldiko sarrera guztiak agortu egin direnez, Kultura Sailak erabaki du martxoan beste saioa bat egitea. Martxoaren 21ean izango da, domeka, 19:00etan, kultura etxean. Sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, Internetez.



EIDER BALLINA

"Lana eta zaletasuna uztartu ditut"

EIDER BALLINA EDITOREA

Dokumentalak mendiarekiko zaletasuna eta lana uztartzeko aukera eskaini dio aramaioarrari. **Zein izan da zure lana?** Kamerari lanak egin ditut, eta baita edizio eta postproduzio lana ere, Josu Txintxurretarekin batera. Ideia Iñakirena izan da; gu bidelagun izan gara. **Zer eskaini dizu lan honek?**

Profesionalki, egunerokoa hausteko balio izan dit. Horrez gain, mendia gustuko dudanez, polita izan da lana eta zaletasuna uztartzea. Gainera, mendian ibili arren, hor dauden baina sekula berba egiten ez duzun hainbat gairen inguruan berba egiteko aukera eman dit. Irakurri ere egin dut mendiari buruz; *Mendiminez* liburua, esaterako.

Aramaio udalerrri 'gorrien' zerrendatik irten zen atzo

Ondorioz, kirolari dagozkion arauak lehengora itzuliko dira; besteak beste, eskola-kirola baimendu egingo dute

A.E. ARAMAIO

Osasun egoerak izan duen bilakaera ikusita, Aramaio udalerrri *gorrien* zerrendatik irten zen atzo. Aramaio udalerrri *gorrien* zerrendatik irten da. "Orain dela bi aste geneukan *normaltasunera* itzu-

tan beste faktore batzuk hartzen dira kontuan; hori horrela, Arrasateko Osasun Eremuko tasa 493,47koa denez, Aramaio udalerrri *gorrien* zerrendatik irten da. "Orain dela bi aste geneukan *normaltasunera* itzu-

liko gara", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Batez ere, kiroldegi inguruko arauetan izango du eragina horrek. Alde batetik, eskola-kirola berriro ere hasi ahal izango dute. Orain dela bi aste eten zuten jarduna berriro ere berreskuratuko dute; eta, bestetik, entrenamenduak egiteko baimena izango dute taldeek berriro ere. Gune *gorrian* egonda, bakarka egin behar zen kirola; eta entrenatu talde profesional edo semiprofesionalek bakarrik.

Mariano Errasti hil da, Aramaioko seme kuttuna zena

1926an jaio zen Mariano Errasti Ugarte, Azkoagako Induspe baserrian. 1950ean apaiztu zen, Arantzazun, eta, ordutik, Aramaiotik urrun bizi izan zen. Hainbat liburu eta poesia idatzitakoak *-Eguzkilore*, esaterako-, Aramaio udalak seme kuttun izendatu zuen 2000. urteko maiatzaren 31n. Joan den otsailaren 5ean hil zen, Bermeon.



Mariano Errasti. ARAMAIOKO UDALA

"Barikuan irtengo da diskoaren aurrerapena"

IDOIA ASURMENDI MUSIKARIA

'Ilun eta abar' diskoari azken ukituak ematen ari da Aramaioko musikaria. Apirilean argitaratu nahiko luke, Aste Santu ostean; otsailaren 26an, singlea argitaratuko du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaioko musikariak emanaldia egin zuen, atzo, Bergarako Seminarixoa aretoan. Diskoa oraindik ez dago kalean, baina bertako abestiak eskaini zituen atzoko kontzertuan. Gainera, otsailaren 26an, *Ilun eta abar* diskoaren aurrerapena izango den singlea aurkeztuko duela azaldu du.

Pozik zaude Bergaran jotzeko aukerarekin?

Bai, oso pozik. Gainera, hainbat urtetan Bergarako Ertzak taldearekin jo izan dut eta niretzako etxean egotea bezala izango da Bergaran jotzea.

Pena emango du, baina, etxetik hain gertu egon eta aramaiorrek kontzertura joateko aukerarik ez izateak.

Pena ematen du, bai; ea aurrerago Aramaion kontzerturen bat eskaintzeko aukera dudan.

Diskoa ez dago kalean; hala ere, bertako abestiak eskainiko dituzu Seminarixoan?

Kuriosoa izango da. Diskoa ez da salgai egongo, baina primizian entzungo dituzte azken disko horretako abestiak.

Diskoa oraindik ez da argitaratu. Noizko egongo da kalean?

Asmoa da Aste Santu ondoren argitaratzea diskoa. Ea dena martxa onean doan eta horrela izan daitekeen. Maiatzean edo ekainean, berriz, bira hasi gurako genuke.

Zer jasotzen du *Ilun eta abar* diskoak?

Zazpi abesti izango ditu lan berriak. Guztiak nik sortutako abestiak dira. Edozelan ere, letrak idazteko laguntza izan dut: Arrasateko Institutuan ezagutu nuen Maria Osés lagunak egin dizkit letra batzuk, eta beste abesti bateko letra Xabi Igoa aramaiorrek idatzi dit. Musika nik neuk sortua da, baina nabarmendu behar da taldearen laguntzarekin gorpuztu direla abesti guztiak.



Musikaria naturaren erdian. EIDER BALLINA

"DONOSTIAKO MUIR ESTUDIOAN GRABATU DITUT ABESTIAK, JON BIDAURRENEN GIDARITZAPEAN"

Diskoa esku artean izateko gogoz dagoenari nola azalduko zenioke zer jasotzen den bertan?

Egia esan, ez dakit zein den nire estiloa. Ideia ezberdinak hartzen ditut... baina esan daiteke diskoa intimoa izango dela: pop eta folk doinuak izango ditu.

Norekin grabatu duzu?

Autoekoiztutako lana dela esan dezaket; bi manager izan ditut ondoan. Grabazioa Donostiako Muir estudioetan egin nuen, udazkenean, Jon Bidaurrekin. Oso gustura geratu naiz lortutako emaitzarekin.

Azken urte honetan bizi dugun egoerak nola eragin dizue kultur-gintzan aritzen zaretenoi?

Egia da egoera nola dagoen ikusteak amorrua ematen duela. Baina nik aprobetxatu egin dut egoera eta momentua diskoa grabatzeko eta abesti berriak sortzeko. Bestalde, esan behar

duz bizi dugun egoerak eskatzen duen formatua oso egokia dela niretzako. Hau da, areto batean jotzea, jendea jesarrita egotea. Nire musika motarekin oso ondo doan formatua dela esan dezaket. Nabarmendu nahiko nuke udan hogei bat kontzertu eskaini nituela aretoetan.

Eta nola daramazu ikusleak maskararen atzean ikustea? Harremana mantentzea zaila da?

Maskarak hoztu egin du musikariaren eta ikuslearen arteko harremana. Baina, egoera honen aurrean, momentu honetan komunikatzeko beste bide batzuk ikasi ditugu; begiekin komunikatzen, adibidez.

Noiz kaleratuko duzu diskoaren lehen singlea?

Aurreratu dezakegu datorren barikuan, otsailaren 26an, diskoaren lehenengo aurrerapena izango dena aurkeztuko dugula. Gainera, bideoak ere badaukagu, Aramaion bertan grabatutakoa eta herriko jende asko agertzen dena.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Ez; momentuz, lan honekin nahikoa daukat. Azkenaldian, baina, ibili naiz konposatzen.

'Gailur ekaiztsuak' izango dute berbagai martxoaren 22an

Irakurle klub feministaren hurrengo solasaldia Emily Bronteren eleberraren gainean izango da

A.E. ARAMAIO

Irakurle klub feministak gertu du hurrengo solasaldia. Martxoaren 22an egingo dute, eta han komentatuko duten liburua *Gailur ekaiztsuak* izango da. 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da solasaldia.

Interesa dutenek liburua maileguan har dezakete liburutegian; gainera, hurrengo solasaldiarrako ere sistema bera erabiltzeko aukera izango dute.

Gailur ekaiztsuak – *Wuthering Heights*– Emily Bronteren eleberririk bakarra da. 1847an argi-

taratu zen, Ellis Bel izenaren pean. Lana literatura ingeleseko klasikotzat hartzen da gaur egun, baina kritiko garaikideek ez zuten hain argi ikusi; eleberririk gatazkatsutzat hartu zen, krueldtasun fisiko eta mentala modu ezohikoan aipatzen zuelako. Gainera, eleberririk genero ezberdintasunak zalantzak jartzen ditu, eta garai hartan hori ez zen ohikoa.

Euskarazko itzulpena 2017an egin zuen Irene Aldasorok; 2018an, Euskadi Literatura saria irabazi zuen, itzulpengintza arloan.



ARAMAIOKO UDALA

Beste mahai bat jarri dute parkean

Eskolako umeek udaletxean egindako eskaerari erantzunez, Udalak beste mahai bat jarri du parkean. Gurpil-aulkiendako egokitutako mahai da. Horrez gain, jolastokian tirolina bat eta ohe elastikoa jartzeko eskaera ere egin zuten. Hala, eskaera horiek parkearen hobekuntza planaren barruan aztertuko ditu Udalak.

OHARRAK

Puntu berde mugikorra

Datorren astean, otsailaren 24an, puntu berde mugikorra auzoetan egongo da: Gantzagan 11:00etatik 12:00etara; Etxaguenen 12:00etatik 13:00etara; Arexolan 13:00etatik 14:00etara; eta Oletan 14:00etatik 16:00etara.

Autobus zerbitzua

Aramaiio-Arrasate autobus zerbitzuak aldaketa txiki bat izango du hurrengo egunetan, Arrasaten egiten ari diren obregatik: orain arteko geralekuak mantendu egingo ditu, baina erdigunean ez da Garibaiko geralekuan geratuko, baizik eta parean, Nafarroa etorbideko geralekuan.

Udal aurrekontua onartuta, inbertsioetarako ia hiru milioi euro izanda

Udal Gobernuaren botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin egin du aurrera 12.551.692 eurotan zehaztutako 2021eko aurrekontuak. Iazkoarekin alderatuta, %24,4 egin du gora, eta bi lan potolori heldu gura diote: Santa Kurtz kaleari eta komentuari

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Dagoeneko badu 2021erako aurrekontua Aretxabaletako Udalak: 12.551.692 euro –iazkoarekin alderatuta, %24,4 handiagoa–; eta horietatik 2.888.248 euro inbertsioetarako izango dira. Horretarako, mailegua eskatzea erabaki du Udal Gobernuak: 2.734.639 eurokoa, hain zuzen ere. "Agindutako bi proiektu garrantzitsuri heltzeko izango da. Eta agintaldi bukaerarako likidatuta egon daitekeela uste dugu, nahikoa generatu daitekeelako", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu zuhurak izan direla. Era berean, pandemia egoerako "krisi sasoi" bizi arren murrizketarik ez egin ahalegindu dira: "Sarrerak jaitzi egin dira, bai, baina saiatu gara eusten bai dirulaguntzei bai gastuei".

Lan garrantzitsuak

Bi inbertsio garrantzitsu horiek hauek dira: Santa Kurtz kaleko Hornidura eta Saneamendu Plan Berezia eta komentuko lanak. "Besteak beste, Basotxo erretiratuaren elkarteari lekua egin behar diogu. Izan ere, orain dauden eraikinean osasun etxea egiteko lanak abiatuko ditu Osakidetzak, eta irailean hasi daitezkeela adierazi digute. Horiek egindakoan zerbitzu aldetik asko irabaziko dugu, eta garrantzitsuak izango dira biak".

Beste lan batzuetarako ere aurreikusi dituzte inbertsioak: "Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako gelak berri egin behar dira, eta hori Jaurlaritzaren laguntza batzuekin dago lotuta". Horrez gain, beste urbanizatzeko lan batzuk (40.000 euro) ere aurreikusi dituzte, eta bide publikoak mantentzeko lanak ere bai (30.000 euro). Merkata-

ritza sustatzeko 25.000 euro gorde dituzte eta ostalaritzako lokalean terrazak jartzeko laguntzetarako, 90.000 euro. Gainera, Plan Orokorra (HAPO) definitzeko prozesurako 72.270 euro

bideratu dituzte. Diru-sarrerei jarraipena egingo dietela gaineratu zuen alkateak: "Beste proiektu batzuk abiarazteko gaitasuna izanez gero, horiei heltzeko gertu gaude".

Inbertsiorik esanguratsuenak

Santa Kurtz kalearen berritze lanak	1.508.918 €
Komentuko lanen lehen fasea	491.975 €
Kurtzebarri eskola berritzeko lehen fasea	307.517 €
Kiroldegian jarriko diren eguzki-plakak	116.000 €
Behin-behineko aparkalekua Tubos-en	48.975 €
Bedarreta auzoko irisgarritasun lanak	29.000 €
Kiroldegiko berdegunearen erabileren definizioa	25.000 €

ITURRIA: UDALA



Berriro urbanizatuko duten Santa Kurtz kalea. M.A.

Santa Kurtz kalea berritzea

Hornidura eta Saneamendu Plan Bereziaren baitan, azpiegitura-sareak ordezkatuko dituzte, besteak beste, ur-hornidura eta ur beltzen saneamendua, energia elektrikoaren sarea, argiteriarena eta telekomunikazioena. Inguruak ere berrurbanizatuko dituzte.



Osoko bilkuran, kide batzuk aretoan eta beste batzuk etxean. MIRARI ALTUBE

EH Bildu, prozedurarekin ados ez EH Bilduk abstentziora jo zuen. Aurrekontu itxia dela eta ekarpenak egiteko marjina txikia duela adierazi zuen. Bereziki ez zen bat etorri prozedurarekin. "Gero eta gehiago nabaritzen da gurekin kontatu gabeko bideari ekin diotela. Gure beharra ez dutela agerian geratu da, eta gehiengo absolutua baliatzen dabilta", adierazi zuen Ion Albizu bozeramaileak.

Ekarpen "xumeak eta egingarriak" egin dituztela gaineratu zuen: laguntza psikologikoa –alderdien ekarpenetatik 10.000 euro hara bideratuta–, eguzki-plakak jartzea kiroldegian eta pilotalekuan eta herriko hainbat ibilbide hobetzea. Emendakinek ez zuten aurrera egin, baina horietako batzuk onartu egin zituen Udal Gobernuak, eta au-

rrekontuan lekua egin, Albizuk adierazitako legez: "Aurrera egin dute kiroldegian eguzki-plakak jartzeak eta paseorako hainbat bide konpontzeak; tartean, Santutxu eta Lausitta arteko behin-behineko bat, nahiz eta airean geratu hainbat kontu".

Etkez etxeko zerbitzua

Aurrekontuan pisu handia duen sailletako bat dira Gizarte Zerbitzuak, eta, horren barruan, etkez etxeko zerbitzua. Hain zuzen, ezohiko osoko bilkuran onartu zuten zerbitzu horren lizitazioa, Udal Gobernuaren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin.

Karme Urizarri Ongizate Saileko zinegotzia pozik agertu zen onartutakoarekin, "gaia korapilatsua" izan dela iritziz: "Pandemiaren ondorioz, eta kri-



Agustindar moja izandako komentua. M.A.

Komentuaren egokitzapen lanak

Adinekoentzako gizarte zentro bihurtzeko lehen fasea abian jarri gura dute. Eraikinaren beheko solairuan egingo diete lekua honako hauei: Basotxo erretiratuaren egoitza, estimulazio kognitiboko tailerrak eta kapera zaharrear erabilerara askotariko gela.

si sasoi honetan, gero eta erabil-tzaile gehiago ditu. Horri erantzuteko Udalak esfortzu handia egin du; zerbitzuaren prezioa igo egin du eta partida hazi egin da".

Udalarendako zerbitzurik garrantzitsuenetakoa dela gaineratu zuen, eta, horregatik, hori egonkortzearen alde egin dutela: "Kalitatezko zerbitzua izan dadin gura dugu, orain arte moduan. Bestetik, hainbat gatazka izan dira eta langileen baldintzak bermatu gura genituen". Hala, 25 eurotan zehaztu dute orduaren prezioa -BEZa- rekin, 26 euro- eta, behin hori ezarrita, enpresaren eta etxez etxeko zerbitzua ematen duten langileen artean hitzarmena sinatzea lortu da.

EH Bildu ez zen bat etorri. "Prezioa igotzearen alde gaude la esan dugu hasieratik, horrek dakarrelako langileen lan baldintzak hobetzea. Baina desadostasuna etorri da prezioa ezartzeko kudeaketarekin. Zerbitzuaren kostua jakiteko kalkulatu bat egin behar da eta guk uste dugu ez dela egin", azaldu zuen Irati Pagoaga zinegotziak.

Espetxe politika: mozioa

Ezohiko osoko bilkura izanik, galderak eta eskaerak egiteko tarterik ez zen izan, eta, ondorioz, premiazko beste bat deitzea onartu zuen udalbatzako, aho batez, EH Bilduk aurkeztutako espetxe politikaren gaineko mozioa eztabaidatzeko.

Mozio horri hainbat aldaketa egitea adostua zuten bi udal taldeen artean, baina desadostasunak sortu zituen mobilizazioak zeinek deitu atalak; EH Bilduren esanetan, Udalak deitu beharko lituzke, eta EAJ ez zen bat etorri. Ondorioz, ez zuten mozioa onartu.



"Azken urteetako inbertsio mailarik altuena planteatu dugu"

UNAI ELKORO ALKATEA

"2021eko aurrekontuak aurrera atera ditugu. Asmo handiko aurrekontuak dira. Aurreko urteko aurrekontuekin alderatuz, ia %25 handiagoak.

Nahiz eta Udalak izango dituen diru sarrerak iaizko aurreikusiak baino txikiagoak izan, zorpetzea erabaki dugu, bi helburu nagusirekin: lehena, oinarritzko zerbitzuak mantendu edo indartzea; eta, bestetik, agintaldi honetarako agindutako inbertsioak aurrera atera ahal izatea.

Zorpetze mailari dagokionez, esan beharra daukagu ondo neurtu dugula, eta, aurreikuspenak betez gero, eta zuhurrak izan gara, agintaldi honetan sortutako sarrerekin aurre egiteko gai izango gara.

Nabarmendu beharra dago azken urteetako inbertsio mailarik altuena planteatu dugula, ia 2,9 milioi euro. Santa Kurtzeko PEASa, komentuaren eraberritzea eta Kurtzebarri eskolako obrak dira nagusiak. Ongizate arloan, azpimarratu beharra dago etxez etxeko laguntza zerbitzuan aurrekontua bikoiztu baino gehiago egiten dela.

Aurtengo ekitaldian ere pandemia nagusi izango dugu, eta hurbiletik zainduko dugu egoera ekonomikoa, honek ahalbidetzen duen heinean inbertsio berriei ekiteko".



"Bakarrik nahi badute aurrera egin, haiena izango da ardura ere"

ION ALBIZU EH BILDUREN BOZERAMAILEA

"Ohikoa dena, aurtun are gehiago, Udal Gobernuak aurkeztu zigan proiektuan argi eta garbi ikusten zen gure parte hartzea ez zela beharrezkoa. Ez zegoen negoziatzeko marjinarik.

Gehiago absolutuen ohiko eskema indartu egin dute eta guk ezin dugu egiteko modu hori babestu. Herriak behar dituen inbertsioek konpartituak izan behar dute, mundu guztiak argi edukita hurrengo urteetan lehentasunak zeintzuk izango diren, zerk itxoin beharko duen, zer ez den egingo eta zergatik. Gobernantza parte-hartzaile eredu lan eginda, sortu ahal diren gatazkak arindu egingo lirarteke.

Bestela, bakarrik nahi badute aurrera egin, haiena izango da ere ardura eta erantzukizuna. Gure ekarpenak xumeak izan dira, testuinguruak ez zuelako gehiagorako ematen. Dena den, urteak askotarako emango duela uste dugu, eta lehentasun batzuk egokitu egin beharko dira".

EH Bilduk dio EAJrekin zuen lankidetzara apurtu egin dela

HAPOn ardura kendu diotela adierazi du, eta Gobernu Batzordean jarraitzea kolokan dagoela gaineratu

M.A. ARETXABALETA

EH Bilduren udal taldeak prentsa-ohar bidez adierazi du bilerara batera deitu zituela EAJk otsailaren 8an. Eta orduan mahai gainean jarritako hainbat konturen berri eman gura izan dute.

Agintaldi hasieran lortutako lankidetzara eredu apurtu egin dela diote: "Ez da berri ona inorentzako, elkarrekin egindako bidea positibotzat jotzen dugulako".

Era berean, HAPO garatzeko arduratik kanpo utzi dituztela gaineratu dute: "HAPOn garapenean hartu genuen konpromisoarekin jarraitzen dugu, nahiz eta alkatearen erabakiak ardura horren lidergotik kanpo kokatu. Ez dugu konpartitzen, ezta ulertzen ere erabaki hori".

Gobernu Batzordeko kide izan dira EH Bildukoak orain arte, eta hori "kolokan" dagoela dio-

te: "Gobernu Batzordea indar korrelazioaren isla izan beharko litzateke. Erabakiak pobretu eta gardentasuna kaltetzen dira hori horrela izaten ez denean".

EAJk hartutako erabakia aretxabalarren interesetik "urrun" kokatzen dela gaineratu dute: "Gure arteko elkarlana eteteko arrazoiak Aretxabaletatik kanpo dauden faktoreek baldintzatutakoak direla uste dugu".

Aretxabalearen alde lanean

Erabakiak komunean hartzen eta horien burujabe izaten jarraituko dutela adierazi dute oharrean, eta berretsi Aretxabalearen alde lan egiteko konpromisoa: "Inork ez zuen esan bidaia erraza izango zenik, baina posible dela pentsatzen jarraitzen dugu: aukera objektiboak ikusten ditugu. Guk Aretxabalea hobetzeko lan egingo dugu".

Martxoaren 8a antolatzen bilerak martitzenetan

Aretxabaleako Mugimendu Feministako kideak hasi dira Martxoaren 8a antolatzen. Bilerak martitzenetan egiten dituzte, 15:00etan eta 18:00etan, Arkupen. Herriko emakume guztiak gonbidatu dituzte horietara, eta iritzia eman edo ekarpenak egitera animatu. Hain zuzen, astean egin dituzte lehenengo bilerak eta hoge lagunetik gora elkar-

tu dira, guztira. Emakumeen Nazioarteko Egunean herrian "ibilaldi" bat egitea proposatu zuten, eta hori lantzen jarraituko dute datozen egunetan.

Bihar, zapatua, ostera, Emakumeen Mundu Martxa pasatuko da herritik. Oihalak apaintzeko elkartuko dira, lehenengo, Herriko Plazan (11:00), eta gero, Mugarrira abiatu (12:30); han jasoko dituzte bailarakoen gainerako oihalak (13:30) eta eskoriatzarrei pasatuko diete Almenazpian (14:30).



Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hartz protesiak
Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00 Ostiralean: 09:00-16:00	
Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55	



Eguenean, Euspot lehiaketako antolatzaile eta zenbait babesleren ordezkariak talde argazkian. IMANOL BELOKI

Nekazaritzatik bizitzea sustatuko da Euspot-en

Euspot euskarazko spot lehiaketaren hamargarren edizioa izango da aurten. 'Nekazaritzatik bizi nahi dugu!' gaia ardatz, berrikuntza nagusia izango da formatu librean egin daitezkeela lanak; hau da, horizontalean edo bertikalean grabatu daiteke

Imanol Beloki ARETXABALETA

Euspot euskarazko spot lehiaketaren aurkezpena egin zuten, atzo, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioaren Fakultatean. Aurten, lehiaketaren hamargarren edizioa izango da, eta Aretxabaleako Udaleko, MUko, Arizmendiko eta Artemaneko ordezkariak gainera, Eusko Jaurlaritzako Hazi Saileko ordezkariak ere izan ziren bertan. Edizio honetan, gainera, lehenengo sektorea ardatz hartuta, *Nekazaritzatik bizi nahi dugu!* izango da hau-tatu duten gaia.

Landa eremura gerturatzea

Spot batekin herritarrak kontzientziatu nahi dituzte bertako familia nekazaritzak ingurumen eta gizarte jasangarritasunari ematen dion guztiari balioa emateko eta lehen sektorea indartzeko. "Aurtengo spotak gazteak animatu beharko ditu familia-nekazaritzatik bizitzera. Helburua gazteak eta horien artean,

batez ere, emakumeak landa eremura gerturatzea izan behar da", adierazi du Arantzazu Lagunillak, Artemaneko zuzendariak. Gaineratu du Euspotek gizartearekin erlazioatutako gai sozial bat aukeratu duela azken edizioetan. "Nekazaritzak Euskal Herrian izan duen historia ezagututa, interesgarria irudituz zitzagun gazteak nekazaritza mundura erakartzea".

Formatu librean grabatu daiteke

Edizio honetan, lanen iraupena 30 segundokoa izan behar da, gehienez, eta aurtengo berrikuntza nagusia izango da formatu librean izango dela. Hau da, spota edozein formatutan grabatu ahal izango da: horizon-

HELBURUA DA GAZTEAK ETA, BATEZ ERE, EMAKUMEAK LANDA EREMURA GERTURATzea

talean edo bertikalean. Partehartzaileek maiatzaren 12ra bitartean izango dute aukera euren lanak aurkezteko, eta sari banaketa maiatzaren 27an egingo da. Horrez gainera, sormenari buruzko online formakuntza eskainiko du antolakuntzak, spot egileen harrobia indartzeko. Ikus-entzunezko publizitatearen gainera izango da, eta Julen Urtzegik eskainiko du, Euspot 2020ko irabazle eta ikus-entzunezko sormenean adituak.

2.800 euro saritan

Sei sari banatuko dira, guztira, Euspot-en hamargarren edizio honetan: spotik onena (1.000 euro), publikoaren saria (500 euro), musika sinkronizazio onenaren saria (300 euro) eta gazteen saria (250 euro), 14 eta 18 urte bitartekoentzat zuzendutakoa. Horiez batera, sari gehigarriak izango dira: MUko ikasleen spotik onena (500 euro) eta Arizmendiko ikasleen spotik onena (250 euro).

NIRE USTEZ



IDOIA SANCHEZ

Nekatuta

Koronabirusa. Konfinamendu totala. Deseskalada. Maskaren derrigortasuna. Ostalaritzaren itxiera. Konfinamendu municipala. Eta berriz hasierara, ostera hastera.

Ziklo bukaezin honen amaiera ezartzea premia da. Hobetuko den susmoa izatea, behintzat. Pertsonok estatistika huts bihurtu gaituzten errealitate honetan, egun ez dago *Resistiré* edo txalo zaparradentzako lekurik, beharrezko dugunarengandik zeharo aldentuta daude. Energia eta indar iturri mugatuak dira, nork bere aldetik jar dezakeena bezala. Maitasuna eta intentzioa ez dira guztiari aurre egiteko giltza, ez bakarrik.

Horregatik, egun, zilegi da gehiago ezin dugula esatea, ongi ez gaudela aitortzea, hau guztia oso luze egiten ari zaigula aldarrikatzea. Egoera onartu eta horretaz jabetzeak ortzadar lausoen atzean ezkatutzeak baino baliabide gehiago eskainiko dizkigu, zin dagit. Eta agian, izango da pandemiari eskertuko diogunik: laguntza eskatzea ahulgune izatetik indargune izatera pasatzen bada.

Joseba Azkarragaren hitzaldia, hilaren 23an, Arkupen

Datorren martitzenean, Joseba Azkarraga Sareko bozeramaileak hitzaldia eskainiko du Arkupe aretoan, 18:30ean. *Etixeratze prozesua* izenburupean, Sareko bozeramaileak euskal presoen etxeratze prozesuaren gaineko argibideak emango ditu. Horretarako, honako galderak izango ditu oinarri: *Presoen etxeratze prozesua bultzatzeko zein paper jokatu behar du euskal gizarteak? Eta instituzioek?*

COVID-19arengatik Arkupeko edukiera mugatua denez, areto-joateko aurrez izena eman beharko da, 657 77 58 39 zenbakira *whatsapp*-a bidalita edo *atxabaltakosare@gmail.com* helbidera idatzita.

Ipuin kontaketa izango da martxoaren 10ean, Arkupen

Martxoaren 10ean, Onintze Goitizek *Enaitz pirata ipuinen munduan* ipuinaren kontakizuna egingo du Arkupen, 18:30ean. 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat zuzendutakoa izango da, eta 50 minutu inguruko iraupena izango du saioak, gutxi gorabehera.

Arkupe aretoko edukiera mugatua denez, 22 lagun sartu ahal izango dira –umeek heldu batek lagunduta joan beharko dute–. Ipuin kontaketa joan nahi dutenek, baina, izena eman beharko dute liburutegian, eta martxoaren 1etik aurrera egin daitezkeela adierazi dute antolatzaileek –helduaren eta umearen izen-abizenak eta telefono zenbakia jasoko dituzte–.

'Ondo bereztua, asko aurreztua!' kanpaina aurkeztuko dute plazan

Ondo bereztua, asko aurreztua! kanpaina abiatu du Debagoieneko Mankomunitateak. Ontzi arinekin batera botatzen diren hondakin inpropioak gutxitzeko ekimena da, eta zapatu honetan, informazio puntua jarri eta haurrendako eta gaztetxoendako ekintza izango da Aretxabaleako Herriko Plazan, 10:30etik 14:00etara bitartean.





Hidalga eta San Juan kaleen arteko errepedean egokitu duten eremua. IMANOL BELOKI

Oinezkoek lehentasuna Hidalgako bidegurutzean

Hidalga eta San Juan kaleen arteko errepede zati bat berdez margotu dute, eremu horretan oinezkoek lehentasuna izango dutela adierazteko. Horrekin batera, aparkalekuak kendu egin dituzte, udaltzainen auto ofizialarena mantenduta eta zamalanetarako lekua utzita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hidalga kaleko 11 eta 12. atarien paretik San Juan kalera doan errepede zati bat berdez margotu berri dute asteon udal langileek, eta zona hori koexistentzia-eremu bihurtu.

Ibilgailuek bertatik pasatzeko aukera izaten jarraituko dute, kontuan izanda zona horretan garajeak daudela. Hala ere, oinezkoek izango dute lehentasuna eremu horretan. Hori adierazteko, zorua berde kolorez margotu dute, eta bi zebra-bide koloreztatu egin dituzte. Horrekin batera, eremu horretan zeuden aparkalekuak kendu egin dituzte; hala ere, udaltzainaren auto ofizialaren aparkalekua mantendu egin dute eta zamalanetan aritzen direnentzako lekua utzi dute.

Astelehenean hasi zituzten lanak, eta dagoeneko amaitu dituzte. "Hidalga kalearen zati bat egokitu da, udaletxearen atzealdean, oinezkoentzako lehentasuna duen koexistentzia-eremu

bihurtzeko. Hemendik aurrera, eremu horretan pasabide batzuk mugatuta geratzen dira zebra-bide gorri eta zuriekin margotuta. Eta berdez, koexistentzia-koak. Horrez gain, bizikletak aparkatzeko zenbait poste jarri dira", adierazi du Josu Ezkurdiak, EAJko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Brigadako udal langileak arduratu dira lanak egiteaz, eta hauek egiteko arrazoia eremu horretan oinezkoek egiten dituzten joan-etorrien segurtasuna bermatzea izan dela nabarmendu gura izan du Ezkurdiak: "Eskoriatzako Udalak mugikortasun jasagarriaren barruan duen helburuen barruan kokatzen dira lan hauek, oinez egiten

**LANAK OINEZKOEN
JOAN-ETORRIEN
SEGURTASUNA
HANDITZEKO ASMOZ
EGIN DITUZTE**

diren joan-etorrien segurtasuna handitzeko".

Aparkaleku gutxiago

Aparkaleku gehienak kendu egin dituzte eremu horretan. Soilik partikularrek aparkatzeko leku bat utzi dute, eta udal ibilgailuentzat beste bat; udaltzainen autoa aparkatzeko ohiko aparkalekua dena, eta zamalanetan aritzen diren ibilgailuentzat beste leku bat. Aparkaleku gehienak zeuden lekuan bizikletak uzteko lau poste ezarri dituzte.

Seinalearen garrantzia

Ibilgailuen eta oinezkoen aldi bereko eremu berrirako seinalea ere jarri dute bertan. Seinale hori duten bideetan gidariek beti eman behar diete lehentasuna oinezkoek, eta ibilgailuek –autoak, furgonetak, motorrak, patineteak, bizikletak...– seinaleek edo bide-marrek izendatutako lekuetan bakarrik aparkatu ahal izango dute.



Mikel Alcaide eta Narciso Pavo, Laskorain taldeko txandalarrekin. ESKORIATZA KE

Entrenatzaile laguntzaile gisa joango da Mikel Alcaide Tolosara

Mikel Alcaide eskoriatzarra Laskorain areto futbol taldeko entrenatzailearen laguntzailea izango da

I.B. ESKORIATZA

Mikel Alcaidek Eskoriatza areto futboleko Lurraldeko Bigarren Mailako taldearen entrenatzailea izan behar zuen, baina, denboraldia bukatu arte, Narciso Pavorekin batera Maila Nazionalen Bigarren Mailan ari den Laskorain taldeko entrenatzaile laguntzailea izateko erabakia hartu du.

Ikaskuntza prozesuari begira

COVID-19ak eragindako egoera bereziaren ondorioz, eta ikusita Eskoriatzako areto futbol taldearen ligak ez duela

hasiera datarik, Alcaidek Laskorain taldera joateko erabakia hartu du. "Pena pixka bat eman dit Eskoriatzatik joateak, baina kirol elkartetik ere animatu naute, eta, erronka berri bat izanda, gogotsu nago ahal dudanean heinean laguntzeko. Narcisok entrenamenduetan pixka bat laguntzeko eskatu zidan hasiera batean, eta, gero, Eskoriatzako eta Tolosako zuzendaritzek hitz egin zuten, eta fitxa egitea erabaki. Hala, joan den astean izan nintzen lehenengo partiduan, ofizialki, bigarren entrenatzaile".



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Aratuste-martitzeneko dantzak

Ohiturari jarraituz, martitzenean, Luis Ezeiza Herri Eskolakoek dantzak egin zituzten eskolako patioan. Hain zuzen ere, COVID-19ak eragindako talde-pertsonak omentzea izan da dantzetan oinarri izan zuten gaia. Hori horrela, garbitzaile, dendari, musikari, artista, aitona-amona... Askotariko moztarok ikusi ahal izan ziren.



Conrado eta Rodolfo, herrira iritsi berri.



Encinatarrak, ezkontza batean Goian, ezkerretik eskuinera, lehenengo gizona German, bigarrena Conrado, hirugarrena Gustavo, bosgarrena Gonzalo eta zortzigarrena Gumersindo. Eskuinaldean, zutik dagoen helduena, berriz, Margarita Pascual da –encinatarren ama–, eta bere atzean dagoena Hermelina Encina. ARGAZKIAK: ESKORIATZA IRUDITAN ETA GERMAN ENCINA

Alcanadre herritik Eskoriatzara, maitasun istorio batetik abiatuta

Encinatarrak 50eko hamarkadan iritsi ziren Alcanadretik Eskoriatzara. Ezagunak izan ziren, Errioxako ardoa bertara ekarri eta izan zituzten bodegetan saltzeagatik. Hala ere, horren guztiaren atzean bada ardoaren negoziotik haragoko istorioa: maitasunezkoa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Juanito Encinak eta Margarita Pascualek –Errioxako Alcanadre herriko bikotea– sei seme eta alaba bat izan zituzten –Gustavo, Rodolfo, Gonzalo, Gumer, Conrado, German eta Hermelina–. Bizitza aurrera ateratzeko asmoz, Eskoriatzara emigratu zuten, 1954an, Gonzalo bigarren seme nagusiaren musikaren zaletasuna aitzakia hartuta; baina, berez, Leintz Gatzagan ezagutu zuen emakume baten maitasunak bultzatuta abiatu zuten bidaia. Horrekin batera, Alcanadrecko ardoaren negozioa ere ekarri zuten, eta denbora gutxian encinatarren familiako zenbait kide errotu egin ziren Eskoriatzan; gaur arte, familia-ko zenbait kidek eta euren oinordekoek bertan bizitza dutela edo izan dutela da horren adierazgarri.

Gonzalo Encinak –bigarren seme nagusia– Errioxan zuen solfeo irakaslearen ikasgai guztiak jaso ostean, Arabako Flan-

des kuarterelara bidali zuten; garai hartan, musika banda militar entzutetsua zen han. Soldadutzan zegoela, saxofoia jotzen ikasten hasi zen, eta Jose Elejalde *Rafle* akordeoilaria ezagutu zuen –Karra Elejalde aktore ezagunaren aita–. Hala, zenbait erromeria egin zituzten biek Gasteizen, Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Otxandion eta inguruko beste zenbait herritan.

Maitasuna, ardoa eta abentura

German Encinak gogoan ditu Alcanadretik Eskoriatzara iritsi berritako egun haiek. Lehenengo, gurasoak beraien seme Gonzalorekin iritsi ziren, eta, bizimodu berri oparago baten bila, apurka-apurka, seme-alaba guztiak abenturara animatu ziren. "Berandu jakin genuen nire anaia Gonzalo erromerietan aritu zela eta horietako batean Gatzagako Olaun baserriko Teresa Sasiainekin maitemindu zela. Horrek bultzatu-

ta, gurasoak konbentzitu zituen anaiak Eskoriatzan bodega bat jartzeko, eta, bide batez, bere maitearengandik gertu egoteko. Hain zuzen ere, Bolibar elizatean izan genuen lehenengo bodega, Armendariz-Zubizarreta familiaren jabetzako lokal batean. Ardoa soltean saltzen zen bertan, txanbiletan eta botiletan, eguneko edozein unetan. Gurasoek esan zidatenez, Dionisio jaunak, gaur egun, Alcanadrecko Bodegas Gomez-Agirre izenekoaren jabeak, nire gurasoei lehen ardo kamioiak saldu ahala ordaintzeko aukera eman zien. Abantaila hori barik, ezin izango ziren nire gurasoak ezta gu ere Eskoriatzara etorri...", dio Germanek.

LEHENENGO BODEGA BOLIBAR ELIZATEAN EZARRI ZUTEN ENCINATARREN FAMILIAKOEK



Margarita Pascual eta Juanito Encina.

Bodegaren arrakasta

Ardoz betetako kamioi bakoitzak 10.000 litro ardo ekartzen zizkien. "Esan moduan, ardoa soltean saltzen genuen; litroa 50 zentimotan, garai hartan pezetatan, eta gogoan dut lehenengo kamioikada 20 edo 25 egunean saldu genuela". Ardoaren negozioa hasteaz batera, banan-banan anai-arreba guztiak Eskoriatzara iristen hasi ziren, ardo kamioiaren bidaiak aprobetxatuz.

Alcanadre izeneko taberna

Bolibarko bodega ireki eta hilabetera, Eskoriatzako Atxarena izeneko taberna alokatu zuten Juanito Encinak eta Margarita Pascualek, beraien bi semerekin, Gonzalorekin eta Gumerrekin, *El francés* izenez ezagunagoa zena, Irunen eta Hendaian urte askoz zerbitzari egoteagatik. Hala, Atxarena taberna hartu, eta Alcanadre izena jarri zioten. "Guri, seme-alabei, *Alcanadre tabernako*

semeak bezala ezagutzen gintuzten, eta nire gurasoak Juanito eta Margarita deitzetik Juan eta Margari deitzera pasa ziren. Lan asko egindako urteak izan ziren, baina baita poztasun handikoak ere, bezeroak lagunak ere baitziren. Garai hartan, Gatzagan ere ezarri genuen beste bodega bat, lokala, Elejalde familiaren jabetzako zena. Bertan, Jose Elejalde *Rafle* eta anaia Gonzalo erromerietan joaten zirenean, nire anaia Conrado eta Rodolfo zaintzen zuten bodega, Eskoriatzatik Gatzagara bizikletan igo eta jaitziz".

Gonzalo, musika bandan gidari

German Encinak gogoan du garai hartan bere anaia Gonzalori Eskoriatzako musika bandaren ardura eskaini ziotela, eta gutxira ezkondu zela Teresa Sasiainekin. "Aipamen eta esker on berezia merezi du gure koinatak, garai hartan emakume euskaldun gutxi ez-



Anton Iregi, Gonzalo Encina eta Raffle, Eskoriatzako Jose Arana kalean beheara.

kontzen baitziren kanpoko mutilekin. Zorionez, urte mordoa eman dute elkarrekin, baina, zoritxarrez, Terek aurten utzi gaitu, Gonzalok eta Enrique Lajarin koinatuak bezala".

Bertakoekin ezkondu

"Gustavo anaia nagusia Altsasuko Amparo Sueskunekin ezkondu zen; Bergaran ezagutu zuten elkar. Laugarren anaia, Rodolfo, M. Jose Oyon Nafarroako Sansol herrikoarekin ezkondu zen. Bigarren anaia, Gonzalo, esan moduan, Gatzagako Teresa Sasiainekin. Gumer Eskoriatzako Castañareseko M. Dolores Cusirekin ezkondu zen eta Conrado, Leonor Herreroarekin, arrasatearra zena. Gure ahizpa Hermelina, aldiz, Enrique Lajarin kantabriarrarekin ezkondu zen, Eskoriatzan bizi zena. Ni, gazteena izanda, pixka bat urrundu nintzen, eta M. Avelina Iñiguez de Ciriano gasteiztarrarekin ezkondu nintzen. Dolores, Rodolfo, Amparo, Enrique, Tere eta Gonzalo hilda daude eta besteok hor jarraitzen

dugu, Eskoriatzako oroitzapenez eta bizipenez beteta".

Rodolfo, maitatuena

Rodolfo Encina anaien artean ezagunena zela dio Germanek. Udalaren jabetzakoa zen La Cafeteria taberna izan zuen, eta baita *Sala de fiestas*-a ere... "Rodolfok honako hau adierazten zigun euskaldunetz eta eskoriatzarrez hitz egiten genuenean: 'Gonbidatu itzazu kontuz, %99ko gonbidapenarekin; izan ere, gonbidatutakoa biderkatuta itzuliko dizute hauek'".

Eskoriatza-Alcanadre, bizikletan

Hamaika orri idazteko adina istorio ere baditu encinatarrek sustatutako Eskoriatza-Alcanadre klasikoak. Bizikleta hartu, eta Eskoriatzatik Alcanadreraino bizikletan joateko erronka urte askoa egin zen, eta oso popular bilakatu zen. Hala ere, beste batean kontatzeko istorioa da, edo, agian, ez; kontatu ezineko istorioak ere izan daitezkeelako, beharbada.

Ate bakoitzaren historia, erretratueta islatuta

Juan Luis Zabalak Gatzagako ate eta arkupe guztiei argazkiak atera dizkie banan-banan. Guztira, 69 erretratatu atera ditu, eta guztiak batuz collagea egin du, poster eran, gertukoei opari gisa eskaintzeko. Emaitzarekin "pozik" agertu da bera

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako ate eta arkupe guztiei argazkiak atera dizkie Juan Luis Zabala *Mallabi* herrietarrak, gero, horiek batuz collagea egiteko. Guztira, 69 argazki batu ditu, nahiz eta ateren bat bildumatik kanpo utzi duen. Hala ere, herriko arkupeetatik hasi, eta elementu ezberdinekin josiak dauden herriko etxe zaharren ateetatik, modernoagoak diren artoakoak batu ditu. Argazki-sorta kanposantuaren sarreraren argazkia-ekin amaitu du.

Hiru egunez aritu da argazkiak ateratzen, eta, erretratatu nahi zituen ate guztiak gertu egonda, behin baino gehiagotan joan da atari batera edo bestera. Argazki guztiak banan-banan editatzeaz batera, collagea egin du, gertuko lagunei poster gisa oparitzeko. Lan horretarako, Nikon D3500 argazki kamerarekin aritu da; 10-20 mm-ko eta 18-55 mm-ko objektiboekin.

Elementuz betetako atekak

"Leintz Gatzaga Erdi Aroko herria dela esan dezakegu, bertan ditugun arkuetan atekak egon ziren arrastoak ere geratzen dira zenbait kasutan, eta etxebizitzaren atekak ere badituzte beraien arkuak, elementu ezber-



Juan Luis Zabala, ateei eta arkupeei ateratako argazkien collagearekin. IMANOL BELOKI

dinak, eguzki-loreak... Hori horrela, denei erretratuak ateratzea pentsatu nuen, eta gero, guztiei tamaina jaitsi, collage moduan batzeko eta poster bat egiteko. Emaitzarekin gustura geratu naiz, eta oparia egin die dan apurrek ere gustu handiz hartu dutela esango nuke...", adierazi du Juan Luis Zabalak.

Aztarnen historiak bultzatuta

Argazki sortan bilakaera bat ikusten da, eta, Zabalak dioen moduan, ate eta arku guztien atzean istorio handi bat dago:

"Ate bakoitzaren atzean unibertso bat dago, eta istorio asko batzen dituzten sententzioa sorrarazten dute hainbat erretratu. Horretan ez naiz murgildu, baina, argazki bakoitza aztertuz gero, sententzio ezberdinak sor daitezke, hori islatzen dute".

Posterra jasotzeko aukera

Poster gutxi batzuk inprimatu dituen arren, herritarren batek nahiko balu, berarekin harremanetan jarri besterik ez duela adierazi du Gatzagako ate eta arkuen bildumaren egileak.



Ekintzak zehazten

Sorginak Emakume Elkarteko kideak Martxoaren 8an egingo dituzten ekintzak antolatzeke batu dira. Besteak beste, Indai bergarako musika taldearen emanaldia izango dutela adostu zuten, hitzordua lotzeke. Horrekin batera, zapatu honetan izango den Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxaren bailarako ekitaldian parte hartuko dutela erabaki zuten.



SORGINAK EMAKUME ELKARTEA

Monzonen etxeko ateak irekiko dituzte martxoan

Martxoaren 9an, Telesforo Monzon hil zela 40 urte beteko dira, eta, urteurrena aitzakia hartuta, Olaso Dorrea Fundazioak eta Udalak bisita gidatuak antolatu dituzte, elkarlanean, martxoaren 13tik aurrera; hilean hiru bisita, eta izena eman behar da Laboratoriumen

Jokin Bereziartua BERGARA

"Etxea Euskal Herriari eta Bergarari nahi diot utzi. Biblioteka eta artxiboa ere badituzte. Hori-kin guztiekin eta jendeak emango duenarekin *fundaziño* bat nahi dut egin, eta hori bergararentzat eta Euskal Herriarentzat izatea nahi dut". Telesforo Monzonen hitzak dira, 1981eko martxoaren 9an hil baino lehen esandakoak eta gaur egungo Olaso Dorrea Fundazioaren hazi izan zirenak. Martxoaren 9an beteko dira 40 urte Monzon hil zela, eta, urteurren berezi horren bueltan, fundazioak eta Bergarako Udalak bi ekimen berri iragarri dituzte: batetik, martxoaren 13tik aurrera Olaso Dorrea egingo diren bisita gidatuak; eta, bestetik, aurten sortu duten *Monzon-Ganuz*a sariketa berria. Saria banatzeko ekitaldia martxoaren 9an egingo dute, Seminarixoa (18:00).

Turismo eskaintza osatzera

Fundazioko presidente Iratxe Esnaolaren arabera, bertako ondarea ezagutzera eman nahi dute, dorretxea bergararrei eta bisitariei irekiaz, eta, hala, Monzonen nahiari erantzunez. Gorka Artola alkatea ere pozik azaldu zen akordioarekin: "Oso interesgarria den turismo es-



Olaso Dorrearen lehen solairua; martxoaren 13tik aurrera, publikoari zabalik. J.B.

kaintza zabaltzera datoz bisita gidatu hauek, eta espero dugu herritarren nahiak asebeteko dituela. Udalak turismoa eta kultura herrian bultzatzeko duen asmoarekin bat egiten duen egitasmoa da hau, herri honek duen ondarea ahal den heinean erakusgai jarri eta bisitatzeko aukera eskainiz". Bi aldean artean adostu da Laboratorium museoa ikusteko aukerarekin batera Olasora bisita gidatua ere egiteko aukera ematea. Martxoaren 13tik aurrera egingo dira bisitak; lau euro ordaindu

beharko dira eta bertan parte hartu nahi dutenek Laboratoriumen egin beharko dute eskaera. Hilean hiru bisita eskainiko dira, horietako bi euskaraz eta bat gaztelaniaz, ordu eta erdi inguruko iraupena izango dute eta taldeek gehienez 12 pertsonakoak izan beharko dute.

Balio historiko handiko dorrea

Bisita gidatu horiek antolatu izanaren garrantzia azpimarratu du Artolak: "Oso garrantzitsuak dira, Olaso Dorreak ordezkatzen duen denagatik. Fran-



Gorka Artola eta Iratxe Esnaola, *Monzon-Ganuz*a sariaren berri ematen. J.B.

'Monzon-Ganuz

Bisita gidatuekin batera, *Monzon-Ganuz*a sariketa ere antolatu dute: "*Monzon-Ganuz*a sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi ditugu; saria erabakitzeke unean, kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak, hala nola herri honekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emandako lehenetsuna, Nafarroak euskal historian izan duen garrantzia eta batasunaren balioa". 2021eko saria Libe Goñi Garatek jasoko du, besteak beste, Ipar Euskal Herriko lehen andereñoa izan zenak: "Euskal Herriak eta euskarak XX. mendearen bigarren erdialdetik gaurdaino izan duen berpizkundearen eta bizirik irauteko borrokaren adierazle bizia dugu". Saria obra artistiko bat izango da, urtero euskal artista bati eskainiko zaiona; artistari 3.500 euro ordainduko zaizkio.

kismo garaiko jazarpenaz, ondasunen konfiskatzeaz eta osteo itzuleraz aparte, balio historiko izugarria duen eraikina da; Bergaran Ilustrazioak izan zuen eragina handia izan bazen, hemen ereindako hazi bati esker izan zen, besteak beste". Ezin da ahaztu 1494an eraiki zen dorre horretan egin zela, Peñafloredako konde Xabier Maria Munibek bultzatuta, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen lehen bilera, 1764an. Hain zuzen, elkartearen lehen ekintza garrantzitsuenetako bat Berga-

rako Errege Mintegia sortzea izan zen, 1776an, eta ikerketaren eta irakaskuntzaren aitzindaria izan zen Euskal Herrian. 1778an, kimika-laborategi bat ireki zuten eta laborategi horretan isolatu zuten wolframa Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek, 1783an.

HILEAN HIRU BISITA: BI EUSKARAZ ETA BAT GAZTELANIAZ, ETA BISITA BAKOITZEKO 12 LAGUN, GEHIENEZ

Koldo Eleizalde lehiaketak: ireki dute deialdia, apirilaren 16ra arte

Euskara Zerbitzuak 36. aldiz antolatu du sariketa; maiatzaren 29an banatzeko dituzte sariak, Seminarixoa

J.B. BERGARA

Udaleko Euskara Zerbitzuak aurten 36. aldiz antolatu ditu Koldo Eleizalde lehiaketak, eta izena emateko aukera dago dagoeneko. 36. edizio honetarako lau genero edo genero-multzotako lanak aurkez daitezke: ipuin idatzia eta poesia; komikia; bertsoa; eta kontakizuna eta interpretazioa. Azken multzo horren barruan hauek berezitu dituzte antolatzaileek: antzerkia, bakarriketa, ipuin-

kontaketa eta txiste edo umorezko pasadizoen kontaketa: "Oso komenigarria da parte hartuko duzun generokoak, bereziki, ondo irakurtzea". Ikus-entzunezko lanak –antzerkia, ipuin-kontatua, bakarriketa, bertso kantatua, txisteak...– sare bidez aurkeztu beharko dira, euskarako webgunea erabiliz, helbide honetan: <https://euskara.bergara.eus/eu/koldo-eleizalde-lehiaketan-partehartzeko-orria>. Idatzizko lanak –ipuin idatzia, poesia, komikia,

bertso idatzia...–, berriz, papelean, Bergararren Arreta Zerbitzuan, edo, modu telematikoa, webgunearen bitartez.

Oinarriak eta lanak, Interneten

Lehiaketen oinarri guztiak eta bestelako azalpenak ere webgunean berean daude, helbide honetan: <https://euskara.bergara.eus/eu/koldo-eleizalde-lehiaketa>. Saritutako lan idatziekin liburua argitaratu eta ikastetxeetan banatu ohi da. Bestalde, webgunean daude 2009az geroztiko ikus-

entzunezko lanen grabazioak: antzerki eta ipuin-kontaktak, bertsoak, txisteak, irratsaioak... Honako lotura honetan dago horiek ikusteko eta entzuteko aukera: <https://euskara.bergara.eus/eu/node/208578>.

Hain zuzen ere, epaimahaia Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonak osatuko dute eta lanak entregatu behar dira apirilaren 16a baino lehen. Sariak banatzeko ekitaldia maiatzaren 29an egingo da, Seminarixoa (12:00).



Ane Jauregi, Peio Belastegi, Oihan Ibarra eta Ana Sebal, Arranon egindako hitzaldian, eguazten iluntzean. JOKIN BEREZIARTUA

"Epaia irmoa da, eta argi dugu itxi egingo dutela"

'Herrikoen auzia' salatu eta gaia "kalean presente" egon dadin, hitzaldia egin zuten Peio Belastegik, Ana Sebalek, Ane Jauregik eta Oihan Ibarrek, belaunaldi ezberdinetan "Arranoren eta Artatseren parte" izan diren herritarrak; beste bi ekitaldi ere izango dira otsailean zehar

Jokin Bereziartua BERGARA
Herrikoen auzia-ren barruan, Bergarako Arrano taberna eta Artatse elkarte dira Debagoienean ixteko arriskuan dauden bi lokalak. "Epaia irmoa da eta Gabonetan dirua kendu ziguten enbargatutako kontu korrontetik. Ez dakigu noiz etorriko diren ixtera, baina argi dugu itxi egingo dutela; politikoki interesatzen zaienean, seguruenik. Horregatik antolatu dugu hilabete osorako egitarau bat, jendeak presente izan dezan epaiak hor jarraitzen duela eta Arrano eta Artatse bizirik mantendu behar ditugula", adierazi du antolatzaileetako bat den Oier Aperribaik.

"Transmisiorako" balio izan zuen
Hala, eguaztenerako hitzaldia antolatu zuten belaunaldi ezberdinetan zehar "Arranoren eta Artatseren parte" izan diren lau herritarrekin: Peio Belastegi, Ana Sebal, Ane Jauregi eta Oihan Ibarra. Entzuleen artean gazte bergararrak izan ziren nagusi, eta antolatzaileak zein hizlariak pozik geratu ziren, saioak "historiaren transmisiorako" balio izan zuela iritzita. Hizlarien

artean zaharrenak, Peio Belastegik, besteak beste, errepresioa "askoz inteligenteagoa" dela esan zuen: "Franco bizi zenean, errepresioa oso bortitza baina oso zuzena zen. Hau da, manifestazio batean egurra jaso zenezakeen, baina hor geratzen zen kontua, gehienetan. Orain, ez badago istilurik ez dago atxiloketarik, baina ondoren heltzen dira ziztasioak, eta presoan aldeko kartel bat eroategatik kartzelara joan zaitezke. Ez sinistekoa da".

Jaialdirako sarrerak salgai

Hilaren 24an beste hitzaldi bat izango dute Arranon (18:00); Txema Matanzas abokatua eta Aitziber Plazaola preso ohia gonbidatu dituzte. Eta hilaren 27rako, elkartasun jaialdia antolatu dute udal pilotalekuan: Indai eta Talka musika taldeek emanaldi akustikoak egingo dituzte, Moises Azpiazu taldeko dantzariak egongo dira eta beste herritar batzuk ere igoko dira oholtzara. Sarrerak salgai daude dagoeneko, hamar eurotan, Arrano tabernan; 300 sarrera jarriko dituzte salgai eta atea 17:00etan irekiko dituzte.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e. arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inporkia jami nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zentekira.

"Iraute-fase baten gaude, inor ez dadin kutsatu"

KEPA GOIKOETXEA ASPACEKO IKASTETXEETAKO ZUZENDARIA

Udalak eta Aspacek hitzarmen bidez aspaldiko elkarlana ofizialtzearekin "pozik", birusak euren jarduna "izugarri" mugatu duela dio Goikoetxeak: "Ezin gara inorekin nahastu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Aspacek Ibaiondo kalean duen eskolan izan zen martitzenean Kepa Goikoetxea (Tolosa, 1968), Udaleko ordezkariarekin egindako bisita gidatzen; gaur-gaurkoz, sei ikasle eta bost langile dituzte, 09:00etatik 17:00etara. Bisitareren ostean Goikoetxearekin egon da GOIENA; oraindik Aspaceren jarduna bistartzeko "lan handia" dagoela dio, besteak beste.

Udalarekin hitzarmena sinatu berri duzue. Zein da helburua?

Aspacek Bergaran lehen zentroa 1979an ireki zuen eta Ibaiondo kaleko eraikina garun-paralasia dutenei begira eskola moduan ari da funtzionatzen 2009a ezkeror; urte hartan, obra handi bat egin zen, eraikina eskolak ematera egokitzeko, eta, orain dela gutxi, beste konponketa-lan batzuk egin dira. Hala ere, ez zegoen konstantziarik idatziz Aspaceren eta Udalaren arteko aspaldiko elkarlana islatzen duena. Hitzarmena pauso garrantzitsua izan da harreman hori ofizialtzeko.

Zein beste aukera ematen dizue sinatu berri duzuen hitzarmenak?

Hitzarmenari esker, Aspace integratuago egongo da Bergarako egunerokotasunean. Adibide bat jartzearren: hitzarmenaren aurretik, umeendako herri mailan antolatzen ziren ekimenetan ez genuen sekula parte hartzen. Honekin ez dut esan nahi Udalaren errua denik, bi aldeon erantzukizuna izan da. Kontua da Aspaceko ikastetxeetako zuzendari izan aurretik, duela bi urte pasa, Laskurain ikastolako ikasketaburu izan nintzela ia hogeituzte, eta oso ohituta nengoela Udalarekin lan egitera. Aspacera heltzean, eskola genuen herrietako udalekin hasi nintzen harremanetan jartzen, eta ohar-tu nintzen Bergararen kasuan ia ez zutela gure jardunaren konstantziarik. Egoera horri buelta ematen hasiko gara hitzarmenari esker.



Aspaceren eskoletako arduraduna da Kepa Goikoetxea, duela bi urtetik. ASPACE

"PANDEMIAN EZIN DUGU PROIEKTU KOMUNIK GARATU; HORI OSO LATZA DA GURE IKASLEENTZAT"

Zuen lana bistartzeko balioko du...

Hori ere bada gure helburua, Bergarako egunerokoan parte hartzea. Pandemiaren erruz ezin dugu ezertan parte hartu, baina hemen gaudela erakutsi behar dugu; gainerako ikasleek dituzten eskubide berberak dituzte gurek, eta haien gizarteratzea denon erantzukizuna da.

Ibaiondon eskolak, eta Oxirondon?

20 urtetik gorakoendako eguneko zentroa da Oxirondokoa. Gipuzkoan eskolak ditugu Eibarren, Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan. Lau horietatik, Eibarrean eta Bergarakoan gu bakarrik gaude eta Arrasateko institutuan zein Eskoriatzako Luis Ezeizan gela egonkor bana dugu.

Nola eragin dizue pandemiak?

Are mugatuagoa da gure egunerokoa. Gela bakoitza burbuila bat da, besteekin nahasten ez dena, eta horrek muga handiak

ekarri dizkigu. Bizirik irauteko fasean gaude, ez kutsatzea da erabateko lehentasuna. Ez dugu kanpoko irteera edo ekintzarik; irteten gara kalera, baina burbuilatik kanpoko inorekin nahastu gabe. Hain justu ere, gure ikasleentzat eta haien familientzat aberasgarriena da garun-paralasia ez duten pertsonekin lan egitea. COVID-19ak ekarri digu ezin dugula proiektu komunikatu garatu inorekin, eta hori oso latza da; izan ere, gure ikasleak oso jende gutxik ezagutzen ditu, apenas dute agerikotasunik eta partaidetza oso mugatua dute.

Izan duzue kutsatzerik eskoletan?

Positiboren bat izan dugu, baina kutsatzerik ez da gertatu gure inongo ikastetxetan; zerbait ondo egiten ari gara. Izan ere, gure ikasleek ezin dute musukoa soinean eramanez, eta, egoera arriskutsuagoa izanda, ez da kutsatzerik izan. Gainera, eperik ez badago ere, heziketa berezian lanean ari garen erakundeoi esan digute gure ikasleek eta langileek txertoa jasotzerakoan lehentasuna izango dutela. Ezin da ahaztu garun-paralasiak eraginda arazo fisiko larriak ere izaten dituztela.



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Bigarren maillako hirittarrak

Txikittan, hillian behin Bergaresa autobusa hartu eta Donostiara juaten nintzan amakin. Herri guztietatik pasatzen giñan: Antzuola, Zumarraga, Beasain, Legorreta... Tolosako karabana luze harek nere goguan jarraitzen dabe. Gaztetan, ikasle bergararrak kontserbatorixora juaten giñan, eta, Elgoibartik Donostiarako autopistia aurrezteko, Deskargatik juaten giñan. Tolosa-Donostia, Legorreta-Tolosa, Beasain-Legorreta... zabalduko tramu berri guztiak ospatu giñuzen. Lanian hasiberri, Bergara-Zumarraga ibilbidia astian hiru aldiz egittia tokau jaten, eta ixa 25 urte eguaztenero Tolosara bidaiatzen. Etxafleruak bota giñuzen Zumarraga-Beasain autobidida zabaldu zebenian. Donostia gertuago zeuan. Bittartian, autopista egin zoskuen Gasteizera eroso juateko. Hori bai, peajia ordainduz. Bergara-Zumarraga autobididaren obrak hasi zienian be ospatu giñuan. Kostau jakuen bukatzia! Oin, gure hiribururako bidia eroso eta seguru erabiltziagatik, ordaintzia tokatzen jaku; Beasaindik aurrera bizi dien gipuzkoarrei, ez. Zerga berdiñekin, zergaittik batzuk ordaindu? Bigarren maillako hirittarrak gara?



IMANOL SORIANO

Ekida: gazte ugari aurkezpenean

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistaren eskutik, Ekida egitasmoa aurkeztu zuten otsailaren 12an Zubietako eskola zaharrean. "Sozialisten kultura ekimen bat" da, kritiko dira-eta gaur egungo gizartearen "nagusi" den kultura ulertzeko erarekin. Ekidakoek aurkezpen gehiago egingo dituzte herriz herri eta Kontseilu Sozialistakoek eskolan ekintzak antolatzen jarraitu nahi dute.

OHARRAK

'Kaleak argitzen' dokumentalaren aurkezpena

Gipuzkoako modak izan duen bilakaera aztertzen duen ikus-entzunezkoa gaur ikusi ahalko da Seminarixoan, 18:00etan.

'Bergara herri hezitzailea' hitzaldiak

Martxoaren 4an, *Jolasaren garrantzia eta herri hezitzaileak* saioa; hizlaria izango da Olgetako sortzaile Itsaso Pagoaga. Martxoaren 11n, *Herri hezitzailea ikuspegi pedagogikotik harago* saioa; hizlaria izango da Hiritik At kooperatibako kide Ibai Esteibarlanda. Seminarixoan izango dira bi saioak, 18:00etan.

Hitzaldia: 'Okupazioaren kontrako ofentsiba'

Gaur, otsailak 19, Zubietako eskola zaharrean (18:00).

Mikel Linazisoro, *Il domani* eskalatzeko. EITB

'Il domani' ez du biharko utzi Mikel Linazisorok

2003an jarri zion Baltzolako 9a zailtasuneko bide horri izena Patxi Usobiaga eibartarrak. Ondoren, goi mailako zenbait eskalatailek baino ez dute igo bide hori, eta Bergarakoak Gabonetan lortu zuen txikitatik zuen ametsa

Xabier Urzelai BERGARA

Txapelketak etenda, eta Japoniako Olinpiar Jokoen gainean galdera ikur galanta dagoen honetan, Mikel Linazisorok (Bergara, 2000) aparkatuta zituen beste amets batzuei heldu die: harkaitzean maila goreneko bideak eskalatzeari, hain zuzen. Eta hor, txikitatik zuen ametsa bete ahal izan zuen 2020a amaitzeko egun gutxi geratzen zire-

la: Baltzolako (Araba) *Il domani* (9a) bidea eskalatu zuen Gabonetan.

Patxi Usobiaga eibartarrak 2003an ireki zuen bide hori, eta, akaso, hortik jarri zion izena, ahaleginaren ahaleginez lortu ez eta zera esaten ziolako egunaren amaieran bere buruari, "biharko utziko dut"; alegia, *Il domani*. Linazisorok, baina, ez du biharko utzi: "Txikitatik izan

dudan ametsa da bide hori igozteza. Euskal Herriko bide zailenetakoa izango da, eta Espainia osoan ere ez daude asko bide hori baino zailagoak direnak. Gainera, bide oso esanguratsu bilakatu da".

Esan bezala, *Il domani* Patxi Usobiagaren proiektua da. Eskalataile eibartarrak 2002an prestatu zuen bidea, eta hurrengo urtean (2003) lortu zuen igozteza.

Ondoren, Iker Pou eta Iban Larrioren puntako eskalataileek igo zuten, eta 2013an beste debagoien-dar bat, Ander Lasagabaster arrasatearra, aukeratuen taldean sartu zen. Eta denek berretsi zuten Usobiagak bere egunean bideari ezarri zion 9a zailtasuneko gradua. *Il domani*-ri, baina, beste bultzada bat geratzen zitzaion nazioartean are eta entzute-suago bilakatzeko: "Adam Ondra munduko eskalataile onena da, eta bide hori lehenengo saiakeran igozteza lortu zuen [2014]. Hori izugarri zaila da, eta Ondrak ere bat egin zuen 9a graduko zailtasuna zuela esanez. Bada, eskalada hark oihartzun handiagoa eman zion Baltzolako bide horri, eta nik begiz jota neukan, aspaldidanik. Hala, poztasun galanta hartu nuen ametsa gauzatu nuenean; gainera, kosta egin zitzaidan *Il domani* egitea, eta gora iritsi nintzeneko poztasun galanta hartu nuen".

Harkaitza, ihesbide ona

Begararrak azken urteotan txapelketetan jarri du fokua, baina pandemia tarteko nazioarteko txapelketak bertan behera geratu dira eta begararrak harkaitzean bilatu du ihesbidea, eta baita aurkitu ere. *Il domani* igo aurretik beste proiektu batzuk gauzatu zituen Baltzolan; *Obaba* (9a), esaterako. Hala, igoera hauekin, dagoeneko harkaitzean zenbait bide esanguratsu egin ditu: *Begi puntuan* (9a, 2016an), *4x4* (8c+/9a, Atxarten, 2017an), eta *Tas tas* (8c+/9a, Baltzolan, 2020ko udan). Eta 2021era begira garbi dauka ez dituela hor egin beharreko lan guztiak amaitu: "Hurrengo erronka izango da 9a+ zailtasuneko bide bat egitea; alegia, zailtasun graduan koska txiki bat gora egitea. Hala, Eus-

kal Herrian pare bat bide baino ez daude zailtasun hori dutenak, eta horietako bat Baltzolan bertan dago, *Il domani*-tik pare bat metrora. *Iñi Ameriketean* dauka izena eta erronka handia izango da, horretan ibiliko gara aurten lanean".

Non dago aldea?

Maila hain zorrotzeko bideak egiterakoan, gradu erdiko aldea non egon daitekeen azaldu du Bergarakoak: "Motibo askorengatik izan daiteke bide bat bestea baino apur bat gogorragoa. Bidea bera apur bat luzeagoa delako eta erresistentzia handiagoa eskatzen duelako, paso erabakigarriak zailtasun tekniko edo fisiko handiagoa duelako, halakoak izaten dira kontuan".

Munduko Kopara begira

2021ak, oraingoz, txapelketei begira ez du iazkoak baino itxura hobe, nahiz eta Linazisorok ez duen esperantzarik galdu. "Espainiako Kopako hitzorduak oraingo hilean bertan hasi behar genituen, eta horiek urte amaierara atzeratu dituzte, pentsatuz orduan egoera hobean egongo garela. Orain momentuan, Munduko Kopako probetan daukat jarrita esperantza. Akaso, Munduko Kopa egingo duten lurraldeetan COVID-19aren egoera hobe izango da, eta hitzordu horiek antolatzeke hemen baino baliabide gehiago izaten dituzte; horrenbestez, hor daukat esperantza".

'IL DOMANI' IGOTA, BALTZOLAN BERTAN DAGOEN 'IÑI AMERIKETAN' DU ORAIN BEGIZ JOTA

Lokatzak atzeratu egingo du taldeen aurkezpen ekitaldia

Osasun arrazoiak tarteko, gurago dute denboraldiari hasiera ematen dion hitzordua aurrerago egin

X.U. BERGARA

Urtero-urtero kalerik egiten ez duen hitzordua izaten da, txirrindularitza denboraldia hasiera doala erakusten duen seinalea. Lokatzak, Dorletako Amak eta Aloña Mendik otsaila apro-

betxatzen dute klubean dituzten ziklistak erakusteko, arropa aurkezteko eta babesleei urtero egiten duten esfortzua eskertzeko. Aurten, baina, otsaila ez da aukeratutako hilabetea izango: "Lokatzako kategoria txikitetan

selektzio moduko bat daukagu, Debagoieneko herri askotako ordezkariak ditugu, eta erabaki dugu ez dela urtero egiten dugun talde erretratua egiteko momentu egokia, ez da jendea batzen hasteko momentu onena", adierazi du Lokatza Ziklismo Eskolako harrobiarekin lanean dabilen Iñigo Larrañagak.

40 txirrindulari izango dituzte

Begarako txirrindulariekin batera klubeko harrobian batu dituzte Aramaioko txirrindula-

riak, Antzuolakoak, Arrasatekoak, Elgetakoak eta Eskoriatzakoak: "Pentsa eurretako bakoitzari Bergarara aurkezpen ekitaldia egiteko baimenak tramitatzen hasteak zer dakarren. Ez du merezi, eta, gainera, gure babeslearekin ere berba egin gura dugu, aurtengo ekitaldia noiz eta zelan egin erabakitzeke; aurrerago egongo da horretarako aukera".

Txirrindulariak martxoan hasiko dira lasterketetan esku hartzen, nahiz eta oraindik ere

lasterketetako antolatzaileak ziurgabetasun egoera handian dauden. Lokatzak, berriz, nabarmentzeko moduko nobedadea du aurten: "Elite mailan emakumezko txirrindulariak izango ditugu. Arrasateko Eneritz Urrutia eta Bergarako Olatz Gabilondo taldera batu dira eta gure babesle izango dute Euskaldun Sarian, Espainiako Kopan eta halako lasterketetan. Askatasun osoa eman diegu, eta ea etorkizunean neska gehiago animatzen diren".

Bertso-trama eta liburu aurkezpena asteburuan

Gaur bertan egingo du Jon Alonso idazleak bere azken lanaren aurkezpen saioa, 19:00etan, Angiolillo liburutegiaren eskutik. Etziko, aldiz, bertso-trama antolatu dute; Jokin Bergara, Eli Pagola, Amaia Iturriotz eta Maider Arregi izango dira bertan

Jone Olabarria BERGARA

Bi hitzordu hartuko ditu aste-buru honetan Bergarako kartzela zaharrak: bata gaur, egubakoitza, eta bestea domekan. Angiolillo liburutegiak antolatutako liburu aurkezpen saioa gaur izango da, 19:00etan, eta Jon Alonso idazleak hartuko du hitza bertan. Domekarako, aldiz, bertso-trama antolatu du Kopla Barik bertso eskolak, asteburuari amaiera emateko "plan ederra", 18:00etan.

Sarrerak, domekan bertan

Jokin Bergara, Eli Pagola, Amaia Iturriotz eta Maider Arregi bertotan ikusi eta entzuteko aukera egongo da. Sarrerak hiru eurotan salgai egongo direla zehaztu dute antolakuntzatik, saioaren egunean bertan, 17:00etatik aurrera. Edukiera mugatua dela gogorazi dute, COVID-19a dela-eta segurtasun neurriak betetzeko asmotan.

Bertsoen aldeko apustua

Kopla Barik bertso eskolak azken hilabeteetan "apustu irmoa" egin nahi izan du bertsoaritzaren alde: "Irailetik urtarrilera bitartean lau bertso saio antolatu ditugu Bergaran; bata irailean, beste bat urri partean, Gabonetakoa eta Seminarixoa eginda



Kartzela zaharra, segurtasun neurriak betetzeko moldatuta. K.B.

BERTSO-TRAMARAKO SARRERAK EGUNEAN BERTAN ESKURA DAITEZKE KARTZELA ZAHARREAN, 17:00ETAN

ko saioa, esaterako. Azken batean, horixe da asmoa, herritarrei kultura aukera zabala eskaintzea eta, bide batez, denbora askoan geratuta egon behar izan duten bertsoariek plaza bat ematea".

Edukiera, 35 lagunentzat

Jon Alonso idazle arituko da gaur kartzela zaharrean, Angiolillo liburutegiak antolatuta. Bere azken lanaren *-Naparra. Kasu irekia-* nondik norakoak azaltzen izango da bertan idazlea. Tene Mujika sariaren laguntzaz idatzitako liburua da Alonsorena. Segurtasun neurriak bermatzeko edukiera 35 pertsonatara mugatua egongo dela jakinarazi du Angiolillo liburutegiak, eta sarrera lortzeko kasuirekia@gmail.com helbidera mezua bidali behar da.



Emon osatzen dute zazpi kideak, tartean Biken Larrañaga kide berria dela. EMON

Sarrera guztiak agortuta itzuliko da Emon bihar Seminarixora

Itzulera gertatzen dihardute azken hilabeteetan; biharko emanaldiaren ostean gehiago egitea aurreikusten dute

T.M./J.O. BERGARA

Lau urte baino gehiago pasatu dira 2016ko azarotik, lau urte baino gehiago Emon taldeak azken kontzertua eman zuenetik. Argentinan igo zen zazpikotea azkenengo aldiz agertoki baten gainera... Itzulera, baina, gertuago izango da: zapatu honetan bertan kontzertua eskainiko du Emonek Bergarako Seminarixoa. Iazko urte hasieran piztu zitzaizen itzultzeko ideia: "Gure teknikariak ezkondu egin behar zuten, eta eskatu zigun bere ezkontzan pare bat abesti jotzeko. Orduan, berriz hasi ginen entseguetan, eta jotzeko gogoia ere itzuli zen".

Pandemiak atzeratu egin du taldearen itzulera, eta badirudi zaleen gosea handitu egin dela horrek, zapatuko kontzerturako sarrera guztiak agortu dira eta. Taldekideek diote emanaldirako "gogoz eta urduri" dau-

del, baita, egoera berezian izango den arren, "indartsu" ere.

Kide eta kantu berriak

Kantuen aldetik aurreko lanetan agertutakoak joko badituzte ere, estreinaldien eguna ere izango da zapatuko. Abesti berri bat aurkeztuko dute jendaurrean, eta kide berri bat ere igoko da taldearekin agertokira: Biken Larrañaga gitarra jole bergararra. Udan jaso zuen aurretik zale moduan jarraitzen zuten taldeko kide izateko gonbidapena: "Gazteagoa nintzenez, due-la lau urte, ni zalea nintzen, kontzertuetara joaten nintzen. Agertoki azpian egoten nintzen, eta orain, taula gainera salto egitea ohorea da. Oso gustura nago beraiekin".

Taldea ez da zapatuko emanaldira mugatuko: "Kontzertua pasa ostean mugitzen hasi eta leku gehiagotan jo nahi dugu".

'Naparra' eta familia, istorioan nagusi

Alonsok "ikerketa sakona" egin du 1980an desagertu zen Jose Miguel Etxeberria Alvarez *Naparra*, Komando Autonomo Antikapitalistekako militanteari buruz: "Bi kasu hartu behar ditugu aintzat: bata, indarrez desagerrarazi zuten borrokalariaren historia lazarria; eta bestea, semearen arrastoaren bila berrogei urtez jardun duen familiaren historia".



Jon Alonso idazlea, *Naparra. Kasu Irekia* liburua atzean duela. J.Z.

Salgai daude martxoko kultur ekitaldietako sarrerak

Bergarako Udalak jakinarazi duenez, dagoeneko eros daitezke herrian martxoan izango diren kultur ekitaldietarako sarrerak. Seminarixoko leihaitan eskura daitezke, ostegunetan 18:00etatik 20:00etara, eta seminarixoa.eus webgunearan bitartez. Hala, datorren hilean bi antzerki saio egitea aurreikusten dute Seminarixoa: mar-

txoaren 6an, 19:00etan, *Yo nunca* helduentzat antzerkia izango da; eta martxoaren 20an, 19:00etan, *Gu Primer!*

Martxoaren 12rako, 19:00etarako, *The Moon rings* kontzertua antolatu dute eta martxoaren 19rako, 18:00etarako, *Ekain Txou Kloun* ikuskizuna. Erramu Zapatu bezperako bertso saiorako sarrerak ere eskuratu daitezke; martxoaren 26an egingo dute. Nerea Elustondo, Amets Arzallus, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Xabier Silveira izango dira.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



**%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU**

HALA BAZAN

EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ATB-REN ARTXIBOTIK TIRAKA

90EKO HAMARKADA HASIERAKO GIZARTEA, POLITIKA, KULTURA, HEZKUNTZA,...

**Hala bazan, eta bai, bazan, sar dadila kalabazan eta
Atera dadila 30 urte geroago... Goienako plazan!**



goiena

Zu hemen zaude.



Bi herriek egindako kabalkada 2019an. ANTZUOLAKO UDALA

Kabalkada berreskuratu eta biziarrazteko asmoz

Aiherran 2019an egin zuten kabalkada eskainiko dute Torresoroan bihar. Tartean, Oinarin taldekoen emanaldia izango da ikusgai. Sarrera doakoa da, baina aurrez egin behar da erreserba, 'labur.eus/sarrerakantzuola' atarian nahiz liburutegira joanda

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuola eta Aiherra herrien arteko senidetzeak ez dauka lortu ezin dezakeen erronkarik. Bi herriek oraindik gogoan dute 2019an elkarrekin egin zuten kabalkada. 140 kilometrok bantzen dituzten arren Antzuola eta Aiherra, koordinazioari esker posible izan zen kabalkada antolatzea. Mikel Bargiela Kultura zinegotziak gogoan du bitakoa. "Dantza, kantua, antzerkia eta hizkuntza batzen dituen ikuskizuna oso gustura ikusi genuen, giro ederra lagun".

Izan ere, ez da erraza horrelako emanaldi baterako koordinazioa aurrera eramatea. Oinarin taldea izan zen Antzuolaren ordezkarietako bat. "Esperientzia polita izan zen; beste herri batzuetara joan izan gara dantza egitera, baina hau desberdina izan da. Halako ikuskizun bat egiteko aihertarrak gurekin kontatu izanak asko poztu gaitu. Pandemia hau amaitzean espero dugu berriz jarraitzea gure

dantza entseguen eta aurrez geneuzkan planekin", adierazi du Oinarinek. "Belaunaldi berriek jarraipena ematea ere bada gure asmoa, eta Oinarinekin batera Aitzol Iturbek bertsoak ekaini zituen saioan", gaineratu du Mikel Bargielak.

Euskarari lehentasuna

Adin tarte zabaleko 200 herritarrek baino gehiagok parte hartu zuten kabalkadan; batzuk euskaldun zaharrak ziren; beste batzuk, ordea, euskarara gerturatu hasi berriak. Garbi izan dute aihertarrek, ordea, esperientzia hau euskara hutsean bizi nahi izan dutela.

Aiherrako jai batzordeak eta Belzuntze elkarteak ekitaldiak

**ORAIN 37 URTE
EREINDAKO HAZIAK
ETA BIDEAK URTETIK
URTERA FRUITUAK
EMATEN DIHARDU**

antolatzen jardun izan duten arren, ez zuten kabalkada sekula antolatu. Erronka handia izan zela herriarentzat aitortu zuen orduan dantza zuzendari Letizia Lartiguenek. Antzerkia Xamu Biscay eta Manex Fuchsek gidatu zuten. Modu horretan, 2019ko irailean kabalkadaren giroa berreskuratu eta biziarrazi zuten bi herrien elkarlanak.

Senidetzea, indarrean

Orain dela 37 urte ereindako haziak eman ditu fruituak, eta, kabalkadari esker, bi herrien arteko senidetzea indartu egin da. Pandemiak ospakizunetarako bide ematen ez duen arren, gaur-gaurkoz, Udalak harreman horri eutsi eta ekimen berriak sustatzeko asmoa duela dio.

Hala, bihar, zapatua, antzuolarrek kabalkada ikusteko aukera izango dute, Torresoroa aretoan, arratsaldeko seietan hasita. Sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, online edo liburutegira joanda.

"Lodi-aktibismoaz eta lodifobiaz" jardungo dute

Mijo Lizarzaburu aktibistak lodifobiaren ertzak aztertuko ditu hilaren 27an Torresoroa aretoan, 11:00etan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Egunaren harira, gorputz subertsiboen politika izango dute aztergai. Puri-puritan dagoen "lodi aktibismoaz eta lodifobiaz" jardungo du Mijo Lizarzaburuk otsailaren 27an, zapatuan, Torresoroa aretoan 11:00etan; sarrerak aurrez erreserbatu behar dira, liburutegira joanda edo mezu bat bidalita andrmanuelak@hotmail.com helbide elektronikora.

Loditasunaren auzia "auzi politikoa" dela dio Mijo Lizar-

zaburuk. Izan ere, lodi-aktibismoak gorputz heterosexual, funtzional, argal, zuri eta ederrek gaur-gaurkoz gizartean duten normaltasuna apurtzea duela helburu dio. Sare sozialen, mugikorren eta irudiaren testuinguruan, gorputz lodiek bizi duten atakaz ere jardungo du Lizarzaburuk.

Heteropatriarkatuak eta kapitalismoak duten eragin zuzena emakumearen gorputzean ere aztertuko dute solasaldi parte hartzailean datorren otsailaren 7an, Torresoroan.

**Herriko gaztetxoak
Arrola mendira
joango dira goiz-pasa**

Gazte txokoak antolatuta, mendira irteera egingo dute otsailaren 27an, zapatua. Aurrez eman behar dute neska, mutikoen izena, Instagramez [@antzuolakogaztetxokua](https://www.instagram.com/antzuolakogaztetxokua); postaz adolazgaztetxokoa@gmail.com; edo Xinkona dendan, bertara joanda. Asmoa da 08:45ean elkartu eta Antiguako autobus geltokitik abiatzea, osasun neurri guztiak bermatuta.

**Podologia zerbitzua
Landatxoeko
lokalera itzuli da**

Udalak eta elkartearen zuzendaritzak zerbitzua prestatzeko behar diren segurtasun neurriak finkatu dituzte, erabiltzaile guztien osasuna bermatzeko. Podologia zerbitzua jasotzeko lehen eguna gaur da, eta hurrengo egunetarako txanda hartu daiteke lokalean bertan edo 943 76 62 71 telefonora deituta. Aurrez 10 euro aurreratu behar dira.

GORA ETA BEHERA



**Herriko barandak,
erdoilduta**

Barandak mantenua behar dutela nabarmendu dio herritar batek GOIENARI. Erdoilduta eta goroldioaz zikin daudela dio Ondarreko eta Beheko auzoko barandak, nagusiki.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

"Etxean sortzen duguna gure herrikideentzat da"

JOSEBE BLANCO PIKUNIETA BASERRIKO ARTZAINA

Jaten denaren gaineko informazioa izateko eta ezagutzeko eskubidea eta ardura aldarrikatu dute ekologikoan lan egiten duten Antzuolako Pikunieta baserrikoek

I.T. / J.O. ANTZUOLA

Josebe Blanco Pikunieta baserriko artzaina da. Mendian bizi da, baso-herrian, 500 metroko talaian, bere artaldearekin eta familiarekin. Artzainaren lanaz, ardiez eta elikaduraz mintzatu da hura.

Zu ez zara betidanik artzain izan. Nondik nora hartu zenuen erabakia?

Ez dakit erabaki bat izan zen. Nik garai hartan IKAKo eskalategietan lan egiten nuen, Gasteizen, eta, krisi ekonomikoa zela eta ez zela, talde kopurua jaitsi egin zen. Une hartan, eszedentzia eskatu eta etxean geratzea erabaki nuen, eta ardi lanetan eta gazta egiten ikasten hasi nintzen. Azkenean, etxean geratzea erabaki nuen. Horrenbestez, ez dakit nire erabakia izan zen edo patua, edo denaren nahasketa.

Une honetan, zenbat ardi dituzu?

Ba, une honetan ez nuke jakingo, arkume asko ditugulako! Ardien eta aharien artean une honetan 167 izango ditugu. Eta zenbaki hau oso pentsatua dago. Etxean bi gara ardi lanetan eta gaztandegian, eta bai, umeez laguntzen dute, asko, baina eskola dute, beraien bizitza daukate. Ardi gehiago izango bagenitu, ezingo genituzke behar bezala zaindu. Gainera, guk



Josebe Blanco, Pikunieta baserriko artzaina egindako gazta bat eskuetan duela. M.A.

ekologikoan lan egiten dugu. Horrek ez du aparteko ezer eskatzen, baina bai atentzioa eta denbora eskaintzea ardiei begira egoteko, artaldean zer gertatzen ari den ikusteko.


Nolako artaldea da zuena?

Nolabait esateko, pertsonen neurriko artaldea da gurea, eta, horrela izanda ere, batzuetan, ez gara iristen. Nahiko genuke gauzak hobeto egin, patxada gehiagorekin, baina gure tamaina hau da. Eta, gaztari dago-kionez, daukagun tokia dauka, eta ezingo genuke gehiago

ekoitzi. Alde batetik, tokirik ez dugulako, eta, bestetik, non saldu ez dugulako. Arkumeekin ere, berdin. Urtero 200 arkume ditugu, eta arkume saltzea ez da batere samurra.

Nora bideratzen duzue janari hori guztia Pikunietatik?

Guk argi daukagu gure etxean sortzen den janaria gure herrikideentzat dela; hau da, guk ez dugu gazta egiten Bartzelonara bidaltzeko. Han badaude artzainak, eta beraien funtzioa da beraien lurraldea kudeatzea eta beraien herria elikatzea. Gure



167 ardi inguru dituzte Antzuolako Pikunieta baserrian. M.A.

Ardiekin, beti "errespetu handiz"

Gizakiok "ustiaketarako ikuspegi batekin" funtzionatzen dugula iruditzen zaio Blancori: "Betik pentsatzen ari gara nola atera, atera... eta ez gara konturatzen ateratze horretan gu ere hustu egiten garela. Ardiak ondo ez badaude, alferrik da kimika".

egitekoa gure herrikideak elikatzea da. Gazta gehiago egiten hasiko bagina, akabo. Gainera, EHKolektiboan oso argi daukagu: supermerkatuak ez dira pertsonen neurriko espazioak. Guk dena txikitasunean egiten dugu.

Zure lanaren berri ematen duzue sareetan...

Banatuegi bizi gara iruditzen zaidalako. Nik ez dakit kalean zer gertatzen den. Hiriburura joatea tokatzen zaidanean, bazterrerara begiratu eta "zertan ari gara?" pentsatzen dut askotan. **Kaletarrentzat ere hala izango da, hortaz...**

Kontziente naiz hona etortzen den kaletar bat ere berdintsu geratuko dela gure bizimoduari begira. Gu oso isolatuta bizi gara, eta jendeak ez luke asmaturko hemen zer dagoen. Hain lurralde txikian bizitza mutu-

rekoak ditugu, eta artikuluen bidez zubi-lanak egin nahi ditut. Bestetik, iruditzen zait elikaduraren boterea kendu egin digutela; edo oparitu egin dugula, ez dakit. Ez dakigu zer jaten dugun, ez dakigu platerean daukagun horren atzean zer dagoen, ez dakigu zenbat kilometro edo ez-kilometro egin dituen, ez dakigu janaria ekoitzi duten pertsona horiek zer etxetan bizi diren, ez dakigu gure gorputzean zer sartzen ari garen... Eta horretarako eskubidea daukagu. Eta eskubide horrekin batera dator ardura.

"SUPERMERTUAK EZ DIRA PERTSONEN NEURRIKO ESPAZIOAK; GUK TXIKITASUNEAN EGITEN DUGU DENA"

Antzuolako Zortzi Miliak mendi lasterketa, 2022ra atzeratua

Aurten ez antolatzea erabaki dute arduradunek; hortaz, aurtengoak datorren urtera arte itxaron beharko du

J.O. ANTZUOLA

2013an sortu zenetik, otsaileko hirugarren domekan egin ohi dute Antzuolako Zortzi Miliak mendi lasterketa. Denboraldiko lehen lasterketako bat izaten da, eta, ohiko datekin jarraituz,

datorren domekan egin beharko lukete proba, baina bederatzigarren edizioa 2022rako lagatzea erabaki du lasterketaren talde antolatzaileak.

Izena emateko epea zabaldu ere ez dute egin aurten. 2020ko

edizioan 280 korrikalarik parte hartu zuten Antzuolako proban, eta %70 bailarako korrikalariak izan ziren.

Aurtengoak bederatzigarren aldia beharko zuen, eta probak azken urtean izandako arrakastaren erakusgarri da iaz hiru orduan 240 lagunek eman zutela izena. 2021era begirako saiera bat egin nahian, duela aste batzuk, Strava aplikazioaren bidez saio birtuala osatzeari buruz hitz egin zuten; azkenean, baina, baztertu egin dute hori.

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Irteera bat kinka larrian den basogintza ereduari

Errez kooperatibako Markel Arriolabengoa Martiarena eta Iñaki Etxebeste Larrañaga Elgetan izango dira eguenean, hilak 25. 'Bestelako baso kudeaketa eredu baterantz' hitzaldia egingo dute Espaloian, eta Tantai Baso Jabe Kooperatiba aurkeztuko dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Aramaioarra da Arriolabengoa eta arrasatearra, berriz, Etxebeste. 2018an sortu zuten Errez kooperatiba. Basogintzarekin lotutako ohiko lanak egiten dituzte –baso kudeaketa planak, landaketak, baso neurketak, inbentarioak...–. Argi hitz egin du Arriolabengoa: "Gaur egun nagusi den baso eredu agortuta dago. Orain arte eman du, baina orain ez. Beste ikuspuntu batetik dihardugu lanean".

Basogintzaren zailtasuna egun Basoaren errentagarritasun ekonomikoa gero eta txikiagoa dela ikusten dute, eta egungo basogintza eredu gero eta zaurgarriagoa dela. "Gaur egungo basoek gaitasun oso txikia dute edozein aldaketaren aurrean egokitzeke. Kanpoko espezieak ekarri dira, eta halakoetan beti gertatzen da berdina: hasieran abantaila bat dute, baina gero, galdu egiten dute. Gaitzekin argi ikusi da hori. Eta aldaketa klimatikoaren gaia ere hemen daukagu".

Basogintza eredu berri bat ezinbestekoa dela uste dute, eta ikusten dute badagoela jendea

jauzi hori eman nahi duena. Hala, proposamena da Tantai Baso Jabe Kooperatiba sortzea. "Aurrera egiteko basogintza eredu berri horrek eskatzen du logistika ere beste modu batera antolatzea. Gaur egungo azalera txikiak, bakoitzak bere basoa bere kabuz kudeatzea... Oso zaila da errentagarritasun ekologikoa zein ekonomikoa lortzea ezaugarri horiekin".

Eredu berriaren gakoak

"Tantai Baso Jabe Kooperatiban baso-jabe bakoitzaren ekarpena bere basoa izango da. Berdin dio lur publikoak zein pribatuak izan. Jabeak ez du basoaren jabetza emango, baizik eta basoaren erabilera. Hala, baso horiek guztiak modu bateratuan kudeatuko ditugu, eta kudeaketa modu desberdin batekin. Ze kudeaketa mota da hori? Erraz ulertzeko moduan esanda, ba-

"GAUR EGUN NAGUSI DEN BASO EREDUA AGORTUTA DAGO; ORAIN ARTE EMAN DU, BAINA ORAIN EZ"

karririk bertako espezieekin eta orain bezalako mozketak egin beharrean –dena bota– bakan-ketak eginez. Hau da, ezaugarri berezi batzuk dituzten zuhaitz batzuk bakarrik moztuz".

Arriolabengoa azaltzen du baso eredu berri hori oso zabal-duta dagoela mundu mailan. "Euskal Herrian ere badago, esaterako, Iratin eta Arabako zein Nafarroako zenbait lekutan. Gertatzen da inertziatzko praktika izan dela. Isurialde atlantikora ekarri nahiko genuke orain. Modu bateratuan kudeatu nahi ditugu baso guztiak, eta gidaritza serioarekin. Pentsatzen dugu lortuko genukeela gastuak askoz ere txikiagoak izatea, eta hori bakarrik ez: sarrerak ere hobetzea".

Diru sarrerak hobetzeraino

Egueneko hitzaldian adibide praktikoa ere emango dute: 400 hektareako esplotazio baten 20 urteko zenbakiak aztertuko dituzte. "Eta ikusi dugu pinuak zenbat ematen duen, benetan. Jabetuko gara oso-oso gutxi ematen duela. Gure baso kudeaketa ereduaren sarrerak ere aztertuko ditugu, eta ikusi dugu sarrerak berdinu eta hobetu egin daitezkeela". Egurren salmentarekin bakarrik hobetzen dira zenbakiak, baina ez hori bakarrik: "Sarrera anitzagoak aurreikusten ditugu ekuazioan. *Ekosistema zerbitzuak* deiturikoak dira; izan ere, basoek hainbat zerbitzu ematen dituzte egurrez aparte; CO2a metatzen dute, akuiferoak mantentzen dituzte... Eta beste herrialde batzuetan ekosistema zerbitzu horiek ordaindu egiten dira".

Urte bukaeran eratu nahi dute kooperatiba berria. Oraingoz, interesatuen zerrenda jasotzen ari dira, eta horrekin prototipo bat egiten ikusteko proiektua benetan dela bideragarria.



Elgetan prestatutako zapia. ELGETAKO EMAKUME TALDEA

Emakume Mundu Martxaren katean izango da Elgeta ere

Bihar helduko da karabana Debagoienara eta herrian gertatutako zapia Uberan jasoko dute, 09:30ean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Nazioarteko ekintza da Emakume Mundu Martxa, eta bosgarrenez zeharkatuko du Euskal Herria. Aurtengo lanketan, migrauek bizi duten prekarietatea eta bazterkeria ekarri nahi izan da lehen lerroa, *Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazioan ez!* lelopean.

Martxan da Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa, eta bihar, zapatua, helduko da Debagoienara. Herri bakoitzak zapi bana prestatu du, eta karabanak Eskariatzen jasoko ditu eskualdeko guztiak, 18:00etan. Irun eta

Hendaia arteko zubian egingo den ekitaldi batean elkartuko dituzte Euskal Herriko zapi guztiak, martxoaren 6an.

Debagoieneko zapiak herriz herri biltzeko martxa izango da bihar. Elgetako emakume taldeak asteon prestatu du, eta leloa da *Paperak lortzeko behar den lan kontratua eskaini*. Biher eramango dute Ubera auzora, Bergarako ordezkariak jaso eta eskualdeko gainerako zapiekin batera bere bidea egin dezan. Entrega ekitaldi horretan parte hartzera gonbidatuta daude Elgetako emakume guztiak.



L.Z.L.

Aratuste-barikua, aterpean

Hotza eta euri izan ziren nagusi barikuan, eta mozturroak erakusteko aukera gutxi izan da aurten Elgetako Aratusteetan. Neska-mutikoen eskolako dantzaldietan eta Espaloiko txotxongilo emanaldian gozatu zuten, gehienbat. Helduen artean inor gutxi mozturrota da aurten, eta horietako gehienak zapatuan. Eguraldi hobea izan zen, zalantzarik gabe.



Arriolabengoa, basoan neurketak egiten. ERREZ KOOPERATIBA

"Kutsu negatiboa du menarkiak gizartean"

ENARA IRURETAGOiena DOMINGUEZ ZIKLIKOKI BIZITZEN PROIEKTUAREN SORTZAILEA Gaztetzoei menarkia eta hilerokoa ikuspuntu "zabalagoaz" bizitzen laguntzeko nondik norakoez arituko da, 'Ziklikoki bizitzen' bere proiektua ardatz hartuta

Jone Olabarria ELGETA

Enara Iruretagoiena Dominguezek hitzaldia egingo du gaur arratsaldean udal liburutegian, 17:30ean hasita.

Menarkia hitza ez da oso ezaguna; zer esan nahi du?

Menarkia hilerokoaren lehen-biziko aldia da, hilekoaren zikloa lehen aldiz jaisten denean. Eta hilekoaren zikloko beste hainbat hitzekin gertatzen den bezala, menarkia ere ez da oso entzuna. Horregatik, izena bera ere mahai gainera ekartzea oso garrantzitsua da.

Zer dakar lehen aldi horrek?

Hilekoaren kultura lantzen gaitzanan ikusten dugu, gizarteak duen iruditerian, nerabezaroan bizitzen dugun momentu horrek kutsu negatiboa duela edota ez dela ikustarazten. Beraz, gaztetzoei bizitzen duten momentu hori abiapuntu moduan hartzea eta hortik abiatzea da topaketa hauen asmoa.

Nola eragiten die gaztetzoei lehen ziklo horrek?

Argi dago denok gogoratzen dugula gure nerabezaroa eta hor gertatzen diren aldaketak zentzu guztietan potenteak izaten direla. Azkenean, gaur egun ere, oso informazio gutxi dugu, eta, bestalde, badago moda moduko bat duela urte batzuk sustatzen hasi dena, non iruditeria horiek beritzen goazen arren oraindik gure gorputzetatik oso urrutik gauden. Adibidez, esaten dituztenean nola kontatuko zenukeen gidabaimena atera zenuenean. Gidabaimena dugunok bakoitzak esperientzia bat dugu. Eta esperientzia horiek ez baditugu partekatzen eta aitortzen, oso zaila da beste pertsona bati bidelaguntzea toki berri batetik. Izan ere, guk ez dugu gerturatze prozesu hori egin. Beraz, hortik abiatzea da garrantzitsua.

Zer jorratuko duzue Elgetan?

Ez dago hitzaldi formatuan pentsatuta. Ez zaizkit asko gustatzen



Gaur liburutegiko topaketan izango den Enara Iruretagoiena. ZIKLIKOKI BIZITZEN

"LEHEN ZIKLOAREN EDO HILEROKOAREN MOMENTU HORI JORRATUKO DUGU TOPAKETAN"

hitzaldi formatuak eta nahiago dut esatea topaketa bat edo topagune bat izango dela. Beraz, egubakoitzean, menarkiaren bidelaguntza landuko dugu Elgetako saio honetan. Lehen hilerokoaren, lehen zikloaren

momentu hori, nolabait, jorratuko dugu.

laz ere izan zinen bertan; zer moduzko esperientzia izan zen?

Bai, iaz ere izan nintzen bertan, eta zoragarria izan zen. Egia esan, etxean bezala sentitu nintzen. Aurreko urtean egin genuen topaketa hilerokoaren zikloaren lehen gerturatzea izan zen, eta bertan elkartu ginen emakumeak hitz egiteko. Gozo egoten gara bertan eta gogoz gaude aurtengorako ere. Berriz ere deitu izanak badu zer esaterik; poz handia ematen dit.

Literatura erotikoa, hilaren 26an

Menarkiari buruzko hitzaldiaz gain, ipuin erotikoei saio berezia ere prest dute otsailean. Aurtan ere literatura erotikoa eta sexualitatea abiapuntu hartuta hainbat proposamen egin ditu Elgetako liburutegiak. Urtero moduan, otsaila amaitu bitartean prest da *Bibliobero* interesgunea; literatura erotikoiari eta sexualitateari buruzko liburuak daude bertan ikusgai.

Urtero hizlari eta ipuin kontalari ezberdinek hartzen dute bertan parte, eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari usurbildarraren eskutik etorriko dira aurtengo kontakizunak; izan ere, *Erotik, zerotik, berotik* izenburupean saioa egingo du Elgetan hilaren 26an. Edukiera muga dagoenez, aurrez irekiko dute ekintzetan parte hartzeko izena emateko aukera.



Eguaztenetan egiten duten saio bateko irudia, elgetako liburutegian. E.L.

'Hitzez-pitz Berbalagun' ekimena berrituta dator aurtengo aldian

Liburutegiak eta 'Elgetan berbetan' egitasmoak antolatuta, eleberri mailakatuak landuko dituzte aurtan

J.O. ELGETA

2017az geroztik martxan den formatua "eraberritzeko unea" heldu dela iritzita, *Hitzez-pitz Berbalagun* irakurketa taldearen bertsio berria sortu nahi izan dute aurtengora begira herrian. Dinamika berriaren ardatz A1 mailako euskarazko eleberri mailakatuak izango dira, eta, asteen behin, asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara elkartuko da taldea liburutegian: "Euskarazko irakurketa ohitura sustatzea, hiztegia eta ulermena landuz, eta euskaraz komunikatzen hasteko espazio berri bat sortzea

dira, besteak beste, ekimenaren helburuak".

Interesatuak, liburutegira

Orain arteko edizioetan, hilean behin elkartzen zen taldea, eta irakurketa oso bat komentatzen zuten. Aurtan, baina, kapitulu-ka antolatu dute, eta astero zati bat lantzea da asmoa, zalantzak, hizkuntzarekin zailtasunak edota esamoldeak landuz.

Bigarren saioa egin dute asteon, baina, azaldu dutenez, herritarren batek interesa izanez gero, liburutegira gerturatu edo 943 78 80 12 telefonora deitu daiteke.

'Txile esnatu da' dokumentala eta 'Bahiketa' liburua bihar Elgetan

Asel Luzarragak eta Edorta Jimenezek Txilen bizitako esperientzia eta herri maputxea izango dituzte hizpide

J.O. ELGETA

Edorta Jimenezekin batera izango da Asel Luzarraga Elgetan. Duela hamar urte Txilen bizi izandakoa jasotzen duen *Txile esnatu da* dokumentala estreinatuko dute antzokian, eta ondoren, *Bahiketa* liburuaren aurkezpena egingo dute. Ekitaldia 12:00etan hasiko da.

Luzarraga musikari eta idazle euskaldunak esperientzia "latza" bizi izan zuela azaldu du John Andueza antolakuntzako kideak: "Anarkismoa sustatu eta maputxeen alde idaztearren

hasi zen duela hamar urte Txilen. Lau atentatutan parte hartu izana egotzi nahi izan zioten, horietako hiru gertatu zirenean Asel Txiletik kanpo egon arren. Etxean armak edukitzeagatik atxilotu zuten, nahiz eta armak karabineroek disimulurik gabe utzitakoak izan". Hala, ia urtebetez preso eduki, Txiletik kanporatu eta bere izena Interpoleko zerrendan sartu zutela azaldu du Anduezak. Elgetako Udalak antolatuta, ekitaldira bertaratzeko gonbita helarazi diete herritar guztiei.



Xabier Igartua eta Susana Altuna zinegotziak Eltzian, eguaztanean, kanpainaren aurkezpenean. O.E.

Desfibriladoreak eskura, beharra dagoenerako

Bihotz-biriken suspertzean laguntzeko bost desfibriladore jarri ditu Oñatiko Udalak edonoren eskura, beharra denean erabiltzeko. Azkoagaingoa, kiroldegikoa eta Eltziaokoa kanpora atera dituzte, eta berriak jarri Arantzazun eta Araotzen

Oihana Elortza OÑATI

Lehen eraikin edo instalazio barruan zeuden hiru desfibriladore kanpora atera dituzte, eta beste bi berri jarri. Horrela, guztira, bost desfibriladore publiko daude herriko puntu ezberdinetan banatuta, beharra dagoenean erabiltzeko. Horiek nola erabili jakiteko esku orriak banatuko ditu orain Udalak etxez etxe, eta bideo bat egin du ariketa praktikoekin.

Edozein unetan erabiltzeko

Barruan zeudenak zerbitzuaren ordutegi barruan bakarrik erabili zitezkeen, eta horrek zentzurik ez duela ikusita erabaki du Udalak kanpora ateratzea Azkoagainen, Eltzian eta kiroldegian zeudenak. "Aipatu izan da, esaterako, plaza inguruan ez dagoela horrelakorik erabiltzeko aukerarik behin kiroldegia itxitakoan edo udaltzainek euren zerbitzua bukatutakoan. Horregatik, pentsatu dugu Udalak bere instalazioetan dituenak

herritarren eskura jartzea 365 egunez eta 24 orduz", azaldu du Xabier Igartua zinegotziak. Kiroldegikoa egungo sarreraren ondoan egongo da, obrak bukatu bitartean; lehen aldagela mistoak zeuden inguruan jarriko dute gero, eta hura izango da bere ohiko tokia.

Beste biak berriak dira, orainxe jarri dituzte: Arantzazun, hango informazio-gune eta dendaren sarreraren, eta Araotzen, Arrikruz koben aparkalekuan. "Arantzazun jende asko batzen da eta Araotzen daude Arrikruz kobak, Udalaren baliabide turistikoa. Biak dira urrutiko dauden guneak larrialdi egoera bat helduz gero. Arrikruzten, gainera, gertatu zen desfibriladorea era-

**JARRITAKO BOST
DEFIBRILADOREAK
AUTOMATIKOAK DIRA,
ERABILTZEKO OSO
ERRAZAK**

biltzeko beharra, eta hil egin zen pertsona bat. Hala ere, kobetako instalazioetan jarri beharrean, hango auzotarrek ere erabiltzeko moduko tokian jartzea pentsatu dugu".

Esku orriak eta bideoa

Desfibriladoreak kaxa batzuetan daude sartuta eta erabiltzeko pausoak zeintzuk diren agertzen den oharra dute ondoan. Han agertzen den kode bat sartuta zabaltzen da kaxa, eta gero, aparailuak dionari egin behar zaio kasu erabiltzen jarraitzeko. Hala ere, momentu larri baten aurrean blokeatu edo aurrera zelan egin ezin asmatu egonez gero, mailu txiki bana dute ondoan, horrekin kaxa apurtu eta desfibriladorea erabiltzeko.

Etxez etxe banatuko dituzten eskuorrietan azalpenak eta QR kode bat datoz, eta hori irakurrita ikusten da adibide praktikoak dituen bideo bat, Oñatiko mediku baten eta erizain baten laguntzarekin grabatutakoa.

Positibo kopuruarekin kezkatuta daude udal ordezkariak

Zaintzeko eta gomendioei kasu egiteko dei egin du alkateak; guneak desinfektatzeko eskaera jeltzaleek

Oihana Elortza OÑATI

Azken aste honetan COVID-19 gaitzaren kasu positiboek herrian izan duten gorakada ikusita, kezka eta ardura agertu dute udal ordezkariak.

Osasun adituekin harremanetan

Izaro Elorza alkateak aste barruan esan duenez, une oro daude harremanetan osasun adituekin, datuak kontrastatzeko eta balizko gomendioez hitz egiteko. "Harremanetan gaude ere herriko foku izan diren espazio ezberdinetako kideekin, egoeraren jarraipena egiteko eta, zelan ez, geure laguntza eskaintzeko".

Asteburuan izandako gorkadari erantzunez, Elorzak martitzenean adierazi zuen, osasun adituekin kontrastatuta bere esanetan, momentu hartan ezin zela oraindik irakurketa erreallik egin: "Ikusi behar da pertsona horien kontaktuen emaitzak zeintzuk diren benetako bilakaera zein den ikusteko, eta horrek zehaztuko du hurrengo pausoak norantz eman behar ditugun". Egoera honen aurrean "indarra" behar dela adierazi du alkateak, "elkar zaindu eta

osasun adituen gomendioei kasu egin: maskarak erabili, eskuak garbitu eta harreman sozialak ahalik eta gehien murriztu".

Herriaren egoeraz kezkatuta

Oñatin metatu den positibo kopuruarekin oso kezkatuta daudela adierazi dute jeltzaleek ere. Ainhoa Galdos udal bozeramailearen esanetan, herriko hainbat gune desinfektatzeko eskatu diote alkateari: ziburuak, San Lorenzo auzoko igogailuak, komun publikoak, eserlekuak, eskaileretako barandak eta ambulatorio-inguruak, esaterako. Horrekin batera, 1.000tik gorako intzidentzia metatua izan duten hainbat herritan neurri zorrotzagoak hartu direla aipatu du Galdosek, Udalaren eskuduntzako hainbat zerbitzu publiko-liburutegia, kultura etxea edo ludoteka-eten dituztela bi astez; esaterako, Azpeitian eta Aramaion. Galdosek esan du EH Bilduren Udal Gobernuak horrelako erabakiren bat hartuko balu, EAJren udal taldearen babesa izango lukeela.

Asteburuaz geroztik, positibo kopurua jaisten joan da. Atzoko intzidentzia-tasa 1.430 zen.



NIRE USTEZ

AINHOA SEMPER

Poemaz poema, gora maitasuna!

Otsailaren 14a San Valentin eguna dugu, "maiteminduen eguna". Denoi datozkigu burura Estatu Batuetako pelikuletako irudiak: bonboiak, arrosak, bihotzak... Baina nondik dator egun hori ospatzeko ohitura? Ba, aspalditik; gutxienez, Erdi Arotik. San Valentin egunaren lehenengo aipamena poema batean dago: 1382an, Geoffrey Chaucer idazle ingelesak *Txorien berbaldia* izeneko olerkian San Valentin maiteminduen jaieguna gisa aipatu zuen.

Maitasuna kontu zaharra da, beraz. Eta maitemina ere bai. Horren isla da Oñatin, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, aurreko urtean aurkitu zen XVI. mendeko poema, euskaraz idatzitako lehenengoetakoa. Testua Azkoitiko XVI. mende hasierako notario-protokolo batean agertu zen, dokumentu baten ertzetan idatzitako zirriborroa da, baina bertan argi eta garbi ikusten da egileak bizi zuen maitemina: *Ene laztan gozo ederra, penaz penaçen naçu*. Testu osoa <http://oinati.gipuzkoakultura.net> webgunean dago. Irakurri eta, agian, maitasunari idazteko inspirazioa aurkituko duzu bertan.

Migrazioei erantzuteko erronkez aritu dira

Migrazio fluxuen testuinguruan Euskal Herriak dituen erronkez mintzatu dira Gaindegia-ko Imanol Esnaola, Iratzar elkarteko Andoni Olariaga eta Maggie Bullen antropologoa, EH Bilduk gonbidatuta. 'Komunitatea' da askotan aipatutako kontzeptua



Andoni Olariaga, Imanol Esnaola eta Maggie Bullen. O.E.

Oihana Elortza OÑATI

Migrazio fluxuak eta testuinguru horretan Euskal Herriak dituen erronkak gai hartuta, migrazioari lotutako Euskal Herriko mapa erakutsi zuen Gaindegia-ko Imanol Esnaolak, eta aipatu duela hamarkada batzuetako Hego Euskal Herriko migrazioa "ekonomia jakin bat behar zelako" gertatu zela: "Guk hartu ez ditugun erabakien demografia da duguna". Datozen urteei begira hazkunde mantendu egingo dela esan zuen, "baina apalago". Eta horri lotuta, "hausturak eten eta elkarbizitzarako harrera prozesuak" behar direla gaineratu zuen, "kanpotik datorrenak herriratze naturala izateko".

Iratzar elkarteko Andoni Olariagaren ustez, "ezegonkortasun egoeran areagotu egiten dira sortutako diskurtsoak", eta "eskuin muturreko diskurtso horien aurrean ezkerrek komunitatean birpentsatu" behar duela adie-

razi zuen: "Ez da bakarrik errespetatzea, besteak bestea izaten jarraitzen duelako. Irudimen politikoa behar da". Komunitatea azpimarratu zuen Iraolak.

Komunitatea lantzen esperientzia duen Maggie Bullen antropologo feministak, berriz, aniztasuna jarri zuen zalantzan. "Denok hara eta hona gabiltzan garai honetan, zer da aniztasuna? Desberdina dena adierazteko da?", galdetu zuen. Eta gaineratu: "Kultura ez da mugen barruan sartzen, badaude ohiturak, hizkuntzak, arrazak, koloreak, klaseak... Kultura pertsonen artean sortzen da, gauzatu egiten dugu".

Hirirako eskubidea

Oñatiko EH Bilduk antolatutako *Hamar gai hamaika berba* hitzaldi sortaren barruan egin zuten saioa. Hurrengoa martxoaren 24an izango da: *Megahiriaren garaian, hirirako eskubidea eta pertsonengan oinarritutako hirigintza*.

Harriak eta hostoak margotuko dituzte bihar goizean plazan

Auzoetara joan eta tailerrak eta jolasak han egiteko ohitura du Txaloka ludotekak udaberri aldera. Eta aurten ere horrela izango da. Otsailetik maiatzera, biak barne, hilean zapatu goiz baten, herriko txoko ezberdinetan egongo dira umeekin jolasteko. 3 eta 8 urte bitarteko haur guztiek parte hartu ahal izango dute; irekiak izango dira saio horiek, ez da Txalokako erabiltzaile izan behar.

Bihar, otsailak 20, egingo dute lehen irteera: harriak eta hostoak margotuko dituzte, 11:00etatik 13:00etara; euria bada, institutuko arkupeetan. Martxoan, apirilean eta maiatzean ere egongo dira horrelako ekimenak.

OHARRAK

Zapiekin Elorregira

Emakumeen Mundu Martxaren karabanaren barruan, 09:45ean elkartuko dira Santa Marina plazan, zapiak Elorregira eramateko.

Jaietako bilera

Auzoetako jai batzordeetako ordezkarien eta Udalaren arteko bilera astelehenean da, 18:30ean, udaletxean. 2021eko egutegia zehaztea, dirulaguntzak eta egoeraren aurrean egindako hausnarketa dira gaiak.

Zenbaki sarituak

Hauek dira Hotz Oñati taldearen azken zozketako zenbaki sarituak: 3.751 (3.843), 3.508 (3.603) eta 3.452 (3.567).

txanda

txantxiku dendarixen alkartia

AZKEN TXANPA!

OTSAILAK 26-27

- URHUTIA GIZONAK
- ITZAR OPTINA
- KIRU-URTIN
- OÑADIKE
- ARIANBURU MARGOKAK
- PIRAKI
- HARTZA
- KUTTUN
- ARKALIZ OPTIKA-AUENLOGIA
- HIRUKAR
- IRAMBA
- LIZAN
- NI MODA
- CHOC
- MARKU
- BELLOTZA
- MENDIZABAL
- SILLERO
- D OR
- ANETS BEREZAO
- LAKET
- SUA
- ANE MERTZERIA

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu, idatzi txanda.oñati@hotmail.com helbidera

"Elurretan korrika egiten ez dakidala ikusi dut"

AINARA URIBARRI KORRIKALARIA

Zapatuan Larra Belaguan egindako Espainiako txapelketako elur lasterketan bigarren egin du oñatiarrak; hurrengo asteburuan, elur zeharkaldi batean hartuko du parte

Oihana Elortza OÑATI

Lehen aldiz hartu du parte elurretako lasterketa batean Aina-
ra Uribarri korrikalariak (Oñati, 1997), eta bigarren egin du. Gustatu zaio esperientzia, eta badu errepikatze asmoa, orain burua aurtengo helburuetan badu ere.

Probatzera joan, eta bigarren. Ez dago gaizki, ezta?

Ez, ez, oso pozik nago. Banuen gogoia elurretan korrika egiteko, eta, hasieran pixka bat kosta bazitzaidan ere, ondo joan zen lasterketa gero.

Kosta? Zergatik?

Nik, normalean, topera hasten ditut lasterketak, azkar. Eta asteburukoa ere horrela hasi nuen. Eta berehala konturatu nintzen ez nekiela elurretan korrika egiten, ez nuen asmatzen. Atzera begiratu nuen, eta haiek ere nire egoera berean egongo zirela pentsatu nuen, ezinka haiek ere. Zentratu egin nintzen, non zapaldu behar nuen ikusi, eta horrela egin nuen lehen itzulia. Bigarrena errazagoa izan zen. Proba amaitu zenean, bati baino gehiagori entzun nion elurra ez zegoela batere ondo korrika egiteko, baina nik ez nuen beste erreferentziarik, eta ezin konparatu.

Nolako lasterketa zen?

Bost kilometro eta erdiko zirkuitu bati bi itzuli eman behar genizkion, 400eko positiboarekin, guztira. Espainiako Txapelketa barruan lau lasterketa antolatzen dituzte, eta hau hirugarren zen; asteburuan izango da azkena. Nik, baina, honetan bakarrik hartu dut parte.

Aurten Oñatin egon da elurretan korrika egiteko aukera.

Bai, baina ni eskiatzen ibili naiz. Bizikletan ibili ordez elurretako zeharkaldiak egiten ibili naiz, baina korrika asfalto gainean egin dut. Egun hauetan hasi naiz korrikaldiak mendi inguruetan egiten.



Ainara Uribarri, zapatuan, Larra Belaguan egindako lasterketan. FROTOLAFOTO

"IRAILEAN IZANGO DEN GORBEIA SUZIEK MENDI LASTERKETA DA AURTENGO HELBURUETAKO BAT"

Zein proba egingo duzu, bada, hurrengo?

Espainiako Kopa barruan dagoen zeharkaldi batean hartuko dut parte. Hurrengo asteburuan da, otsailaren 27-28ko asteburuan, Panticosan. Zapatuan hiru kilometroko iguera bertikala izango dugu, 700 metro positibo, eta domekan, berriz, hamabost kilometroko lasterketa, banaka. **Eta zein helbururekin zoaz?**

Ba, indarra neurtzeko helburuarekin. Hemen ibili naiz zeharkaldiak egiten, baina lehen aldiz hartuko dut parte maila horretako lasterketa batean, eta zelan bukatzeko gai naizen ikusi gura dut, neure indarrak neurtzea. Ikusiko dugu.

Urtea indartsu hasi duzula dirudi. Horrela da?

Ba, egia esan, bai. Elurretako lehen esperientzia hau gustatu egin zait eta hilaren bukaerako

proba horietan parte hartzeko ere gogoz nago. Egia da aurten ezin izan naizela eskiatzera joan, baina hemen, etxean, hamasei aldiz jantzi ditut eskiak, eta konforme nago.

Oraindik ez dirudi lehen besteko lasterketa kopururik egingo denik aurten. Ze itxura du panoramak?

Herri lasterketak, popularrak, bertan behera ari dira gelditzen, bai, eta pena da hori, pena handia. Espainiako Federazioak antolatzen dituenak egingo dira, eta horiek izango ditut kontuan. Apirilean hasiko da lasterketa horien denboraldia. Apirilaren 15ean Sevillan egingo da bat, eta badut hara joateko asmoa. **Jaengo eta Gorbeia lasterketak dira, baina, dituzun aurtengo helburu nagusiak, ezta?**

Hori da. Jaengoa Espainiako Txapelketa barruan sartzen da. Maiatzeko lehen asteburuan izango da, eta hori izango da aurtengo dudan lehen helburua. Bigarrena Gorbeia Suzien mendiko lasterketa da. Iraileko azken asteburuan da. Urruti dagoela ematen du, baina ondo joan gura dut, eta asko entrenatu beharko dut ganoraz prestatuta joateko. Dortsala badut.



Plazan bizikleta hartzen duela bi urteko duatloian. GOIENA

Oñatiko duatloia izango da aurten egingo den lehenengoa

Apirilaren 24an izango da, erlojuaren kontra arituko dira parte-hartzaileak korrika eta bizikleta gainean

O.E. OÑATI

Eguno egoera tarteko, Euskadiko Triatloi Federazioko egutegian jasota zeuden lehen probak atzeratu egin dituzte, eta antolatzaileek horrela erabakita. Hala, Oñatikoa izango da aurten egingo den lehenengoa.

Batetik bestera tartea utzita

Eibarren eta Zornotzan egitekoak zirenak 2022ra, hurrengo urtera, atzeratu dituzte, eta Mungian egitekoak zenaren data berria ez dute oraindik zehaztu. Beraz, apirilaren 24an Oñatin egingo den duatloia izango da lehena, Aloña Mendiko Triatloi Taldeak eutsi egingo dio-eta datari eta probari; euren esku dagoen guztia egingo dute proba egiteko.

Antolatzaileek eurek aurretik azaldutako moduan, bakarkako erlojupekoa izango da aurtengo duatloia, ez da aurrekoetan egin den bezalakoa izango. Parte-

hartaileak banan-banan aterako dira, batetik bestera tarte bat utzita. Bi arrazoirengatik erabaki zuten horrela antolatzea: "Egin ahal izateko aukera gehien modu horrek eskaintzen dituela uste dugulako eta, aldi berean, erronka erakargarria ere izatea gura dugulako".

Plazan, Lazarraga jauregiaren ondoan hasi, eta plaza barrenean bukatuko da duatloia. Herri barruko zirkuitu batean egingo dute korrika, lehenengo, eta gero, bizikletan Elorregi aldera joango dira, bueltan San Pedro aldera hartu eta Santipillautik Asentziara eta handik kalera, berriz korrika egiteko.

Antolatzaileek www.oñatiko-duatloia.com-en jarri dute informazio osoa, ibilbideen mapak barne. Taldeko babesle izaten jarraitzen duten Lanari eta Magdalena gasolindegia eskerrak eman dizkiete, babesagatik.

Mendiko federatuak mugitu daitezke, eremu gorrikoak izan ezik

Euskal Mendizale Federazioak esan du, azken neurriari kasu eginda, Federazioaren lizentzia duten kideak euren mendiko jauregiak mugitu ahal izango direla Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa artean, oraingoz, eremu gorrian dauden herrietan izan ezik. Oñati eremu gorrian dago, eta, beraz, gaur-gaurkoz, egingo dira herri barruko mu-

getatik atera mendian federatuta dauden oñatiarrak.

Herritar asko daude mendian federatuta eta Aloña Mendiko baldintza hori jartzen du antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko. Aurten ere badu asmoa irteerak egiteko, baina oraindik ez dute erabaki noiz eta nola egin, federatu asko 60 urtetik gorakoak ere badira eta. Hala ere, egutegia bera eginda dute, egoerak baimentzen eta segurtasunez egiteko moduan daude irteeraz gozatzeko.



La Excavadora talde berria, estreinakoa lana aurkezteko ateratako irudian. MAUKA MUSIKAGINTZA

La Excavadora taldearen doinuak gozagarri bihar

Kontzertu bikoitza eskainiko dute bihar La Excavadora talde sortu berriko kideek, gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan. Taldearen izen bera daraman lehen lana aurkeztu eta, bide batez, talde moduan "ezagutzera emateko" aukera baliatuko dute

Maialen Santos OÑATI

La Excavadora musika talde sortu berriak kontzertu bikoitza eskainiko du bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan, 17:00etan eta 19:00etan hasita.

Bigarren emanaldirako sarreak zortzi eurotan daude eskuagarri Txokolateixan, plazan dagoen *Totem*-ean eta *Oñati.eus* udal webgunean –lehen kontzerturako sarrerak agortuta daude–.

Eskarmentu handiko kideak

Raul Lasa *Txiki* (Gatillazo, La Polla) eta Angel Otxoa de Eribe (Gatillazo, Rockaina, Salvate Si Puedes) gitarra-joleak; Mikel Azpiroz *Buton* (Gatillazo, Al Karajo) baxu-joleak, Mikel Berrozpe *Pollo* bateria-joleak (Childrain, Vicepresidentes) eta Iñaki Urbizu *Pela* (Obligaciones, Sumision City Blues, Markey Ramone...) abeslariak osatzen dute La Excavadora.

Guztiekin lehenagotik ezagutzen zutela elkar aitortu du Azpirozek, eta proiektu honetan egin dute

bat: "Gatillazo taldearen etena aprobetxatu dugu proiektu honi ekiteko. *Txiki*-k esan zigun punketik atera gura zuela, eta ideia batzuk zituela. Maketak entzun genituen eta gustatu egin zitzaizkigun. Hala, aurrera egitea erabaki genuen".

Hamabi kantuko lana

Urtarrilaren 29an argitaratu zuten taldearen izen bera daraman lehen lana, Mauka Musikagintzaren eskutik. "Ideia zen hard-rock edo rock musika egitea, punketik atera guran", adierazi du Azpirozek. Hala eta guztiz ere, uste du ez dela berdina proiektua nola hasi eta amaitzen den, "emaitza sarri ez delako hasierako bera".

HARD-ROCK KUTSUKO ESTREINAKO LANA KALERATU BERRI DUTE, HAMABI KANTUZ OSATUTAKOAK

Diskoaren nortasunari buruz galdetuta, "galtzaileentzako rock kaletarra" abesti gehienetan nabaritu daitekeela azaldu du baxu-joleak, eta gaua, kalea eta neska-mutikoak izan dituzte horietan oinarri, besteak beste.

Ezagutzera eman guran

La Excavadora taldeak eskaintzen duen bigarren kontzertua izango da biharkoa; izan ere, aurrez Gasteizen soilik igo dira oholtzara: "Estreinakoz etxean aritu ginen, lagunez eta ezagunez inguratuta". Hori horrela, jende ez hain ezagunaren aurrean joko duten lehen aldia izango da honako hau, eta, *Buton*-en hitzetan, talde moduan "ezagutzera emateko aukera" izango dute. "Ikusi gura dugu jendeak nola hartzen gaituen Oñatin, eta egiten duguna gustuko izatea espero dugu; zalantza hori argitu guran goaz", aitortu du.

Diskoa osatzen duten hamabi kantuez gain, lau bertso ere joko dituztela iragarri du.

"Liburuaren lehen hazien 'errudun' bi emakume oñatiar izan ziren"

UXUE ALBERDI IDAZLEA

'Tertulixan' saioan izango da, martitzenean, 18:30ean

M.S. OÑATI

Dendaostekoak liburua irakurri berri duten herritarrekin berbetan arituko da idazlea, saio irekian. Sarrerak aurrez eskuratu daitezke ohiko tokietan. **Oso gertuko duzun Elgoibarko Pitxintxu denda jarri duzu erdigunean liburuan...**

Bai. Izaskun eta Mari Jose dira liburuko bi ahotsak; ama eta izeba ditut. Baina horrek ekar dezake liburuaren irakurketa senidetasun-harremanetik egiteko arriskua, eta ez da hala. Liburuan ni ez naiz inondik inora agertzen, gure harremanak ez du ikuspuntua markatzen.

Nor dira Izaskun eta Mari Jose?

Bata jostuna eta bestea brodatzailea. Eurekin sarri geratu izan naiz Pitxintxu dendako dendaostean, dendaren beraren historia eta bertako istorioak biltzeko; izan ere, iruditu zitzaizdan horiek egokiak izan zitezkeela azken hamarkadetan gertatutako hainbat aldaketa kontatzeko; dendariaren ikuspuntua pribilegiatua baita.

Zein mezu helarazi gura izan duzu?

Edozein idazketa niretzat indagazio-ariketa dela esango nuke; ikasketa bat. Ez daukat mezu bat emateko, baizik eta pertsonaia horien bitartez egiten dut errealitatearen eta giza pertzepzioen inguruko bilaketa. Kasu honetan, jendez betetako liburua da, bi ahots txirikordatuz sortzen dena.

Zein aurreikuspen dituzu saiorako?

Asko gustatzen zait irakurleekin ikuspegiak elkarbanatzea. Ni-



Uxue Alberdi idazlea. OIHANA ELORZA

retzat labetik atera berri dago liburua, eta gustatzen zait ikustea nola jaso duten irakurleek, liburu hau ohiko genero literariotatik kanpo dagoelako.

Diozu bi oñatiarrek eragina izan dutela liburuaren hastapenetan...

Hala da. Liburu hau sortzeko bi momentu identifikatu ditut. Dendak 40 urte bete zituenean konturatu nintzen ama eta izeba laster erretiratuko zirela, eta horrekin batera desagertuko dela jaioterriarekin dudana loturarik sendoena. Bestetik, bi emakume oñatiar izan ziren liburuaren lehenengo hazia jartzearan *errudunak*. Jone Arrazolak eta Irati Garaik egindako *Oñatiko emakumiak erreka* lanaren berri izan nuen hitzaldi batean, eta orduan konturatu nintzen dendarekin zerbait egin behar nuela. Izan ere, ez dut aurrez sekula horri buruz idatzi.

Soinu teknikari tailerra egingo dute bihar, gaztetxean

Otsaileko egitarauaren baitan, teknikari tailerra antolatu dute Antixeneko gaztetxean. Bihar, zapatua, egingo dute 9:30ean hasita eta eguerdira arte.

Imanol Astudillo teknikariak gidatutako saioa izango da, eta musika ekipoak, argiek eta eszenarioko antzerako tresnek nola funtzionatzen duten ikasteko aukera izango da horretan.

"Hala eta guztiz ere, soinuan jarriko dugu azpimarra, batez ere", azaldu du Astudillok.

Gaztetxean dagoen soinu ekipoa nolakoa den ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, eta teknikariak aurreratu du teoria eta praktika uztartuko dituztela tailerrean: "Azalpenak emanez hasiko dugu ikastaroa, eta gero ikasitakoa praktikan jarriko dugu; besteak beste, ekipoa muntatzen eta desmuntatzen arituko dira etortzera animatzen direnak".

Bihar, Piñeirok eta Ratok ringera egingo dute salto

BORROKA ARTEAK Urteko lehenengo kickboxing txapelketa egingo dute bihar, zapatua, Donostiako Amara auzoan. Bertan lehiatuko dira Eskoriatzako Atama klubeko Leire Rato eta Ariane Piñero borrokalariak. Guztira, 17 borrokaldi egongo dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Eskoriatzako Atama taldeko borrokalari Ariane Piñero eta Leire Rato gertu daude biharko Donostiako Kuraia taldeak antolatu duen hitzordurako. Entrenatzailearekin izan da GOIENA, Rafa Carrietekin: "Ordua da borrokaldiak izateko, aste asko daramatzagu eta helburu barik entrenatzen, eta, azkenean, nekagarri bilakatzen da".

Berez, maiatzean hasiko dituzte borrokaldi ofizialak, eta horietara begira prestaketa moduan hartuko dute biharko hitzordua: "Oso penagarria da harmailtan jende barik borrokatzea; izan ere, giro polita egoten da eta borrokalariendako motibagarria izaten da. Baina egoera hau bizitzea tokatzen zaigu, eta ez dago besterik. Hala, guztira, 34 gizon eta emakume igoko dira zapatuan ringera, 17 borrokaldi egongo dira eta hitzordua egin ahal izateko COVID protokoloa beteko dute: borro-



Leire Rato eta Ariane Piñero. ATAMA

kaldia baino bi ordu lehenago PCR probak egingo dizkiete borrokalari guztiei.

Maila handiko borrokaldiak

Carrietek ondo daki etxeko bi borrokalariak zelan dauden,

TXAPELKETA BAINO BI ORDU LEHENAGO PCR PROBAK EGINGO DIZKIETE DENEI: 34, GUZTIRA

baina badaki, baita ere, zapatuan ring gainean izango dituzten kontrarioak ere maila onekoak direla: "Leirek 60 kilo azpiko kategorian hartuko du esku eta Piñeirok, 55 kilo azpikoan. Biak dira oso maila oneko borrokalariak; pentsa, Piñeiro kenpoko munduko txapelkun izan zen 2017an, baina aurrean izango dituztenak ere maila oso onekoak dira, denak daude Espainiako Txapelketarako aurre-sailkatuen taldean. Badakigu gureak ze argiak diren borrokan, lanerako zein gaitasun duten, eta esperientzia handia dute, gainera, baina horrek ez du arrakastarik ziurtatzen".

Ondo ibili dira entrenatzen

Entrenamenduetara itzuli zirenetik Carrietek nabarmendu du lana txukun egin ahal izan dutela klubean. "Batetik, Eskoriatzako Udalaren laguntzari esker pilotalekuan entrenatu ahal izan garelako. Sabai altua dago han, eta espazio handia. Hala, borrokalari bakoitzak hiru metro koadro izan ditu entrenatzeko, eta baldintza horietan oso zaila da inor kutsatzea. Bestalde, entrenamenduetan kontaktu fisikoa saihesten ahalegindu gara; bereziki, gazteekin. Borrokaldietan ibiltzen direnekin saio espezifikoak egin ahal izan ditugu, eta gainontzekoekin gehiago egin dugu kenpo tradizionala. Katak egin ditugu, eta kolpeak beste modu batera entrenatu ditugu,

Ekainaren 26an, herrian kickboxinga

Eskoriatzako Atamako lagunengoa asmoa da ekainaren 26an Eskoriatzako halako torneo bat antolatzea. "Lehenago ere antolatu izan dugu, eta gustura geratu ginen emaitzarekin. Hala, data hori egokia da, San Juan jaien eta sanpedroen artean geratzen delako, eta asmoa izango litzateke herriko jai egitarau barruan sartzea", adierazi du Rafa Carrietek.

Oraindik, baina, goiz da halako hitzordua zehazteko: "Gainera, halakoak politikak dira antolatzeke, ondoren herritarrek hitzordua goza badezakete; hau da, harmailtan ikuskizuna ikus badezakete. Baina ez dakigu ekainean ze goeratan egongo garen".

elementuak joz, eta ez kontrarioa. Horrela, nahiko txukun moldatu gara, baina egia da borrokaldietan ibiltzen direnekin muga handiagoak egoten direla, lan egiteko orduan zailagoa da eta bariantek aurkitzea".

Espainiako Kopan hasiko du euskal selekzioak denboraldia

MENDI LASTERKETAK Apirilaren 18an Algamitasen (Sevilla) jokatu duten lasterketa izango da lehen hitzordua

X.U. ARRASATE

COVID-19aren ondorioz iazko denboraldiaren zati gehiena bertan behera utzi ondoren, badirudi aurten euskal selekzioarendako moduko hitzordua antolatuko dituztela, eta selekzio kideek hainbat zirkuitutan esku hartu ahal izango dutela. Hala, lehenengo hitzordua Andaluzian izango dute apirilaren erdialdean, hilaren 18an: Sevilla Peñon Extreme izena duen lasterketan emango dituzte korrikalariak 2021eko lehen pausoko elastiko urdinarekin.

Maratoi erdiaren distantzia izango duen proban, korrikalariak 2.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Apirileko probaz gain, Espainiako Kopak beste lau lasterketa izango ditu: maiatzean Miranda de Ebron (Burgos, Gaztela eta Leon), uztailean Terorren (Kanariar Irlak) eta urrian Alhaurin El Granden (Malaga, Andaluzia) eta Leiren (Nafarroa).

Maila handiko borrokaldiak

Espainiako lineako txapelketa, berriz, maiatzaren 2an jokatu



Euskal selekzio kideak 2019an. Tartean, Alzola, Alonso eta Uribarri. EMF

dute, Albanchez de Magina herrian (Jaen, Andaluzia), Magina Skyrace izeneko lasterketan, eta bakarkako eta taldekako txapelketak izango dituzte jokoan. Lasterketa horretarako hautatzen dituzten korrikalariak 28,5 ki-

lometroko luzerari eta 2.500 metroko desnibel positiboari egin beharko diete aurre. Hori bai, selekzio ordezkariek oraindik ez dute horietan selekzioa ordezkatuko duten lagunengoa zerrendarik eman.

ARETO FUTBOLA Lider dagoen Eskoriatza Santurtzira joango da

Maila Nazionalen sailkapenean partidu bat gutxiago jokatu ere lehenengo postuan dago Eskoriatza, jokatu bederatzi partiduetatik bost irabazita. Eta zapatuan (15:45), sailkapenean erdian dagoen Santurtziren kantuan jokatu dute.

Euskadiko Txapelketan, berriz, Mondratek eta Aretxabaletak etxetik kanpora dute hitzordua. Arrasateko taldeak Lezon jokatu du, zapatuan (17:00). Eta kontrario zuzena izango dute aurrean, Jaixkiareto bigarren dago eta. Eta Aretxabaletak Laudion izango du norgehiagoka, zapatuan baita ere (17:30), sailkapenean azken postuan dagoen Uxoaren kontra.

Liga ahal den moduan hasteko gertu daude

FUTBOLA Mondrak, Bergarak eta UDAk ligari berrekingo diote; arrasatearrak dira etxean jokatu duten bakarrak. "Kutsatzeko arriskua leku guztietan dago: kalean, lantokian... Futbol zelaian ez dago arrisku gehiago", dio Asier Olaizola entrenatzaileak

Xabier Urzelai ARRASATE

Asteburuan hasiko da baloia Gipuzkoako futbol zelaietan dantzaz. Debagoienean, Moja-tegiko berdeguneak hartuko ditu zapatuan Mondra eta Elgoibar -16:30, publiko barik-, baldin eta azken orduan inork positibo ematen ez badu, behintzat. Hala, jokalariek hasieratik ohitu behar dute ziurgabetasun horretara, baina halaxe dihardute lehiaren beste txapelketa askotan ere, eta ez futbolean bakarrik. Esandako moduan, Mondrak Elgoibarren kontra jokatu du bihar, eta Bergarak Argixaon -Zumarra- jokatu du bihar baita ere (16:00), Urolaren kontra. Aretxabaletak, berriz, domekan izango du hitzordua: 16:30ean jokatu dute, Unben, Eibarren kontra.

"Jokatzeko ilusioz gaude"

Aste barruan, etxean jokatu duen Mondrako entrenatzailearekin izan da GOIENA, eta aitortu du jendea lehiatzeko gogoz dagoela: "Txapelketa berezia izango da, ez da irailean hasten den liga bat, hiru hilabeteko iraupena izango du, eta, horrenbestez, horretara egokitu behar dugu. Hala, hilabete hauetan saiatu gara oinarriko prestakuntza egiten, jendea aktibo mantentzen, eta azken hiru asteotan erritmoa hartzeko ibili gara lanean, astean hirutan entrenatuta".

Olaizolak, baina, garbi dauka ziurgabetasun horrekin lehiatzera ohitu beharko dutela: "Izan ere, baliteke lehenengo jardunaldia jokatu ahal izatea, baina hurrengoan jardunaldia bertan behera geratzea. Eta ez dakigu, ezta ere, pandemiak hobera ala okerrera egingo duen, ligak iraungo duen hiru hilabete hauetan zein izango den eboluzioa, laugarren olatu bat etorriko ote den, bosgarrena... Horrenbestez, horretara ohiko beharko dugu,



Gorka baloiarekin, Amaiak Bat taldearen kontrako artxiboko irudi batean. GOIENA

BERGARAK ZUMARRAGAN JOKATUKO DU ETA UDA-K EIBARREN DU HITZORDUA

eta, jardunaldi bakarra jokatzeko badugu, ba, horrekin gozatzen ahalegindu".

"Epe luzera ezin da ezer egin"

Oraingoz, liga erregularreko zortzi partiduak ahalik eta txukunen jokatzeko da zuri-moreek gura dutena, eta ondoren etorriko dira *play-off*-ak, horretarako aukera badago, behintzat: "Orain bai dela partiduz partidu, hemen garbi dago epe luzera begira jartzeak ez duela ezertarako balio, baina ez futbolean bakarrik, ezta bizitzako beste arlo batzuetan ere. Hala, gu poztu egiten gara guretzeko futbola ez delako partiduak irabaztea ala galtzea soilik, gure egunerokoan egiten dugun gustuko gauza da futbola, bizipoza eta ilusioa ematen diguna. Eta, asteburuan, gustatzen zaigun hori egiten hasiko gara".

Federazioa, jokalariekin eskertuta

Gipuzkoako Federazioak oharra helarazi die jokalariei, erakutsi duten jarreragatik: "Eredu izan zarete gizarte osoarentzat, une oro araudia errespetatuz eta ahal izan den bakoitzean entrenatuz. Bestalde, jakin behar duzue ez dagoela arrazoi ekonomikorik lehiaketara itzultzeko. Futbolarien kuoten euro bakar bat ere ez da pasatzen Federaziotik. Zuzenean Futbolari Mutualitateara doa, erakunde independentea dena, eta osasun-estaldura bermatzeaz arduratzen dena. Gure asmo bakarra da gazteek kirola ahalik eta ingurune seguruenean egin ahal izatea eta gure gizartera ilusio pixka bat eramatea".

"Teknifikazio zentro baten beharra geneukan Oñatin"

JOSEAN MULAS EUSKAL SELEKZIOKO HAUTATZAILE OHIA **ESKALADA** Zubillagan dago zentro berria

X.U. ARRASATE

Josean Mulas eskalatzaile beterranoa da Zubillagan prestatu duten eskaladako teknifikazio zentro berriaren bultzatzaileetako bat. Aretxabaletako eskalada eskola eramateaz gain, ilusioz beteriko proiektu berri bati ekin dio.

Nondik etorri da teknifikazio zentro bat sortzeko ideia?

Taldean ditugun neska-mutilek oso maila altua dute, eta eurak bakarrik entrenatzeko espazio propioa izatea eskatzen zuten. COVID-19a medio, eta Aretxabaletan genuen leku faltarekin, zaila zen neska-mutil horiek hobetzeko ahaleginean aurrera egitea. Gurasoen eta klubaren artean jauzia egin dugu lokal propioa izateko.

Zer da teknifikazioa eskaladan?

Eskolak daraman bigarren zatia da. Eskalada gustuko duen eta hobetu nahi duen eskalatzaile batek beti izango du tarte bat hemen. Teknifikazioa hobetzeko ezinbesteko tresna da.

Teknifikazio zentro hau nori zuzenduta dago?

Ez dago lehiaketara bakarrik bideratuta, harkaitzean eskalatzera joaten direnentzat ere bideratuta dago. Eskalatzeaz gain, adiskidetasuna, errespetua, ingurumenarekiko maitasuna eta haren kontserbazioa eta halako balioak transmititzen saiatzen gara. Balio horiek harkaitzean eskalatzera joaten direnarako baliagarriak izango dira, baita txapelketetan ere.



Josean Mulas. EMF

Nortzuk doaz gaur egun teknifikazio eskoletara?

Oñatira hurbiltzen diren eskalatzaileen artean, Euskal Selektziozko kide batzuk ditugu, hala nola Mikel Linazisoro, Haizea Oses, Martzel Vicario, Esparta anaiak, Aimar Uson tolosarra... Guretzat garrantzitsua da Linazisoro, Andoni Esparta eta halako eskalatzaileak etortzea, nik nahi dudana transmititzen baitute; hau da, nagusiek eskaladarako duten grina hori gazteei transmititzen diete.

Eta Aretxabaletako eskola? Zein egoeratan dago gaur egun?

COVID-19arengatik itxita dago, baina iaz eskalatzaileen *overbooking*-a izan genuen. Ezin ziren sartu guk nahi genituen neska eta mutil guztiak, eta hori ere arazo bat da. Gogorra izan zen jendeari denentzat lekurik ez zegoela esan behar izatea.

SASKIBALOA Lidergoa sendotu du MUK, Ardoik kale eginda

Mondragon Unibertsitateak garaipean garrantzitsua eskuratu zuen joan den astean Zarautzen kontra, eta puntu horiei esker lidergoa sendotu du; izan ere, bere kontrario zuzen Ardoik galdu egin zuen. Hala, EBako kategoriako oilarrak sailkapenaren erdialdean dagoen Valle de Eguesen kantxan jokatu du asteburuan.



Dani Lorenzo erasoan. GOIENA

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 10ean argitaratu zuen 4/2020 Dekretuak bertan behera utzi zituen "musika eta ahots-izaerako edo dantza-izaerako entsegu eta emanaldi kolektibo ez-profesionalak, musikako gradu-ko ikasketen edo baliokideen prestakuntza arautuari dagozkionak izan ezik". Urtarrilaren 11n, profesionalak ez diren dantza taldeek lanean hasteko baimena jaso zuten.

Dekretuak zirrikitu eta hutsune asko dituela diote, orokorrean, eskualdeko musikariek, eta entseutzea ezinbestekoa dutela aldarrikatzen jarraitzen dute. Badaude lokal pribatuak dituzten musika taldeak, baina gehienak udal eraikinetan daude. Entseguetarako baimena emateko ezer gutxi egin dezaketela diote, orokorrean, udal ordezkariak, baina egoera zein den ulertzerakoan malgutasuna ez da guztietan bera.

Aretxabaletan, lokalak itxita

Azaroa ezker, kuarteleko erai-kina itxita dago eta bertako musikariek ez dute entseatzeko aukerarik. Udalari proposamen bat egin ziotela kontatu dute Kuartela Kultura Elkarteak ki-deek: "Udalaren eta elkartearen arteko kontratu sinboliko bat sinatzea proposatu genuen; inorentzat inongo kosturik izango ez zukeen hitzarmena. Kuartela Kultura Elkarteak taldeak kontratatzeke proposamena erakutsi genion Udalari; kontratu horrek, legez, eraikina zabaltzea eta bertako kultur jardunari ekitea ahalbidetuko luke. Trukean, astero, edo bi astean behin, herriarrendako kultura ikus-kizunak eskaintzeko konpromisoa hartuko genuke guk".



Aretxabaletako Kuartela Kultur Elkarteak musikari batzuk, eguaztenean, entsegu-lokalen eraikinaren aurrean. XABI URZELAI

Etxeko lanak egiteko, trabak

Profesionalak ez diren musikariek, orokorrean, ez dute entseguak egiteko aukerarik, baina egoera ezberdina da herriaren eta taldearen izaeraren eta jardunaren arabera; Aretxabaletako Kuartela Kultura Elkarteak manifestazioa egingo du bihar, 18:00etan

Udaleko ordezkariak proposamena gustatu zitzaizela baina gauzatzeko aukerarik ez dutela azaldu du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak: "Ez dago gure eskuetan entseguak baimentzea. Jaiki elkarteak badu aukera

orain, baina Eusko Jaurlaritzak horrela baimendu duelako. Kontzertuen kontratu hori ere ezin dugu egin, ez dituelako dekretuak jasotzen dituen baldintzak betetzen; hau da, alta emanda egon behar dute musikariek".

Entseatzeko baimena eskatzeaz gainera, eraikineko azpiegitura arazoak konpontzeko beharra dutela ere badiote elkarteak ki-deek: "Eraikinak gabezia handiak ditu; besteak beste, elektrizitate arazoak ditugu". Horri erantzuz

nez Caberok zera dio: "Egin ahal diren konponketak egin ditugu, baina ez dugu eskatutako guztia egiteko aukerarik orain".

Euren aldarrikapenak kalera aterako ditu Kuartela Kultura Elkarteak bihar egingo duten manifestazioarekin. "18:00etan abiatuko gara, kuarteletik; erdiguneko kaleetan zehar ibiliko gara eta udaletxean bukatuko dugu. Herriko eta aldemeneko herrietako musikariak eta zaleak gonbidatu nahi ditugu", eta zera gaineratu dute Arrasateko DeposGaz elkarteak: "Garrantzitsuak dira halako ekimenak arazoa gizarteratzeko; gure babetesa irmoa da halakoekiko".

Herri batzuetan, bakarka

Oñatiko Eltzian ditu Zai Zoi Bele musikarien kolektiboak entsegu lokalak, eta Goikorrock elkarteak batzen dira Bergarako talde gehienak; elkarteek dute lokalak kudeaketaren ardura. Bakarka entseatzeko, orokorrean, biantan, baina kontzerturen baten edo grabaketaren baten kontratua izanez gero, taldean entseatzeko baimena izan dezakete. "Arrasateko DeposGaz elkartearen lokaletan ezin dute entseatu, baina izaera profesionala duten musikariek eta taldeek baimen berezia eskatzeko bidea dute", azaldu dute Gazteria Saitetik, eta zera gaineratu dute elkarteak: "Behar ditugu gure espazioak erreperatu, askatasun eta hausnarketa guneak piztu eta denon artean eraiki, modu kolektiboan. Zaindu ditzagun herriak, kultura eta zaindu dezagun guztiok elkar. Guk egingo dugu, baina agintariei ere neurriak eta dinamika aldatzeko eskatu nahi diegu eta erantzukizunetz jokatzeko ere bai".

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?

Zatoz **batu-banatura!**

- Banaketa **masiboa.**
- Banaketa **pertsonalizatua.**
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

Batu Banatu:
zure publizitate-banaketa, neurrirra!

batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus

Hainbat talde, lanean

Egitasmo asko bertan behera gelditu diren arren, badira abian dauden hainbat ere. Bergarako Lemak taldeko Biken Larrañagak asteburuan diskoa grabatzen hasteko asmoa dutela dio: "Estudioarekin dugun kontratuak egunotan taldean entseatzeko aukera eman digu. Grabazioa bukatu bitartean izango dugu baimen berezi hori".

Kontzertuak lotzeko garairik oparoena ez den arren, eskualdeko musikari batzuk ari dira

agendak osatzen; Bergarako Emon taldeak, esaterako, *Itzulerako kontzertua* egingo du bihar. Seminarixoa: "Ez dugu lokalik, eta hainbat toki handitan batu gara. Udalak kontzertuaren ziurtagiri bat egin digu entseatu ahal izateko, eta Zabalotegin entsegu bat egiteko aukera ere eman digu".

Abesbatzek, egoera ezberdinak
Euskal Herrian 15.000 lagunetik gora mugitzen dira abesbatzetan, baina ez dago abesbatza profe-

sionalik. "Abesbatzen Federazioak entsegu baimen batzuk lortu ditu, baina, zoritxarrez, ez koru guztientzako. Kontzertu edo bestelako emanaldietarako kontratua lortuz gero, entsegu baimen hori emateko gaitasuna ere badu Federazioak. Hasierahasieratik zorrotz zaindu dugu protokoloa. Ganbararen entsegu-tokia aldatu egin dugu, Eltziaok Aula Magnan egiten dugu orain; oso zabala da eta ez dugu maskara sekula kentzen", azaldu du Aitor Biain zuzendariak.

"Pandemia garaian klabea izan da Abesbatzen Federazioaren lana"

AITOR BIAIN ABESBATZEN ZUZENDARIA

Aitor Biain oñatiarra bost abesbatzatarako zuzendaria da: Ganbara, Hots eta EHUko abesbatzetan, Ganbara Kantu Eskolan eta Bergarako Orfeoian.

Zelan daroazu egoera?

Egia esan, beste zuzendari batzuekin alderatuz zorratea dut nik; guztiekin ez, baina koru batzuekin aurrez aurre entseatzeko aukera dudalako. Ganbara eta Hots abesbatzekin modu presentzian jarduten dut eta Bergarako Orfeoianekin, online. Ganbara eskolakoekin ere aurrez aurre entseatzeko dugu, baina talde txikitik.



OIHANA ELORTZA

Zergatik ezberdintasun hori?

Euskal Herrian ez dago abesbatza profesionalik, eta, hori horrela, Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak entsegu baimen batzuk lortu

ditu, horien artean, aipatutako bi taldeentzako.

Eta nola moldatzen zara Bergarako Orfeoioekin?

Bi saio egiten ditugu astero: neskekin bat eta mutuekin beste bat. Ez da aurrez aurrekoa bestekoa, muga teknikoak daudelako, baina ezer egin baino irtenbide hobea da. Aukera dugunean jendaurrean abesteko gogotsu gaude.

Atzean Federazio bat izatea lagungarria izan da, ezta?

Duda barik. Herrialde bakoitzeko bana dago, eta horien gainetik Euskal Herrikoa. Ikastaroak eta beste ekimen batzuk antolatuta abesbatzei bultzada ematea da helburua. Pandemia klabea izan da Federazioa; Osalaneekin protokoloa egin du, entseatzeko baimenak lortu ditu...

Bandak eta orkestrak ezin dira batu

Bergarako Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa ere geldi daude azarora ezker. "Bi talde ezberdin dira, baina egoera bera da, ez dugu aurrez aurreko entsegurik eta kontzertuak egiteko aukerarik, ez garelako talde profesionalak. Martxoan bat-batean eten genuen jarduna, ekainean hasita elkartzeko aukera izan dugu, baina azarotik hona ezin gara elkartu", azaldu du Enrike Txurrukak, Bergarako Bandako eta Bergarako Orkestra Sinfonikoko zuzendariak.

Taldeak motibatuzko, bideoak

Hala ere, Txurrukak gaineratu du bakoitzak bere etxetik bada ere bi taldeek lanean jarraitzen dutela: "Ezaugarri antzerakoak

dituzten musika bandekin eta orkestrekin harremanetan nago, eta gogorra da entzutea hainbat talde bertan behera geratzeko arriskuan daudela. Horregatik, musikariak aktibo mantentzea da gure helburua, eta asmo horrekin etxeko-lanak bidaltzen dizkiet noizean behin. Bakoitzak bere zatia grabatu eta niri bidaltzen dit gero, eta horiekin guztiekin talde-bideo bat osatzen dut nik. Modu horretan, musikariek taldearekin duten konpromisoari eustea lortzen dugu, batetik, eta, bide batez, herritarrei lanean jarraitzen dugula erakusten diegu. Iazko martxotik hona sei bideo zabaldu ditugu sare sozialetan, eta herritarrek eskertu egin

digute eskaintza hori, nahiz eta kontzertuetarako irrikaz daudela ere sarritan adierazten diguten".

Banden Federazio berria

Elkarlanerako bideak zabaltzeko eta informazioa partekatzeko asmoz, hainbat Whatsapp talde sortu dituzte azkenaldian euskal bandek eta orkestrek, baina, horrez gain, pauso bat gehiago eman berri dute, Euskal Herriko Banden Federazioa sortuta. "Paperak eguneratuta genituen hogeitalek eman dugu lehen pausoa elkartearekin, eta ari dira poliki-poliki beste talde batzuk ere batzen. Arrasateko eta Eskoriatzako musika bandak musika eskolakoak dira, eta, beste izaera bat duten arren, taldera batzeko gogoia dute".

Goiena Klubaren txokoa**Goiena Klubeko otsaileko sariak!****Errigorako saskia**

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harramandenda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klubak@goiena.eus | Whatsapp: KLUBA "sariaren bera" (barkidaren zenbakia) 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 15/09/2021ean zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Irabazlearen izena lotu gabe irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena.

Irabazi bi lagunendako otordua**MAIALDE JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Otsailaren 23a arte

943 25 05 05 klubak@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...

**BAZKIDETZA KUOTA: 57€**

Deitu: 943 25 05 05 • klubak@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!

HILDAKOAK

- **Juana Osinaga Urrutia.** Arrasaten, otsailaren 1ean. 95 urte.
- **Enrique Maidagan Miota.** Arrasaten, otsailaren 1ean. 89 urte.
- **Pakita Isasti Gagor.** Oñatin, otsailaren 1ean. 80 urte.
- **Veneranda Etayo Barbarin.** Arrasaten, otsailaren 2an. 92 urte.
- **Antonio Gomez Seara.** Bergaran, otsailaren 2an. 69 urte.
- **Nicolasa Ibabe Elorza.** Oñatin, otsailaren 2an. 99 urte.
- **Antonio Gomez Seara.** Bergaran, otsailaren 2an. 69 urte.
- **Katalina Etxaniz Unzueta.** Bergaran, otsailaren 4an.
- **Facundo Arana Ugarte.** Arrasaten, otsailaren 4an. 63 urte.
- **Catalina Hurtado Molina.** Bergaran, otsailaren 4an. 85 urte.
- **Amador Saiz Hoyo.** Oñatin, otsailaren 4an. 87 urte.
- **Mikel Markuleta Kortabarría.** Oñatin, otsailaren 4an. 64 urte.
- **Felipa Urkia Elorza.** Oñatin, otsailaren 4an. 98 urte.
- **Bittor Urcelay Eguren.** Bergaran, otsailaren 5ean.
- **Maria Errasti Unzurrunzaga.** Bergaran, otsailaren 5ean. 90 urte.
- **Mari Carmen Salvatierra Alpire.** Bergaran, otsailaren 7an. 62 urte.
- **Aurora Raso Garcia.** Eskoriatzan, otsailaren 8an. 89 urte.
- **Sabino Madariaga Luarizaristi.** Bergaran, otsailaren 10ean. 86 urte.
- **Pilar Garcia Some.** Eskoriatzan, otsailaren 10ean. 79 urte.
- **Jabier Okina Uribetxebarria.** Arrasaten, otsailaren 11n. 77 urte.
- **Serafin Fernandez Moreno.** Arrasaten, otsailaren 12an. 88 urte.
- **Candido Del Palacio Fradejas.** Arrasaten, otsailaren 12an. 63 urte.
- **Vicente Aranburu Agirrebalzategi.** Arrasaten, otsailaren 13an. 85 urte.
- **Irene Valdes Goitia.** Bergaran, otsailaren 14an. 85 urte.
- **Amador Saiz Hoyo.** Oñatin, otsailaren 14an. 87 urte.
- **Jose Antonio Gutierrez Perez.** Aretxabaletan, otsailaren 15ean. 80 urte.
- **Miguel Osuna Repiso.** Bergaran, otsailaren 15ean. 82 urte.
- **Antonia Letona Moreno.** Bergaran, otsailaren 16an. 91 urte.
- **Hilario Uriarte Ugarte.** Oñatin, otsailaren 17an. 89 urte.
- **Tomas Ugalde Olalde.** Bergaran, otsailaren 17an. 92 urte.
- **Narcisa Calzada Perez.** Arrasaten, otsailaren 18an. 81 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 20	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 21	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 22	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 23	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztena, 24	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 25	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 19	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 20	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 21	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 22	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 23	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 24	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 25	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 19	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 20	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 21	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 22	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 23	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 24	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 25	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021eko abuztuaren 15era arte:
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38	/ 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2021 osoan:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76	16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
 COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA



Ramon Mendibil Aiastui
 1942-05-15 / 2020-02-27




Nahiz eta gure artetik joan, beti izango zaitugu gure bihotzean!


Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Bergaran, 2021eko otsailaren 19an.

URTEURRENA



Benita Azkarate Uribealzo
 Jose Mari Oregiren alarguna



2020ko otsailaren 14an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko otsailaren 19an.

URTEURRENA

Roke Iñarra Lizarralde



2020ko otsailaren 20an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 21ean, 11:00etan, Antzuolako Eruzkizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2021eko otsailaren 19an.

HILETA



Narcisa Calzada Perez



2021eko otsailaren 18an hil zen, 81 urte zituela, elizakoak eta aita santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Haren senarra: Angel Navero. Semea: Angel eta Maria Jesus Martin. Bilobak: Itziar eta Saioa. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, otsailak 19, izango da, 18:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2021eko otsailaren 19an.
 Oharra: familiak Arrasate Tanatorioan hartuko zaituzte, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30era bitartean.

ESKER ONA



Facundo Arana Ugarte




Eibarren hil zen, 2021eko otsailaren 4an, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko otsailaren 19an.

ESKER ONA

Jose Antonio Gutierrez Perez



2021eko otsailaren 15ean hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko otsailaren 19an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskola Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 180 €

► Eskola mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan dazuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
 Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. 'Koronabirus' mozorroa

Aratuste-martitzena ospatu zuten Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean. Nork bere mozorroa aukeratu zuen arren, askok egin zioten erreferentzia birusari.

2. Munduko musikak dantzatzen

Horrela ospatu zuten Bergarako San Martin eskolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Aratuste-martitzena. Askotariko koreografiak dantzatu eta abestu zituzten.

3. Garrapata piratarekin jolasean

Elgetako eskolako ikasleek modu berezian ospatu zituzten Aratusteak. Mozorrotuta, Garrapata pirataren bisita izan zuten, eta abentura mordo bizi izan zituzten harekin.

4. Ontzi arinak birziklatzen ikasten

Edukiontzian horian zer bota behar den eta zer ez ikasten ibili ziren aurreko zapatuan Arrasateko neska-mutikoak. Hainbat tailer egin zituzten umeekin.

5. Ubarroi handiak Munar auzoan

Arrasaten, Munarren, Aramaio ibaian, ubarroi handi bat ikusi zuten aurreko asteburuan bizilagunek. Ohikoa da halako hegaztiak ikustea erreketan; batez ere, neguan.

6. Umeei intxaurrak banatzen

Bergarako pilotalekuan egon ziren Pirritx, Porrotx eta Marimotots aurreko zapatuan. Marimototsen amatxo Loretoaren omenez landatuko zuhaitzak intxaurrak eman zituen.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Izan Ruiz Vergara
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu! Muxu handi bat denon partetik!



ESKORIATZA
Lourdes Etxeberria Uribesalgo
Otsailaren 22an, 62 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean, merezi duzu eta! Muxu pila bat, zure lagun eta lankideengandik.



ANTZUOLA
Izei Irizar Iztueta
Otsailaren 21ean, 6 urte. Urte askotarako, *rubio!* Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu erraldoi bat zure etxeko partetik!



ANTZUOLA
Aiala Zabalo Garcia
Otsailaren 21ean, 9 urte. Zorionak, *pirulintxo!* Patxo handi bat etxeko partetik. Txokolate goxo batekin ospatuko dugu!



BERGARA
Xabat Arando Arbelaiz
Otsailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Osintxuko Xabatek zazpi urte. Muxu potolo bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
Aitor Irizar Galarraga
Otsailaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Aitor! Ederki pasatu zure eguna. Patxo erraldoiak etxeko danon, eta bereziki, Julenen eta Enekoren partetik.



BERGARA
Nahia Rodriguez Lazkano
Otsailaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa, etxeko guztion partetik! Jarraitu beti bezalako alai! Askok maite zaitugu!



ARRASATE
Uxue Sampedro
Otsailaren 19an, 19 urte. Zorionak, Uxu, zure pisukide zoragarriren partetik! 19 urtiak ederto ospatuko ditxugu!



BERGARA
Ariane eta Maialen Quintas Ruiz
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu! Muxu erraldoi bat denon partetik!



BERGARA
Nora Perez Zabaleta
Otsailaren 19an, 8 urte. Zorionak, Nora! Ondo-ondo ospatu urtebetetze eguna eta eta segi beti bezain alai. Zortzi tirakada belarririk eta patxo handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
Julen Irizar Azkune
Otsailaren 19an, 6 urte. Zorionak, Julen, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Etxeko danen partetik, mila kilo zorion eta patxo potolo bat!



ARRASATE
Oihan Lopez Sanchez
Otsailaren 18an, 4 urte. Zorionak, Oihan! Zure familiaren partetik. Muxu handi bat.



OÑATI
June eta Sara Seguro
Sarak 5 urte, otsailaren 17an eta Junek 7 urte, otsailaren 24an. Zorionak gure etxeko printzesei! Askok maite zaituztegu. Etxeko partetik, mila milioi muxu!



ESKORIATZA
Naroa Jara Moya
Otsailaren 16an, 11 urte. Zorionak, Naroa! Muxu pilo bat etxeko guztion partetik eta ondo-ondo pasatu zure eguna!



ARRASATE
Julen Anasagasti Vitoria
Otsailaren 16an, urtebete. Zorionak, Julentxo! Sekulako eguna pasatuko dogu zurekin gaur! Mila muxu familia osoaren partetik, *Juji!*



OÑATI
Jose Ramon eta Ibai Axpe
Jose Ramonek, otsailaren 16an, 47 urte beteko ditu eta Ibaik, otsailaren 20an, 8 urte. Zorionak, bikote, familixako danon partetik. Oso ondo pasatu zuen egunak. Laztan handi bana.




OÑATI
Ekhi Arregi Madina
Otsailaren 15ean, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, maitte! Jada bi urte! Oso ondo pasatu zure egunian eta asko zelebratu! Etxeko danon partetik. Batez ere zure arreba Iratik.



BERGARA
Mara De Gofii Campos
Otsailaren 15ean, 9 urte. Zorionak, Mara. Askok disfrutatu eguna. Muxu handi bat familiaren, eta bereziki, Noaren partetik.



ARETXABALETA
Malen Gartziaetxabe eta Nerea Olmedo
Malenek, otsailaren 14an, 9 urte eta Nereak otsailaren 12an, 39. Zorionak, bikote! Ederro pasatu zuen eguna. Muxu handi bat etxeko danen partetik.



ARRASATE
Valentin Alonso
Otsailaren 14an, 68 urte. Zorionak, aitia! Super ondo pasatu egun berezi hau. Patxo potolo bat maite zaitugun denon partetik, txapeldun! Mua!



OÑATI
Uxue Etxezarreta Urzelai
Otsailaren 14an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Bi urtetxo jada! Patxo handi bat etxeko danon partetik. Askok maite zaitugu.



ARRASATE
Nora Ezkurra Bragado
Otsailaren 14an, urtebete. Zorionak, sorgintxo, etxeko guztion, baina batez ere, Eleneren eta lehengusina eta lehengusuen partetik! Patxo handi bat. Askok maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet


Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ANTZUOLA
Ekhi Cabo Mundiñano
Otsailaren 22an, 11 urte. Zorionak, Ekhi! Ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat denon partetik!



ARRASATE
Eñaut Etxebarria Alzola
Otsailaren 13an, 6 urte. Zorionak, Eñaut! Sei urtetzar! Ederro pasauko zure eguna, Ane, Iart eta etxeko danokin!



ARRASATE
Trini Feo
Otsailaren 12an, 68 urte. Zorionak, amama! Ondo pasatu zure eguna. Muxu asko Aitorren, Monikaren eta Laiaren partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



MAITE FRANKO

ARRASATE 'Jateko moduko ipuinak' saioa

3-4 urte artekoendako ipuin kontaketa saioa egingo du Maite Frankok. Irudimenaren eta jakien bidez hara eta hona bidaliko ditu umeak, amets egin dezaten. Aurrez eman behar da izena. *Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 18:00etan.*



EMON

BERGARA Emon taldea -sarrerak agortuta daude- Itzulerako kontzertua egingo dute. Azken zuzeneko eman zutenetik lau urte pasa dira, eta indarberrituta dator Emon taldea. *Bihar, zapatuan, Seminarixoan, 19:00etan.*

EGUBAKOITZA 19

ARRASATE 'Zaindu eta maitatu zure gorputza' ikastaroa

Jaione Albenizek gidatuta, Jabetze Eskolaren baitan. *Emakume Txokoan, 10:00etan.*

ESKORIATZA Wii txapelketa

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoendako. Hamar pertsona, gehienez. *Ludotekan, 16:45ean.*

OÑATI 'Mendi orientazioa' ikastaroa

Patri Espinarrek gidatuta, Jabetze Eskolaren baitan. Lehenengo saioa. *Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.*

ELGETA 'Menarkian bidelaguntzen' hitzaldia

Gaztetxoei hilerokoa ikuspuntu zabalago batez bizitzen laguntzeko nondik norakoak emango ditu Enara Iruretagoienak. *Liburutegian, 17:30ean.*

ARRASATE 'Jateko moduko ipuinak' emanaldia

3-4 urte artekoendako saioa, Maite Frankorekin. Aurrez eman behar da izena. *Kulturaten, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Iñurtegi anaiak. Mendiari bihotz emanak' komiki liburuaren aurkezpena Alberto Iñurtegi, Cesar Llaguno eta Ramon Olasagasti egongo dira. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

BERGARA 'Naparra. Kasu irekia' liburuaren aurkezpena

Jon Alonso egilea egongo da ekitaldian, Angiolillo Liburutegiak gonbidatuta. *Kartzela zaharrean, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Iñaki Peñak zuzendutako lana. Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ZAPATUA 20

ELGETA Emakumeen Mundu Martxa

Uberatik pasako den karabanarekin bat egingo dute, Elgetako zapia eramanez. *Mendizaleen plazan, 09:00etan.*

ARRASATE Baserritarren azoka

Etxeko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera *Seber Altube plazan, 09:00etan.*

BERGARA Emakumeen Mundu Martxa

09:00etan Bergarako frontoian elkartuko dira, eta 10:30ean, Elorregin, Bergaran egindako zapia Arrasateko kideei pasako diete. *Pilotalekuan, 09:00etan.*

ARETXABALETA 'Ondo bereztua, asko aurreztua!' kanpaina

Informazio puntua eta haurrendako eta gaztetxoendako ekintzak, Mankomunitatearen eskutik. *Herriko Plazan, 10:30ean.*

ESKORIATZA 'Ondo bereztua, asko aurreztua!' kanpaina

Informazio puntua eta haurrendako eta gaztetxoendako ekintzak, Mankomunitatearen eskutik. *Fernando Eskoriatza plazan, 10:30ean.*

OÑATI Teknikari tailerra

Musika ekipoek, argiek eta agertokiko antzerko tresnek nola funtzionatzen duten, gaztetxeko teknikari taldearen eskutik. *Gaztetxean, 11:00etan.*

OÑATI 'Harriak eta hostoak margotu' tailerra

3 eta 8 urte arteko umeendako ekintza, ludotekako hezitzaileekin. *Foruen plazan, 11:00etan.*

ARETXABALETA Emakumeen Mundu Martxa

11:00etan, mezua idatzi oihalean; 12:30ean, Mugarrirantz abiatu; 13:30ean, bailarako beste oihal eta mezuak jaso eta Eskoriatzara eramanez; eta 14:30ean, bailarako mezuak eman Eskoriatzako. *Herriko Plazan.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena. *Musakolan, 11:30ean.*

ELGETA 'Bahiketa Asel Uzarraga' liburuaren aurkezpena

Ostean, *Txile esnatu da dokumentala.* *Espaloian, 12:00etan.*

ARRASATE 'Neskamearen ipuina' liburuaren aurkezpena

Zigor Garro itzultzaileak parte hartuko du. Edukiera mugatua da. *Gaztetxean, 12:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Tor magoa

Hator magiara delako ikuskizuna. *San Migel plazan, 12:30ean.*

OÑATI La Excavadora taldea

17:00etarako sarrerak agortuta daude. 19:00etako emanaldirako badaude: Txokolateixan eta *Oñati.eus*-en. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ESKORIATZA Tik Tok lehiaketa

Nerabeendako. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARRASATE 'Complicidades' erakusketa

Mabel Medinaren erretratuak ikusgai, hilaren 28ra arte. *Kulturaten, 17:00etan.*

ARETXABALETA Kulturaren aldeko manifestazioa

Otalora 27tik udaletxeraino. *Kuartel zaharrean, 18:00etan.*

BERGARA Emon taldea -sarrerak agortuta daude-

Itzulerako kontzertua egingo dute. *Seminarixoan, 19:00etan.*

ESKORIATZA 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Iñaki Peñak zuzendutako lana. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

DOMEKA 21

ESKORIATZA Tik Tok lehiaketa

Nerabeendako. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako. *Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

BERGARA Bertso-trama

Jokin Bergara, Eli Pagola, Amaia Iturriotz eta Maider Arregi bertsotan. Sarrerak salgai, hiru eurotan, saioa baino lehen, 17:00etatik aurrera. *Kartzela zaharrean, 18:00etan.*

ARAMAIO 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala -sarrerak agortuta daude-

Doluar buruz Iñaki Peñak zuzendutako lana. Ostean, solasaldia. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ASTELEHENA 22

ARRASATE 'Literatura eta bizitza bidaia dira. Euskal Herritik mundu zabalera' hitzaldia

Jose Mari Iturralde egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*



ARGAZKILARIA XXXX

LEINTZ GATZAGA 'Hator magiara' ikuskizuna

Tor magoarekin. Familia osoak gozatzeko emanaldia izan arren, txikienak izango dira protagonista: barre egingo dute, harrutuko egingo dira, magia ikusiko dute eta, garrantzitsuena dena, magia egingo dute. *Bihar, zapatua, San Migel plazan, 12:30etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

OÑATI Idazketa lantegia

Joxe Mari Iturralde gidatuta, bi taldetan: 17:00etan eta 18:30etan. *Liburutegian, 17:00etan.*

OÑATI Auzo jaietako batzordeekin batzarra

2021eko auzoko jaien egutegia zehaztu, dirulaguntza lerroak adostu eta COVID-19aren aurrean hausnartuko dute. *Osoko bilkura aretoan, 18:30etan.*

ARRASATE Oreka TX taldea

Taldearen musika ibilbidea jasotzen duen *Koklea* diskoaren aurkezpena. *Amaia antzokia, 19:00etan.*

MARTITZENA 23**ARRASATE 'Reforma de las pensiones. El pacto de Toledo' hitzaldia**

Sara Muñozek egingo du berba, Nagusien Kontseiluak antolatuta. *Kulturaten, 17:30etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Deseando amar
Zapatua eta domeka: 19:00.

Fritzi: un cuento revolucionario
Zapatua eta domeka: 16:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

Mi niña
Domeka eta astelehena: 18:30.

Fritzi: un cuento revolucionario
Domeka: 16:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

La chica del brazalete
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

Tofu, el pequeño guerrero
Zapatua eta domeka: 16:30.

GASTEIZ**GORBEIA**

En guerra con mi abuelo
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 17:10. Domeka: 12:00, 17:10.

Wonder woman
Egubakoitza eta zapatua: 18:30. Domeka: 11:30, 18:30. Eguaztena eta eguena: 16:40.

Hasta el cielo
Egubakoitza eta zapatua: 19:00. Domeka: 11:45, 19:00. Eguaztena eta eguena: 17:05.

Los croods: una nueva era
Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30. Eguaztena eta eguena: 17:20.

El inconveniente
Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 19:30.

El pequeño vampiro
Egubakoitza eta zapatua: 17:15. Domeka: 12:00, 17:15.

Las niñas
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena: 19:20. Domeka: 12:00, 19:20.

El finks
Egubakoitzetik domekara: 16:50.

Cazadores de bruja
Egubakoitza eta zapatua: 17:20. Domeka: 12:00, 17:20.

La maldición de Lake Manor
Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 19:10.

Akelarre
Egubakoitza, zapatua, eguaztena eta

eguena: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

Nuevo orden
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 19:30.

Eguaztena eta eguena: 19:30.

Entre nosotras
Egubakoitzetik domekara: 17:25, 19:20. Eguaztena eta eguena: 19:30.

La boda de Rosa
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20. Domeka: 12:00, 17:20, 19:20. Eguaztena eta eguena: 19:20.

La chica del brazalete
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:25. Eguaztena eta eguena: 17:25, 19:25.

La sra. Lowry e hijo
Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 19:25.

FLORIDA

En guerra con mi abuelo
Zapatua eta domeka: 12:00.

Los croods: una nueva era
Zapatua eta domeka: 12:00.

El finks
Zapatua eta domeka: 12:00

El profesor persa
Egunero, eguena izan ezik: 18:50. Eguena: 17:00, 18:50.

Ane
Egubakoitzetik domekara: 17:20, 19:20. Astelehena eta martitzena: 17:30. Eguaztena: 17:30, 19:30. Eguena: 19:30.

El chico
Egunero: 17:30.

Las niñas
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 17:20, 19:20.

La gallina Turuleca
Zapatua eta domeka: 12:00.

Las aventuras del doctor Dolittle
Zapatua eta domeka: 12:00.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka: 12:00.

Antonio Machado. Los días azules
Astelehena: 19:00.

La chica del brazalete
Egubakoitzetik domekara, astelehena eta eguaztena: 17:30, 19:25. Martitzena: 19:25.

BERGARA 'Goier eta energia komunitateak' hitzaldia
Santi Otxoak eta Oier Etxebarriak egingo dute berba. *Seminarixoan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Zu bezalako norbait' erakusketa
Aretxabaleako Caritasen bilduma, hilaren 28ra arte. Kanpotik etorritako familiek zituzten zailtasunak eta bertakoen beharrak jaso dituzte hainbat paneletan. *Euskaldun berria gelan, 18:00etan.*

OÑATI Noka ikastaroa
Jabekuntza Eskolaren baitan. *Euskaldun berria gelan, 18:00etan.*

OÑATI Literatura solasaldia Uxue Alberdirekin
Dendaostekoak liburuaren gainean jardungo dute egilearekin, Yurre Ugarte koordinatzaileak gidatuta. *Zinema aretoan, 18:30etan.*

ARETXABALETA 'Etxeratze prozesua' hitzaldia
Sareko bozeramaile Joseba Azkarragak emango ditu azalpenak. *Arkupen, 18:30etan.*

ARRASATE 'Ojalá te mueras' pelikula
Martitzenetako emanaldia. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

EGUAZTENA 24

BERGARA 'Ane' pelikulari buruzko hitzaldia
Pedro Saldaña zuzendariak egingo du berba. Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

ARRASATE Sasoibide: mendira
Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan. *Biteri plazan, 15:00etan.*

BERGARA Odol ateratzea
Odol premiari aurre egiten laguntzeko. *Oxirondo azokako lehen solairuan, 16:30etan.*

ARRASATE OÑATI 'Kenyako masaiei artzaintzari xake mate' hitzaldia
Oskar Epelde kazetari arrasatearrak egingo du berba, Zoom

plataformaren bitartez, Kenyatik zuzenean. Aurrez eman behar da izena, Lege Soziologia Institutuan. *Online, 17:30etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

BERGARA 'Vitalina Varela' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan, azpiztituluekin. *Seminarixoan, 18:30etan.*

EGUENA 25

ARRASATE Sasoibide: irteera
Arrasaten "miauketan" ibiliko dira. *Biteri plazan, 10:00etan.*

ESKORIATZA Mahai-futbol eta ping-pong txapelketak
16:45ean, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetako umeak; eta 18:00etan, LHko hirugarren eta laugarren mailetakok. *Ludotekan, 16:45ean.*

OÑATI 'Ostegun Kontalariak'
Karabi karaba izeneko saioa egingo du Ines Bengoak 4 eta 5 urteko umeendako. *Haurren liburutegian, 17:30etan.*

ELGETA Baso kudeaketari buruzko hitzaldia
Bestelako baso kudeaketa eredu baterantz izeneko hitzaldia. *Espaloian, 17:30etan.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Rafa Egigurenen *Txipiroiak bere beltsean* liburuaren gaineko saioa egingo dute, Mikel Antzak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia
Ingeborg Bachmann-en *Aldibereko* liburuaren gaineko saioa egingo dute, Alex Gurrutxagak gidatuta. *Kulturaten, 18:30etan.*

OÑATI 'Las niñas' filma, zineklubean
Pilar Palomeroren pelikula ikusteko aukera. *Zinema aretoan, 19:00etan.*



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Polizia vs hezkuntza

Kostatu zait txertaketa-prozesuaren berri lortzea. Ez nekien Jaurlaritzak ez zeukan planik edo plana iluna zen benetan. Biak. Plan zehatzik ez eta dagoen apurra ez dute argi adierazten.

Etxeetan dauden 80 urtetik gorako herritarrak baino lehen hasi dira polizia txertatzen. Eskandalua. Egoitzetako datuek beraiei eragiten diete zuzenean, beraien kudeaketa jartzen da zalantzan. Etxean daudenak beste kontu bat dira. Itxaron dezakete.

Ez zuten esan horrela izango zenik. Bai esan zuten irakasleak baino lehen txertatuko zituztela poliziak, eta horrek zur eta lur utzi ninduen. Biak daude ezinbesteko lanbideen artean, baina beraien hierarkian aurretik doa polizia.

Irakasleak egunero daude 25-30 ikaslerekin gelan sartuta 5-6 orduz, segurtasun-distantzia bete ezin den ikasgeletan. Haur Hezkuntzan ikasleekin kontaktu fisiko zuzenean. Asko izan dira positibo eman dutenak ikasleen eta irakasleen artean. Baina polizia aurretik dago.

Zer espero daiteke polizia hezkuntzaren aurretik jartzen duten agintariengandik?

BUKATZEKO



Jean-Marie Ecay, Antton Fernandez, Jimmy Arrabit, Juan Carlos Perez eta Jose Garate *Foisís*, Itoiz taldekoak. JUAN LUIS MARKAIDA

Itoiz taldearen material bila, dokumentala egiteko

Doxa Producciones ekoiztetxeak 'Itoiz udako sesioak' izeneko ikus-entzunezkoa egin gura du 2022rako, eta, helburu horrekin, Mutrikuko musika talde ezagunari buruz zaleek izan dezaketen argitaratu bako materiala biltzeko deialdia abiatu dute

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
163 días: la huelga de bandas dokumentala elkarrekin egin ondoren, Larraitz Zuazo zuzendariak bera oso zale den Itoiz taldeari buruzko dokumentala egitea proposatu zien Doxa Producciones ekoiztetxeko Ainhoa Andrakari eta Zuri Goikoetxeari. "Oso gustura geratu ginen aurreko lanarekin, eta propo-

samenarekin bat egin genuen. Orain dela hamabost urte sortu zuen Andrakak ekoiztetxea, eta, harrezkero, askotariko film luzeak eta laburrak egin ditugu. Dokumental arloan jarduten dugu, gehienbat; gai politiko eta sozialei buruzkoak dira gehienak", azaldu du *Itoiz udako sesioak* dokumentaleko gidoilari eta ekoizle Zuri Goikoetxeak.

Fikzioarekin nahastuta

Dokumentalaren helburua, bereziki, taldearen hastapenak eta lehenengo urteak jasotzea dela azaldu du Goikoetxeak: "Taldeen esentzia jaso nahi dugu. Kapa edo arlo ezberdinak ditu lanak: badaude taldeko kideei eta gertukoei egindako elkarrizketa pasarteak, artxiboko irudiek osatutakoak ere bai, eta

baita kontakizuna lotzeko fikziozko pasarteak ere. Euskaraz da, gehienbat, nahiz eta pasarte batzuk gazteleraz ere badauden, kide guztiak ez dira-eta euskaraz ondo moldatzen".

2022an estreinatzeko asmoz

Gidoia borobiltzen ari dira orain, eta datorren urte bukaeran estreinatzeko asmoa dute. "Gaur egungo egoerarekin, zaila da jarritako epeak betetzea, baina hori da gure nahia. Lauzprobost orduko audio elkarrizketa luzeak egin dizkiegu taldekideei, eta orain, horiekin gidoiari azken buelta ematen ari gara. Aldi berean, inoiz ikusi ez diren artxiboak bilatzen eta sailkatzen ari gara, eta baita finantzaketa lortzeko lanetan ere; oraingoz, %90 lortuta dugu.

Artxibo pribatuena bila

Etxeetan gordeta dagoen materiala bidaltzeko eskaera egin dute. "Audioak, argazkiak, kartelak, bideoak... jaso gura ditugu. Ez da ezinbestekoa kalitate onekoa izatea. Halako materialik baduzue, asko eskertuko genuke Archivo@doxaproducciones.com helbidera bidaltzea".



Itoiz taldearen diskoak. GOIENA

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

OTSAILAREN 25EAN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

"Gure aportazioa izan zen euskal herriko gizarteari astindu bat ematea, behar zuelako"

GARI
MUSIKARIA



goiena
Zu hemen zaude.